


Kosme Lizaso

Jose Joakin Mitxelena gogoan



**Jose Joakin
Mitxelena
gogoan**

Auspoa Liburutegia
256



AUSPOA



SENDIA

SENDIA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendia.com

editorial@sendia.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Kosme Lizaso

**Jose Joakin
Mitxelena
gogoan**

Auspoa Liburutegia
(1998)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-61-5

Depósito Legal: NA. 2.433-1998

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Itzaurrea

ITZAURRE au idazten asterakoan, oroipen zaar bat bururatu zait bat-batean: nik Jose Joakin Mitxelena Agirrezabala bertsolaria zana (1924-1988) noiz, nun eta nola ezagutu nuan, alegia.

Tolosako San Juanak igaro berriak ziran, 1945 urtean. Andik laster, San Pedrotan ustedet, mendi-bizkar baten gainean dagoan Urki-zu baillarakoak genituan. Ala, iru lagun ara igo giñan bazkalondo batean, artean kamiorik ez eta garai bateko gurdibideetan barrena.

Iritxitakoan, bertsolari bat kantari ikusi genduan. Nor zan galdetu eta Oiartzungo Mitxelena zala erantzun ziguten.

Bakarrik ari zan, ordea. Ez dakit zergatik: laguna etorri etzalako ala festa-antolatzaileak beste bertsolaririk billatu etzutelako. Dana dala, arek bertso bat bukatutakoan, esku-soiñu-joleak doiñua errepikatu egiten zuan; eta, au ixildutakoan, oiartzuar bertsolariak berriro ere kantu-lanari ekiten zion.

Udara asierako arratsalde eguzkitsu bat zan, eta Ernioko egal batean geunden, gure be-

giak Gipuzkoako zati aundi bat mendean arzen zuten tontor batean. Ala, aren kantua aizeak an urrutian ikusten genituan mendi, erri eta baserri aietaraiño eraman nai zuala zirudian.

Bertsolari ura mutil gazte bat zan, arpegi borobil batekin eta buruan txapela zuana. Orain, ura jaio zan urteari begiratuta, ogei ta bat urte besterik etzuala ikusi det. Orren gazterik asi zan, beraz, erria serbitzen. Baita ere, gerra ondoko urte zail aietan, bertsolaritzari odol eta arnas berria ematen.

Urrena, andik amabost bat urtera, 1960-an gutxi gora-beera, bertso zaarrak biltzen asia nintzala, bisita egin nion igande-arratsalde batez beraren etxean, Oiartzungo Iturriotzen. Arrera ona egin zidan.

Nere asmoen berri eman nion, eta bai berak gustora entzun ere. Bertso zaarren batzuk eman zizkidan eta itz aspertu luze eta atsegiña egin genduan.

Ondoren, bere emazteak prestatutako merienda gozo eta oparoa alkarren artean garbitu genduan. Ondo aurretik probatu nituan nik, beraz, denborarekin *Atamitx* jatetxe ospetsua izango zanaren fintasunak.

Andik aurrera maiz ikusten genduan alkar, an eta emen, bertso-saioren bat zan tokietan. Agur maitekorra egiten zidan beti, biotz aundiko gizona zanez.

Bera il eta andik zortzigarren urtera, 1996-an, *Auspoa* Liburutegiaren 242 zenbakian, Mitxelenari buruzko liburu bat gustora

asko argitaratu genduan, Antton Kazabon adiskideak prestaturik eta Juan Mari Lekuonak itzaurrea idatzirik.

Ez da liburu ori oiartzuar bertsolariaren bizitza, ez eta azterketa ere, ontatik itzaurreak askotxo duan arren; baizik-eta arek an eta emen kantatutako bertsoen antolojia bat. Aren aotik sortutako lorerik fiñenak, alegia.

Orregatik, ura zer gizon-modu zan agertzearren, beraren bizitzaren berri emango zigun liburu baten bearra ikusten genduan. Idazlan ori nori eskatu, ordea? Buruari asko eragin gabe, Kosme Lizaso bertsolariaren izena bururatu zitzaigun.

Gure adiskide au, bertsoak kantatzeko ez-zezik prosaz idazteko ere gauza zala ez genduan dudarik egiten.

Alde batetik, bertsolariak, bertsoan egingo badu, euskera nai ta nai ez oso mendean bear dualako. Itzaren doaia berekin izan, alegia; eta zeruko opari ori jaso duana gai izango da bai bertsoarako eta bai prosaz dotore eta egoki itzegiteko eta idazteko ere.

Egi ori adibide askorekin probatu eta oiñarrituko diteke gaur egunean: Basarri, Uztapide, Xalbador, Lasarte, Txomin Garmendia, Iñaki Alkain, Jose Manuel Arrizabalo, Mariano Ostolaiz, Jose Mari Lertxundi, Sebastian Salaberria, Inozentzio Olea, Jose Aierbe, Ibaiertz... Baita ere Bizkaiko Basilio Pujana, Faustino Etxebarria, Lino Aiesta... Idazle oiek denak prosaz lan bikaiñik eskeiñi badigute ere, beren leenengo langintza bertsoa izan zuten.

Ez dakit zenbateraino oartzen geran; baiña bide berri bat zabaldu zaio gure erri-literaturari azken urte auetan: prosagintza alegia, emendik aurrera leengo bertsogintzari lagun egingo diona. Ori bertsolari eta bertso-jartzaille guziengatik esan ditekena izanik, Kosmeren gaitasunaz ziur egoteko bagenduan beste jakinbide bat: orain amabost urte, 1983-an ain zuzen, berak idatzi zuala Martzelino Manterolaren *Lore apal bat* liburuaaren itzaurrea. Eta bai egoki eta dotore idatzi ere. Esaera zaar batek, berriz, onela dio: “Saski bat egiten duanak, eun ere egingo ditu”. Dudarik ez genduan, beraz, gure Kosme adiskidea, bertsogintzan ez-ezik, prosagintzan ere frutu ederrik emateko gauza zala.

Ala, berak orrelakorik gutxienik pentsatzen zuan batean, aren etxeko atea jo genduan arratsalde batez. Belarriak arretaz tente-tente zituala entzun zuan gure eskaria; eta, guk nai bezela, baiezkoa eman.

Arrezkeroztik, noizbeinka, berak orriren batzuk idatzita zeuzkala abisatutakoan alegia, alkarrekin bildu egiten giñan, *Sendoa* argitalextearen leku zabaletan. Nik, antxe bertan, berak ekarritako orri berri aiek irakurri egiten nituan, esku-idazkera ezin ulertuz-edo sortzen ziran dudak eta zalantzak berak argitzen zizkidala. Gero orri aiek etxera ekarri eta ordenadoreaz pasa. Jokabide ori izan da gurea, gaur irakurleari eskeintzen diogun liburua osatu arte.

Oiartzungo euskerak bere berezitasunak badituala edozeiñek daki. Olakoak errespetatu

egin ditugu. Baiña fonetismo edo aozkatze-moduak kendu, irakurketa zaildu ez dezaten.

Naiz eta gure Kosme adiskidea Mitxelena baiña amaika urtez gazteagoa izan, bera ere oiartzuarra izanik, Ugaldetxo baillarakoa ain zuzen, bi bertsolari auek bikote berezia osatu zuten, eta urte-mordoan erriz erri or ibili ziran, ez Gipuzkoan bakarrik, baita Naparroan ere.

Ala, alkarrekin zebiltzala, gaztea zaarraren gertakarien ikusle eta aren itzen entzule ernea izan zan. Baita gordetzaille ere.

Liburu onen orrialdeetan, bi bertsolari auek ortxe ikusten ditugu ara eta onera alkarrekin, bietan zaarrenak gazteenari zion maitasunarekin, eta gazteenak zaarrenari zion begirunearekin. Etzitzaion orduan Mitxelenari burutik pasa ere egingo, beraren bizitza idatziko zuana ondoan zuanik. Ezta Kosmeri ere, denborarekin alako eginkizun bati erasoko zionik. Baiña orduan uste gabe bildutako gai aietatik etorri da onako liburu au.

Kosmek ez dizkigu, ordea, Mitxelenaren bizitzaren pauso guzien berri ematen. Zenbait gertaera, ateraldi eta ibillaldi, bere oroimen ugaritik atera alean kontatzen ditu. Bere langintza ortatik zer nai duan onela aitortzen du leenengo atalean:

“Liburu au osatu nai nuke, berak egin zuen bizitzaren eta izan zituen lagun eta oiturak elkarrenganatu eta aietxen argazki baten antzera”.

Ala, Mitxelena zana zer gizon-modu zan eta aren izakera zer zan, ederki asko azaltzen digu.

Baiña, orrekin batera eta uste gabea, bere bu-ruaren berri ere argi eta garbi ematen du liburu onen egilleak. Itz batean esateko, bi biotz on ikusiko ditugu orrialde auetan: bata, Mitxelenarena; bestea, Kosme Lizasorena.

Arek bere akatsak izango zituan, aragizkoa zanez. Oi danez, zipriztin oiek beraren erritar-
rak beste inork baiño obeto ikusiko zituzten. Baiña bai alderdi onak geiago zirala ere.

Zer besterik erakutsi zuan aren illeta-elizki-
zunak? Urte gutxitan, Oiartzungo eliz aundi-
dotoreak iru betekada artu zituan, zein baiño
zein irurak ere: Uztapideren illeta, On Manuel
Lekuonarena eta Jose Joakin Mitxelenarena.
Orra or garbi ageri irurak berdin maitatuak zi-
rala. Bere altzoan orrelako iru gizon izana poz-
bide eta ospe aundia da, izan ere, edozein erri-
rentzat.

Baiña irugarren alderdia ere badu liburu
onek. Mitxelena nor izan zan adieraztearekin
batera, Oiartzungo erria oraintsu arte zer izan
dan agertzen digu. Euskal lur guzia bezela, erri
au ere aldatzen asia da. Izan ere, gure mundu
berri onek agintzen duanari kontra egingo dio-
nik ez dago. Datorkiguna zer izango dan ez da-
kigu. Baiña betiko dijoana zer izan zan jakin
nai duanarentzat, ispillu ederra izango da
emendik aurrera, Oiartzungo erriari dagokione-
an beintzat, liburu au.

Bejondaizula, Kosme, eta eskerrik asko.

A. Z.

Izaguera

IDAZTERA naraman eginkizun au, nere lagun atsegin eta maite nuen Joxe Joakin Mitxelena-rengatik egitera noa.

Bere sendikoak edo bere lagun izandakoren batek irakurtzean, utsegiñen bat edo utsegin batzuek egin baditut, barkatuko al didate beintzat. Orixe da inñundik inñora naiko nukena.

Liburu au osatu nai nuke, berak egin zuen bizitzaren eta izan zituen lagun eta oiturak elkarrenganatu eta aietxen argazki baten antzerara.

Nik Joxe Joakin Mitxelena izagutu nuen neronen bederatzi edo hamarren bat urte neuzkaila. Orain ere nere begien bistan daukat aren orduko irudi eder ura: ogei edo ogei ta paren bat urte izango zituen mutil aparta, aundi bezin lirain. Baita sasoi ere.

Nik geroztik entzun nuenez, garai artan Erreteriko fabrika batean lan egiten omen zuen: *Galletas Olibet* izenekoan; Erreteriko *Galletera*-n, alegia.

Garai aietan ez omen zuen edozeñek jatekoa ibiltzen zen tokiko lantegia lortzen: Erren-

teriko Panderia, irin-fabrika zena edo panaderiren bat, esku artean jenero gutxi izaten zelako, batetik; eta, gañera, esku artean ibiltzen zen gauzak igesi egin etzezan oso konfiantzako bear zelako.

Mitxelenarekin batera lanean ibiltzen zen Oiartzungo Ugaldetxoko Larria baserriko Bautista Artola zenak, gogoan daukat nere osaba Manuel Iyeru zenari nola esan zion:

– Iturriozko Naparraren seme orrek galleta-pilla ederra jaten dik. Biño orrek zaukak sa-soia! Nik galleta-paketea biño aixago ibiltzen dik eun kiloko zaku iriña.

Nere osabak parra egiñez:

– Bai, Bautista. Sinisten dizut. Napartar oiek gizon azkarrak dira.

– Ura ala duk beintzat.

Nere osaba zena, Iyeru Manuel, itzai ibiltzen zen auzoetako golde-lanak eta iratzeketak, sagar eta sagardo-karraitzeak, lorrak eta abar egiñez.

Egun artan ere Larria baserrian giñan. Ni mutil koskorra eta osaba zenarekin jotzen nintzan. Eskolatik atera eta osaba nora, ni ara. Ibili aietaz kontu geiago ere banituke, biño natorren lengo arira.

Mutil koskorretan

ANAI bat ere bazuen Joxe Joakiñek, Patxi izena zuena, bera biño zarragoa. Ogei ta amabost urtetik berrogei edo berrogei ta biko tarte ortan il zen, ni deskuidatzen ez banaz. Pulmoniaz edo ez dakit nola. Biño osasunez arin samar ibiltzen zena zen. Nik juxtu-juxtuan izagutu nuen.

Bein batean onela esan zidan Joxe Joakiñek:

– Guk, bi anaiak, motel, motel, mutil koskorrak giñanean, perratxiko-biltze latzak egiten genitin, eta itxetik oso urrutira jon gabe gañera. Egun batean, akordatzen nak, Garañoko zokotik goraxeago jon giñun bi anaiak.

Garaño baserria Iturriozko barriotik ateeran bertan dago.

– Etzakit Erretiko iratze-lekua edo Oiartzabalkoa edo nongoa zen. Asi ta segituan, zestokada ederra bildu genin. Bazioken an perratxikoa ugari. Baiña guk geiago eramateko tokirik ez; eta, gañera, ez genitin oso ongi izagutzen, eta itxera jon giñun.

Itxera jon eta osaba Koxme oraindik ezkongai ziokeen, eta gure itxean izaten yun. Orain-



*Jose Joakin Mitxelena Agirrezabala bertsolaria
(1924-1998)*

dik goizean lanera jon gabea yun. Pentsa zak zeñen goiz egin genuen buelta. Ala esan zigukeren arek:

– Biño, mutillak! Non ibili zazte? Au duk onto-pilla ekarri duzutena!

Gu ez geunden oso seguru onak edo txarrak ziran, eta esan genion:

– Osaba, onak al dira?

Eta osabak:

– Onak? Onto txarrik ez duk izaten.

– Pilla ederra ikusi dugu, ba, olakoa! –esan genion.

Eta arek:

– Zoazte eta bil zazute, eta ekatzute al duzutena. Ni lanera niak.

Gero ere berriz jon eta beste xixtera aundi bat bete-betea ekarri zutela esan zidan.

Mutil koskorretan oso mutiko berezia izan bear zuen Mitxelenak. Nik ez nuen izagutu. Biño izagutu zutenak neri esan didatenez, potoko-potokoa. Orregatik, *Pottoko* deitzen omen zioten bere barrioko lagunak.

Baita barriotik kanpo zeuden baserrietako mutil koskorrak ere. Aiek ere *Pottoko* izenaren jabe egiñak zeuden. Robustiano Urkia, Torres baserriko semea, naiz eta barriotik urruti samarrekoa izan, izen orren berri ongi zakiena zen, berak esan zidan eta.

Biño Mitxelenak nunbait ere aditu nai ez, eta Iturriozko eskolara ez omen zuen jon nai izaten, eta Oiartzungo kaleko eskolara jotzen omen zen.

Gero ere agertu zuen eskola bereziren batean ibilia zela.

Garai aietan izan bear zuten Oiartzunen futboleko talde edo ekipo batzuek.

Nik jakin nuenez, beintzat, barrio bakotzak bere taldea, eta Oiartzunek zazpi barrio ditu: Arragua, Ugaldetxo, Iturriotz, Altzibar, Karrika, Ergoien eta Gurutze; eta zortzigarrena Elizalde edo Kalea deitzen zaiona.

Mitxelenak talde oietako batean jolasten omen zuen: Iturriozko taldean. *Oñazkar* omen zuen talde orrek izena, eta Mitxelenak portero edo atezain jokutzen omen zuen.

Aitatutako zortzi talde oiek egin dute, ba, beren txapelketa, eta *Oñazkarrek* irabazi; *Mitxelenaren* taldeak alegia.

An, ba, pozak eta kantak! Nonbait ere lan ona egiña izan bear zuen atezañak, eta bera garai-ikurra edo koparekin. Eta talde oberena, illuntzen asi edo karanabartzera egin zuenean, kaletik Iturriotza kantari:

Gora *Oñazkarreko*
portero biziya!
Gora *Baboso* eta
kuadrilla guziya!

Mutikotan aboko jario pixkaren bat izan bear zuen Mitxelenak, eta orregatik izango zen berari *Baboso* esatea, gerora aboa nola itxi eta ereki ongi ikasi bazuen ere.

Ordurako asia omen zen bertsoetan ere. Gabonetan artu Olentzero karretillean eta bakar-

-bakarrik eskean itxetik itxera. Berak kantatu eta berak limosna jaso.


Itxeren batean esan omen zioten:

– Non duk boltseroa, mutiko?

Eta erantzuna:

– Ara or: bota orreri –karretillean zaukan Olentzerorengatik alegia.

Beraz, gazte-gaztetandik ikasia zen bertso-tako dirua jasotzen.



Oiartzun

Aita eta amarekin

BERAK bein biño geiagotan kontatu izandu zidan gazte-denboran nola bizitu izandu zen.

Bei bat izaten zutela eta goiz askotan, lanera jon biño len, arentzat aitak eta biak karretilkada mazka aundi bat egin bear izaten zutela udara-partean.

Neguan, berriz, otea egiten aritzen omen zen. Igande askotan jon izandu omen zen, goizetik bi zama ote egin ta egoardirako bertso-tara.

Oso urrutirako deia etzuen izango. Bi zama ote egiteko mendira jon bearko zuen, eta denbora asko bear da.

Eta beste gauza bat: jon bear zuen tokira jon bear zuela, bizikletan jon bear. Gaurko egunean, gutxiena daukanak kotxea badu. Orduan, berriz, geiena zaukanak ere bizikleta soil bat izaten zuen.

Ala, izketan bere kontuak esaten ari zela, nik galdetu nion:

– Denbora izaten al yun bi zama ote egin ta bertso-tara joteko?

– Bai, motel. Bizikletan joten niñun Artikutzko kamio-ixkin oietara. Lenbizi bi zamak egin, eta gero bizkarrean artu. Bizikletan jarri ta bakarka ekartzen nitin.

Beraz, bizimodu gogorra zer zen gazterik ikasia zen Mitxelena.

Beste gertakizun bat ere kontatu izan zidan bein edo bitan. Nik esan nai pixka bat billatu nion, eta irakurle bakotxak pentsa dezala bere modura.

Amari esan omen zion ezkontzeko asmotan zela luzatu gabe, eta amak aitari semea zer asmotan zen.


Andik ondorean aitak esan omen zion –itz auetxekin kontatu zidan berak–:

- Seme, andrea artzera omen yua...
- Bai, aita. Andrea artzea pentsatu dut.
- Itxean sar zak atzeka.

Nik ez dakit nola sartuko zuen: aurreraka edo atzeraka. Ori ez nuke esango. Biño dakitena da berrogei bat urte inguru andrearekin pozik bizi izandu zela, naiz ta familirik izan ez.

Seme-alabarik ez izatearekin, bere sentimentua bein biño geiagotan agertu izan zuen.

Ni gogoratzen naz, San Esteban jaietan, Oiartzunen plazako bertso-lanak eginta, Kastrone deitzen diogun tabernako aurrean maiak jartzen zituzten, eta batean Uztapide zena eta biak ziran bertsoan. Bertso-saio artan ere gai orri buruz bertso asko kantatu zituzten.



Makutso, Jose Joakin Mitxelena zenaren jaiotetxea

Jende asko giñan entzuten. Nik amalauren bat urte izango nituen, eta familia gai artuta aritu ziran bertsoan.

Nik orduan ez nakien Uztapidek lenbizi etorri zitzaion semea jaiotzatik galdua zuenik. Gerora bai, berarekin bertsoara jon nintzan batean berak esanda ikasi bainuen.

Egun artan ez dakit aitatu baldin bazuten ere. Biño Mitxelenak bertso batean Uztapideri zer erantzun zion bai, eta onelatsu kantatu zuen:

Nik artu nuen andrea ez da
emakume aldrebesa,
bañan famili izate ori
guretzat ez da erreza.
Bien artean eginda gaude
ziñ-ziñetako promesa:
aingerutxo bat sortzen badegu
oñez joateko Lurdesa.

Beste gertakizun bat, au ere Iturriotzen bizi izandu zen garaikoa da.

Ordurako ezkondu eta andrearekin bizi zena omen zen, eta baratza-lan pixka bat egiten omen zuen illunabarretan, lanetik etorritakoa. Andreak laguntzen omen zion, bera libre izaten zenean, eta biak aritzen ziran.

Egun batean, askotan bezela, baratzan ari zirala, or ikusten dute eizeko zakur-mordoska bat, beren jabeak aurrean artu ta bueltaren bat ematera zeramazkitela.

Jakiña, eizean ibili bear duen zakurrak, asko ibili bear du bestela ere, eta argal samar egoten da. Eta jabeak oso ongi bazakiten ori. Lau anai, ollagorketari purrukatuak baiziran garai artan. Neoni anaietako batek, Xeberok, esan izandu zidan eun ollagorretatik gora botatako neguak bazituztela.

Eta sinistatu nion, ikusi izandu bainuen iru eta laurekin menditik bueltan askotan, eta beste anaiak ere berdintsu.

Jai-egun osoak goizetik arrats arte mendian, eta zakurrak planta txarrena. Jo eta ebaindu arteko pasada artuta itxeratzen baiziran; eta, jakiña, iru edo lau anai denak eizean ibili al izateko zakur asko bear.

Eta, aiek denak elkarrekin ikusi zituenean Mitxelenaren andreak:

– Ara, ara, Joxe Joakin! Ikusten al duzu zer zakur-pilla?

Begira jarrita esan omen zion Mitxelenak:

– Oiek denak jaten dutenarekin, zerri bat egingo litzake urtean.

Eta erantzuna:

– Jaten dutenarekin ez dakit. Biño jango lutekenarekin beintzat bai.

Ateraldi ori zakur-jabeei ere kontatu izan ziela badakit, eta par ederrak egin ere bai lau anaiak. Beti elkarrekin broman eta Mitxelenaren ateraldiak nondik arrapatu ibiltzen baiziran Romanenetarrak. Iturriozko Romanene baita aien etxea.

Aiek ekarri izandutako ollagor bat biño geiago jana zen Mitxelena ere, apari asko egin izan zituzten alkarrekin eta. Lau anai eiztari oiek, botzen zutena botzen zutela, saldu etzuten ale bat ere egiten. Famelian jan edo lagunei eman. Eiztariak bezain emaleak, alegia.

Xebero, Joakin, Gregorio eta Justi dira anai eiztari oiek. Beste anai bat ere bazuten gazteena. Izena ez dakit seguru, baiña Jesus ote zuen uste det. Ura ere eiztaria zen, biño gazterik il zen.

Napartarrak Oiartzunen

NAPARTARRAK Oiartzunen deitzen zioten Mitxelenetarrei. Zergatik? Zaizki aundia eta zabala zelako eta aurrekoz naparrak ziralako.

Napar geiago ere baziran Oiartzunen, eta badira; biño deritzaz ez dira, Mitxelenatarrak bezela, *Napartarrak* izenarekin izagutu, naiz ta aietako edozeñengatik, arguio batean ari zen denboran, onela esan oi zen:

– Bai; ura naparra duk.

Adibidez, Errenteriko Floreaga baserrian bizitzen zenak Martin zuen izena, eta *Floriako Naparra* deitzen zioten,

Baserri ttiki xamarra eta beste nunbaitera lanera joten omen zen *Floriako Napar* ori. Giza-
seme gogorra eta azkarra omen zen.

Nola etzen, ba, izango, gabeen lanetik itxera zijoala, bidean azkonarrua arrapatu eta bere atzaparretan ito egin omen zuen ta? Etzituen nolanaikoak, alajaña!

Lanean nunbait ere bean ibiltzen zen. Ni oso oker ez banago, Pasaiko puertoan edo aieka ortan.

Itxerakoan, askotan, Zamarbide deitzen diogun ballaran taberna ttiki bat bazen, eta an Saiburu bertsolaria zena ta biak bertsoan aritzen omen ziran.

Bein onela bota omen zion bertso bat Saiburuk. Oso umea nintzala ikasi nuen nik bertso ori:

Zamarbidetik Floriagara
ez da bire erosua,
amaika bider dolorez aski
ematen dezu pausua.
Karga aundia artu ezker
beti da ezin jasua,
era orretan ez da ibiltzen
familiko gurasua.

Erantzun zionik ez dut bein ere aditu izandu. Biño bere bat kantatu gabe etzen ixilik geldituko.

Beste anai bat, Joakin. Ura ere Oiartzungo mendi-itxe batean bizitzen zen: Borkondo baserrian, Ergoingo ballaran eta Arditurriko minetatik gertu.

Arek Pasaiko Luzuriaga fabrikan lan egiten zuen. Egunero itxeraño joteko oso luze egiten zitzaion nunbait ere. Bizikleta ere bazuen eta aren gañean ibiltzen zen. Biño ura utzi ta oñez mendi-bide asko pasa bear.

Itz batean esateko, gaurko erreztasunik ez, eta bere arribetako baten itxean astea pasatzen omen zuen, Lizarre baserrian alegia, arre-

bari lanak egiten lagunduz. Baserri au erritik inguru dago.

Beste baserri bat ere bazuen oso aldean: Itxe-txiki, Don Manuel Lekuona apaiz jauna zena jaio eta urtetan bizi izan zen itxea, naiz ta gero, bere bizimoduak eraginda, beste leku askotan ere bizi izandua zen.

Biño gai ontan aurrera jon aurretik, ona emen Mitxelenak bein batez Don Manuel Lekuonarengatik kantatu zuen bertsoa, ari esker-rak emanez:

Zu Oiartzungo semia ziñan
gizon bat izan zerana,
zuri begira pozez eduki
dezu Euskal Erri dana.
Orain oroitzen gerade gu, ba,
zuk len egindako lana,
izar eder bat izandu zera
gure Jainkoak emana,
mundu ontako laño beltzakin
iñoiz gordeko ez dana.

Biño, lengo ariari jarraituz, bein onela entzun genion Don Manueleri. Mitxelena ere an genuen. Ari zen kontu zarrak esaten, eta guk arretaz aditu. Au esan zigun, bere Oiartzungo izkera egiñez:

– Ni akoortua nago oitura bat emen beintzat galdu dela, eta orrekin batean umorea ere bai. Txixtuka lenago jende asko somatzen zen. Orain ez dut iñor somatzen. Nik izagutu duten ongiena txixtua jotzen, Borkondoko *Naparra*

zen. Ura itxetik zelaira, sega bizkarrean zuela, txixtuka joten zen, eta ni gustora egoten nintzan areri aditzen.

Ni ixilik ezin egon eta esan nuen:

– Ura bertsotan ere aritzen zen.

Bertsotan ere oso egokia baizen Joakin ura. Eta Mitxelenak bazterretik esan zuen:

– Bai, bai. Egun batean, akoortzen naz, nik *vespa* erosi berria nuen eta illunabar batean Ernanira jon giñan biak; eta Zinkoneko tabernan bertsotan asi giñan, ta bertso au kantatu zuen osaba Joakiñek:

Oiartzundikan Ernaniraño
kilometruak daude ta,
zortzietako ementxen giñan
zazpiterditan ateta.
Nere illobak rebueltetan
ondo jotzen zun korneta,
orrelakuak ez du merezi
pagatutzia karneta.

Beste bi anai Oiartzungo Karrika auzoan bi-zituak ziran.

Bat, Itxetxo tabernan. Nik ez nuen izagutu. Gazterik illa izan bear zuen.

Bestea, berriz, Lekungarai baserrian. Patziku zuen izena. Ura ezagutu nuen. Itzai ibiltzen zen, biño bei-parearekin. Ez idiekin. Lepoan pañuelo bat jarrita, garai bateko aitonen erara ibiltzen zen. Nik ez nuen beste iñor ezagutu ainbesteko baserritar-plantarekin. Ura bezin osatua, alegia.

Albaiteritzan ere oso abilla omen zen. Nik aren inguruko auzotarrei orrela entzun izandu nien. Ume kentzen txarrak tokatzen ziranean, beterinarioarengana biño len, Lekungaraiko Patzikurengana joten zirala. Eta geienetan bear bezela lanak egin eta gustora denak.

Mitxelena bertsolariaren aitak Erretereriko Urangan zerran lan egiten zuen. Joxe Mari zuen izena. Anai denak ere bai, biño uraxen gizon fuertea zen. Neri Joxe Joakiñek esan izandu zidan:

- Amakin bat tabloi bizkarrean ibilia yun nere aita!

Biño ura ere nunbait ere neguan egur-paltan arkitzen zen. Eta neguero-neguero bi gurdikada egur baserri batetik eramaten omen zizkaten surtarako.

Baserri artako gizonak egurra preparatu, gurdia kargatu eta eramaten omen zion. Biño berak ere zerbait egin nai eta laguntzera joten omen zitzaion. Akaso erretirua artuta egongo zen ordurako.

Bein batez, baserritar ori bere emezortzi bat urteko alabarekin jotea tokatu gurdia kargatzera. Iruak gurdi-kargan ari zirala, alaba ori sasoiko eta gogotsu. Bi aitonak lain lan egiten ari zen, eta onela esan omen zion Jose Marik baserritar areri:

- Mote, mote, onek zakak sasoia! Onek gizonzkoa bear zin izan!

Joxe Mariren anai bat, berriz, Koxme. Au da nik aitatzen duten azkena, biño gazteena ez. Joakin omen zen gazteena.

Koxme Errenteriko Goiko-kalean bizitzen zen. Oso gizon antxoxua edo artista zen ura. Onek esan nai du denerako egokia zela. Arek Errenterian txakoliña urte askoan egin izandu zuela badakit.

Nik sei anaitatik lau izagutu nituen. Lauak gizaseme azkarrak. Beste lau arreba ere bazituzten. Oiartzungo Lizarre, Pagaditxoko eta Aranburu baserrietan, iru; eta bestea, oso oker ez banago, Urnietako Antso baserrian.

Nik arrebetako bakarra izagutu nuen: Aranburuko Antoni. Izen ortako emakumeak, nik beti denak deritzaz *Anttoni* ezagutu izandu ditut, emakume-izenez oso polita eta ongi datorrena delako.

Biño Aranburuko *Napartar* au beti *Antoni* izan zen denentzat. Zergatik? Nere iritziz, gauz asko bere gain artu, aurrera eraman eta berezitasun sendo bat berekin zuelako.

Oso banaka izaten diran emakume oietakoa zen. Karrikako auzoan aren garaian mundura etorritako aur asko, aren laguntzaz jaioak omen ziran. Biño ez ori bakarra; doai geiago ere bazituen.

Albaitero-lan bat ere oso ongi egiten zuen: ollaxko zikiratzen. Ni mutiko kozkorra nintzala, gogoratzen naz zaldi-karroan izebarekin ollaxkoak artu ta Aranburura joten giñala, eta nola egoten nintzan begira.

Egal azpian, atze xamarrean, ebaki bat egiten zion, eta muturrean aro bat egintako alanbre fin bat pixka bat okertua eta beste tresna

bat ere erabiltzen zuen, biño seguru esateko ez dakit.

Ala ere, zer botika erabiltzen zuen, ori bai: olio gordiña. Bere lanak egiten zituenean, olio gordiñarekin egortzi eta uzten zituen ollaskoak.

Kapoiak egiteko garaian lan asko izaten zuen ollaskoak zikiratzen. Gu joten giñan garaian, itxekoak ez-ezik, zaldi-karroan eramaten genituen besterenak ere. Amar bat ollasko bai aldiko. Eta ez naz akordatzen bat bakarrik akaatu izandu zuenik.

Reloju konpontzen ere bai omen zakien. Biño nik ez nuen ortan ikusi. Karrikako ballarak omenaldi bat egin zion, eta Oiartzungo eliz nagusian Joan Mari Lekuona apaizak Antoniri buruz sermoian ari zela esanta ikasi nuen. Omenaldia eta eskertza esango nuke nik biak batera izan zirala.

Antoni arek Joxe Joakin Mitxelena zena bere iloba zuen. Joxe Lizaso eta ni izandu giñan bertsotan. Larogei urte bete zituenean egin zioten omenaldia. Emakume berezia zen Aranburuko Antoni ori.

Antoni orren aizpetako bat Sarobe-errekako Pagaditxoko baserrian bizi izandua zen. Arek ere Antoniren egitura batzua bai omen zituen. Lan antxoxuetan zakiena zen, alegia.

Artaldea idukitzen omen zuten. Eta amon onek, Antoniren aizpak alegia, ardi edo bildotsen batek ankaren bat austea tokatu ezker, bere ezpalekin eta bere loturekin ezur-konpontzeak egiten omen zituen ederki asko.

Bere illobetakoren batek ere segarekin zauri aundiren bat egin ankan, eta iñora gabe bere okenduarekin eta bere lanarekin sendatu omen zuen. Ori bere illoba Modestok eta Josek kontatu zidaten.

Modesto zen aren gizona ere. Izengoitiz *Legatza* esaten zioten. Eta zelebrea omen zen ura ere. Auzoko baserrian *Auntza* deitzen zioten beste bat bizi zen. Eroria da orain etxe ori. Eta egun batean an gertatu omen zen, biak paradatik itxera zijoaztela, irrixtatu eta *Auntza* putzura erori, eta *Legatzak* bazterretik onela esan omen zion:

– Au ere ikusi bear genin: *Auntza* urean eta *Legatza* arkaitzaren gañetik begira.

Mitxelena bertsolariaren aitonak Joakin omen zuen izena. Aren ixtori bat aditu izandu nion Joxe Joakiñeri.

Irungo San Narzisoko minetan katapaz izandu omen zen, mutil-talde batekin; eta mutillak, dirudienez, konfiantza ere izaten zuten berarekin. Erretzallea omen zen, eta mutillen batek esan omen zion:

– Zu, Joakin: ekatzu zigarro bat.

Patrikatik petaka atera eta:

– Egin zak –esan omen zion.

Mutil edo gizon arek, zigarroa egin zuenean, zerbait ere esan bear ta:

– Auxe petaka dotorea, Joakin! Onetxek ederki ematen dizu zuri!

– Bai beste geiagori ere ederki ematen ziok orrek!

Or ikusten da aurrekoz zakarkiela bertsolari-sena Joxe Joakiñek: aitonetik asi ta osabak; eta bera, berriz, bertsolari aundienetako bat izandu zen, iturri garbi askotatik osatutako ibai eder bat bezela.

Arrazoitan ugaria eta zorrotza. Bertsotan beti ongiena egitea gustatzen zitzaiona. Beti, ordea, etzuen gorputzaldi berdiña idukitzen. Biño, txarrean ere, berea ongi kunplituko zuen.



*Gerra ondoko leenengo txapelketa, Tolosan, 1945-IX-30-an.
Ezkerretik: Mitxelena, Saiburu, Ernani-txikia, Basarri, Uztapide, Ondartza eta Zepai.*

Gerra-denbora

MITXELENAK askotan aitatu zizkidan gerra-denborako kontuak. Gogoan daukat nola esaten zidan:

– Gu orduan Makutson bizitzen giñun. Gerra asi zela-ta, aita ere itxean gelditu yun lanera gabe, eta beldurtuta, motel! Ikusten genitin reketeak eta soldaduak nola pasatzen ziran. Nazionalak deitzen zioteken. Jeneral Molaren tropak Oiartzun artu eta Donostia ere artu bear zutela esaten ziten, eta ez yun giro egun aietan Oiartzunen! Ni amarekin enkar gutara. Ogi pixka bat edo beste zer bait ere bear ta Dixparatenera giazeken, eta orduantxe bi edo iru tropa pasatzen kamioan. Aurreko muturrean zijoaztenak, “¡Viva Cristo Rey!” eju egiten ziten; eta atzeko muturrekoak, berriz, mekauenka.

Ala, aiek pasa itun eta, andik urrengo eguna edo bigarrena izango yun, ofizial bat etorria izan bear zin esanez: San Markotik kañoia tiro-rako posizioan jarrita zagoela Oiartzun aldera, eta al zutenak alde egiteko lenbailen itxetik nonbaitera.

Alaxe gertatu ere. Guk eta beste famili batek, Makutson bizi ziranak, Makutsoko Oiantxabalena, aldegin genin; eta egun berean kañonazoa Makutsori atzeko kantoian sartu, eta beste itxe geiagori ere bai.

Nere ama zenari ere alaxe entzun izan nizkion: bere jaiotetxea ere, Iyeru, orduantxe erre zutela, San Markotik tiratako bonba batekin.


A zer aurrerapenak ekarri zizkigun zelako gerra arek, eta gaur ere lengoko arrisku berberak ikusten dizkiagu. Dena dela, nere idatziak ez ditu zuzenduko ta noan lengora.

Neri Joxe Joakiñek esan zidanez, zerria eta zekorra bai omen zituzten ikulluan, eta biak akaatu eta ezer gabe gelditu zirala.

Berak, berriz, len aitatu duten Sarobe-erreaka deitzen diogun ballara ttiki bat badu Oiarzunek, erritik ordu beteko bidea inguru bear duena, mendi-erreaka batean dagoena, eta ara jon zirala gerraren igesi:

– Biño gu ara jon giñaneko, euntalako jente-pilla bayun an, beren itxeetatik iges egiñak. Gu Pagaditxokora, *Legatza*-ren itxera bildu giñun. An izeba eta osaba nitin: aitaren arreba Maria eta osaba Modesto. Bertan egun asko pasa genitin. Emengo frentea pasa eta gerra aurrera jon zen arte, an egon giñun. Gero berriz ere etorri giñun, ba, gure itxera; eta ura len bezela zioken. Beko ondoan yun sartua granada, eta goiari etzioken ezer ere egin. Biño bean genituen zekorra, zerria eta olloak, den-denak akaatu eta galduak itun ordurako. Ondorean, aita ta amarekin, bi anaiak, ezer ere

gabe, gorriak eta beltzak ikusi genitin. Anaiak amabost edo amasei bat urte zitin orduan, eta nik amairu. Ez yun ogirik eta talorik eta ezer ere. Guk orduan periodikoa ere jango genin, urean busti ezkerro noski. Ala pasa genitin urte bat edo beste, beste asko eta asko bezela, mi-xeri gorrian.



*Ezkerretik: Pablo Zubiarrain "Ernani-Txikia"
eta Jose Joakin Mitxelena, 1952 urtean.*

Lanean

ONELA jarraitu oi zuen Mitxelenak, bere mutil kozkorretako kontuak esanez:

– Biño berealaxe asi niñun ni lanean, ama-lau urterekin, eta gañera etxe ondoan bertan asteko suertea izandu nin, itxetik ogei ta amar bat metrora, Don Felix medikuari eskerrak. Arek orduan sagardo-pilla aundiak egiten zitin, eta txanpañduta saldu ondorean. Biño ez yun oso gustora egoten. Berak nai zuen bezelako txanpaña ezin ziten preparatu, ezin asmatu, eta bai al dakik zer egin zuen? Garai aietan ongi kosteak izango zitin, biño ala ere aurrera jo zin. Lantegian zauzkan bere konfiantza geiengo bi langille Bartzelonara bialdu zitin, eta nasketak egiten zituen kimikoa ere bai. An bazirala txanpaña egiten zuten fabrikak, eta aietako bat bisitatzeko. Jakiña, ez bisitatu bakarrik; an lanean nola aritzen ziran erreparatzeko ongi. Biño ez fabrikan bertan galdezka asteko; langilleak bazkaltzera zein tabernatara jotzen ziran zaintzeko ongi, eta beraien ondoan exerita jartzeko bazkaltzen, izpi-lana egiteko moduan alegia; eta, itzbidea emanta, galdetzeko ea zer nasketak ibiltzen zituzten txanpañ

ona egiteko. Biño ez esateko nondik eta zertara joanak ziran.

Ala, erosleren batzuk ziralakoan, fabrikara bertara eraman omen zituzten, eta bai ongi esplikatu ere ango nasketak nola zijoazten. Aste bat pasata etorri omen ziran, eta obekuntza galanta eman ere bai itxeko txanpañari.

– Gero, bi edo iru urtean lan asko egin gegin. Biño lantoki ori besteren batek artuko ote zuen-ta asi itun susmurrak, eta nik alde *Galletera*-ra. Etzakit konpondu ez edo zer pasa zen. Biño berealaxe gelditu yun.

Nik esan nion:

– Bazakit zergatik geldituko zen.

Eta berak esan zidan:

– Ik nola jakingo duk, ba, nik neronek etzakit eta?

– Bai –esan nion–. Langille onenak aldegin zuelako *Galletera*-ra.

Nik esan nai nionetik etzitzaion ezer ere galdu. Dena artu zuen nola zijoan, eta derrepente onela erantzun zidan:

– I ari yaz neri adarra jo naian. Biño jakin bear duk langille onena ez dela lanik geiena egiten duena. Onegi ura lanarentzat ere ona izaten duk noski, biño lanarekin aserretu egin bear dik.

– Bai –esan nion–. Ez abil oso oker.

Guk elkarrekin zenbaitan broma pixka bat ere izaten genuen, ta olaxeko elkarrizketak egiten genituen. Oso atsegiña zen Joxe Joakin zena. Eta gustatzen zitzaion gañera. Zenbat eta

luzaroago broman ari, orduan eta kontenago eta gustorago izaten zen.

Edozein erritara jon bear zela-ta, eguerdiko saioa bukatu eta illunabarrekoa egiteko bertan bazkaldu bear izaten genuen; eta, bakarrik uzten bagiñuzten, alaxeko elkarrizketak izaten genituen.

Ni ixilik edo ixil xamar egoten nintzan, bategetik, nik izagutzen ez nituen gertakizunak esaten zizkidalako; eta, bestetik, oso garbi esaten zituelako. Neri iruditzen zitzaidan ia-ia ikusi ere egiten nituela. Oso atsegiña zen gertatutakoak kontatzen, batez ere gertakizun egokiak baldin baziran.

Biño gerra-denborako kontuak-eta esaten zituenean, aiek ere ain garbi esaten zituen eta batzuak beintzat entzun ez eta obe.

Non, noiz eta zeñekin

BERTSOTAN non, noiz eta zeñekin asi zen esan izan zidan berak: gerra bukatu ta ondorengo urtean, amazazpi urterekin.

Bein batez Oiartzunen bi bertsolari omen ziran etorriak: bat Saiburu eta bestea Zepai, neri au esan zidanerako illak biak.

Bera an omen zabillen jende artean inguru samar, eta orduan kontzejal zagoenen batek esan omen zion:

– I, Joxe Joakin: kantatuko al duk oiekin batean? Nik alkateari esango ziot.

Eta Mitxelenak erantzun:

– Bai, bai, pozik.

Ala, esan omen zion kontzejal orrek alkateari, eta baietz: gaztea eta errikoa baldin bazen, kantatu zezakela, nai baldin bazuen.

Alaxe, lendabiziko plaza egun artan egin omen zuen.

– Gero andik aurrera asi niñun Saiburu berearekin, Paulo Txikiya edo Ernanirekin, Eliorekin...

Orduan barrioetan-ta orain bezela ez yun

kantatzen; errietan bakarra eta erri gutxitan, eta aietan ere kontuz kantatzeko. Esaten ziguteken gerra-konturik-eta ez aitatzeke. Zerbait esateko ainbeste bagenin ikusia eta supritua, biño ez genin ezer aitatzen.

Geroxeago asi niñun Uztafiderekin eta Basarrirekin; eta orduan bai, barrioetan ere asiak giñun kantatzen.

Akordatzen nak: bein batez Basarrirekin niñun Aiako Urdanetan. Egun baterako jon eta bi egun pasa nitin. Basarrik bazituela bere beste lanak edo beste nunbaitera jon bearra edo etzakit seguru; biño bakarrik gelditu niñun, bai. Neronek ere banin lanera jon bearra, biño ango jendeak gelditzeko ta gelditzeko; eta nik ere erregu askoren bearrik ez eta gelditu niñun.

Ango jornala ona yun, biño bai ango otorduak ere, motel! Orduan amar edo dozenaren bat duro izaten genin jornala, biño jan eta edanetik nai zen ainbeste. Ik ba al dakik orduan ura zer zen?

Nik emeretzi edo ogeiren bat urte izango nitin, eta ango giroa! Sakabi eta Iturbide zarra trikitixa jotzen. Orduan, motel, lorik ere ez genin egiten.

Urdaneta ballarako jende sasoikoa an izaten yun; eta Altzola eta Elkano inguru ura dena ere bai. Jende bertsozale amorratua.

Basarri itxera jon zenik ere ez yun izagutzen bertso-kontuan kantidadez; biño bai kalidadez. Artzen niñuteken txoriak ontza bezela bueltan. Batek alde batetik, besteak bestetik,

zirikatzen zidateken denak; eta nik segi, eta aiek ura bear.

Ez genin bezperan bezelako saiorik egingo; biño an ura nai izaten yun. Bateri erantzun eta besteari erantzun, umore ederra jartzen genin beintzat.

Orduan ango festa ura izaten yun: trikitixa eta bertsoa.

Gero ondorean izaten itun komeriak. Itxera etorri eta amak:

– Biño, Oxakin! Bizi al yaz? Non ibili yaz, motel? Atzo etorko intzala eta orain eldu al yaz?

– Oso ongi artu naute, ama, eta oso ongi ibili naz. Bertan gelditzeko, ta orregatik gaur etorri naz.

– *Bueno, bueno*, ongi ibili bayaz, ez dik inporta. Biño izututa geundeken.

– Lasai, ama, biar lanera jongo naz ta.

Urrengo egunean lanera jon ta ura okerragoa izaten yun. Enkargatua kastillanoa genin. Jatorra yun, biño zorrotz samarra, eta ala esan zidaken:

– *¿Ayer por qué no viniste, José Joaquín?*

Eta esan nioken egia: nola bertsotara jona nintzan, eta bigarren egunerako gelditzeko esan zidatela, eta orregatik ez nintzala etorri.

– *Bueno, bueno. Lo pasado pasado está. Pero no quiero que pierdas ni una sola jornada más* –esan zidaken, eta geroztik ez nin tarearik galdu.

Aia aldeko kontuekin jarraituz, erri ori ain da aundia eta zabala, ballara franko dauzkana, eta oietako bat Altzola. Ballara ori gaur egun bigantxak edo beigaiak azitzeko Gipuzkoako Diputazioak artua daukana da, eta lenago amabosten bat baserri izandakoa. Baita eliza eta taberna bat ere.

Oraindik ere tabernak segitzen du. Ganaduarekin lanean ari den jendea eta ganaduaren arduradunak eta albaitea ere araxe biltzen dira, ea enkarguren bat baden, edo-ta berak daukatenean, telefonoa ere an baitute.

Tabernako nausia, berriz, oraindik bertan segitzen duen altzolatar bakarra da. Kornelio izena. Abizena ez dakit. Biño galdetu ezkerro, azkar eta garbi esango lukela bai. Iztun ederra eta gizon atsegiña.

Nerone ere baserritarra nazenez, egun batean ganadu-goraberan Altzolara jon nintzan; eta Kornelioren tabernan mintzatu nintzan, ango ganaduaren arduradunen bat ea non ote zabilen bai ote zakien; eta an agertzen da Kornelio ori.

– Kontxo, Lizaso! Zer zabilta emen barrena? Emen, Altzolan, ez gaude festetan gero! –esan zidan.

– Ez, ez, gizon! –erantzun nion–. Ni baserritarra naz eta ez naz bertsoen egitekoz eldu. Baserritarren eginkizunak eta bertsolarienak oso ezberdiñak dira

Esan nion zer asmotan nenbillen, Fermin albaiteaarekin egon nai nukeala, eta orduan esan zidan:

– Ba, Fermin laister etorriko zaizu. Ordu ontan emen izaten da ura askotan.

Fermin Jauregi, Ataungo Kaxeta tabernako semea, orduan Altzolako ganaduaren kargua zaukan albaiteroa.

Ala, beraren zai egongo nintzala eta asi giñan elkarrizketan biak, eta or asten da Mitxelenaren kontuak aitatzten, eta onelaxe esan zidan:

– Zuek maiz ikusiko dezute alkar?

– Bai. Astean bi edo iru aldiz bai.

– Emaizkatzu eskumuñak Aiako Altzolako Kornelioren partetik.

– Bai, bai, nere kontu –esan nion.

– Aspaldian ez dut ikusi, biño konturatuko da –esan zidan.

– Bai. Aren burua argia da eta ez du bi aldiz esan bearrik izango.

Ala, izketan ari giñala, esan zizkidan pasadizo batzuk:

– Ura emen, Altzolan izanta dago. Batean, santa eskean ibilita, onera bildu ziran kuadrilla, eta gu ere emen geunden. Paskualtxo zena eta jende mordoa bagiñan. Paskualtxo orri orrela esaten zioten, bere jaiotetxea Paskualsorro zelako. Delako Paskualtxo ori berritsu-berritsu jarrita zagoen, eta or asten da Mitxelenari bat esan da bestea esan, eta zerbait kantatu Mitxelena tentatzen, eta or asten da Mitxelena eta onelatsu kantatu zion:

Aia aldian bada
amakin bat bitxo,
eta oietako bat
degu Paskualtxo.
Soruan artajorran
jarduten da mantxo,
eta parrandan berriz
ikusten det geitxo.

Soldaduska

JOXE Joakiñen berri ongi zakien bere lagun batek esanta ikasi nituen nola eta zeñekin ibili izan zen soldaduskan.

Naiz ta koartelera jon berria izan, bereala eskuratu omen zituen ango askatasunak. An orduan zaukaten kapitan batek oso maitea omen zuen. Beraz, oso gazterik asia zen maitatua izaten.

Igantzin bai omen zen erritarren bat lentxe-agotik ere Mitxelena entzutez izagutzen zuena eta esaten zuena:

– Oiartzunen baduk bertsolari gazte bat oso ona.

Eta zer da ta ondorean or jakin dute Igantziko Bentan soldadu dagoela. Bereala gaztekuadrilla batek pentsatu omen zuen:

– Aurten Gabon-eskean ibiltzeko ekarri bear diagu.

Eta baita ere jon dira kanpamentura. Galdatu eta billatu dute; eta esan ziotenean ea etorko zen Gabonetan Igantziko kuadrillarekin eskean ibiltzera, baietz erantzun zioten. Jongo zela ia seguru agindu zuen; kapitanari eskatu-

ko ziola permisua eta seguru zegoela utziko ziola.

Ala, kapitanari itzezin eta baietz: Gabonak zirala eta joteko, eta urrengo egunean gauera-ko etortzeko.

Beraz, lenbiziko bertso-saioa Igantzin, soldadu zagoela egiña. Andik aurrera, berriz, auskalo zenbat aldiz.

Segi dezadan Gabonarekin. Apaldu omen zuten Isatsmendi baserrian, eta atera omen ziran. Lenbizi erriko tabernak pasa bear zituztela, eta gero baserrietara zabalduko zirala.

Ala, lenbiziko tabernan kantatu omen zuten. Andik beste tabernara, andik bestera eta, taberna denak pasa zituztenean, aurreko tabernetan zagoen jende guzia azkeneko tabernan bildu omen zuten.

Ala zabiltzala, gauerdia etorri omen zitzaioten. Jendeak bertsoak aditu nai eta, aldegingo zuten beldurrarekin, limosnarik ematen ez, eta luzaroko saioa egin bear izaten omen zuten, limosna artuko bazuten. Errian bezela, baserrietan ere berdin.

Ala ibilita, urrengo goiza uste baño len etorri omen zitzaioten, eta oraindik baserri askotara allegatu gabe geldituak. Eguna argitu ta gelditzea obe izango zela ta erretira.

Nik kontu oiek adituta, ez nintzan batere arritu. Neroneri askotan gertatu zait gauza berdiña entzule bertsozalearekin. Bertsoa gustora entzuten dagoenari, kantatu ere gustora egiten zaio, eta uste gabe pasatzen da denbora.

Naparroan erri askotan da bertso-egarrria, baña batibat Igantzin beintzat gaur oraindik ere, eta orduan etzen gutxiago izango.

Erriko Trantxe barberoak, bertso bat kantatzeagatik illea moztuko ziola esan omen zion bein batez. Neri kontatu zidanak, Isatsmendiko Xalbador Etxartek, onelatsu zela zion:

Lenago sosak izaten nitun
nik ere iru edo lau,
ta orain denak gastatu eta
nere mixeria dek au.
Ortaz eskian ibilia naiz
atzoko egun eta gau,
kobratutzian pagatutzeko
illea moztuko al nau?

Zeñi eta nola mintzatu ongi ikasia zen ordurako ere Mitxelena. Esaerak dion bezela: “Berez bear dik Billabonakoa”.

Ala, barbero orrek illea moztu ta apainduta jarri du, eta Isatsmendi baserrira. Bertako seme Paxkual, Joxe, Xalbador eta lauak an gosalduta, asi omen ziran, batek etxeko lan pixarrrak egin ta beste buelta bat eman bear zutela. Besteak segituan jon bear zutela, eta Mitxele-nak berriz:

– Ni atzo lorik egin gabea nak eta lo pixka bat egingo nitek.

– Bai, bai. Oatzea jarko dugu ta egin lo lasai!

Lenbiziko eguna omen zen etxe artan sartzzen zena, biño bai lo lasai egin ere noski.

Eguerdian jaiki ta errian buelta bat eman bear zutela; ta, lenbiziko tabernara sartu zira-neko, bertan zauden batzuk asi omen zitzaizkion Mitxelenari:

– Kanta bertso batzuk, gazte!

Sasoi bete-betean egon ta asi da, eta ordu-bete inguru pasa omen zuen bakar-bakarrik kantuan. Zurrumurru galanta bai omen zen taberna artan; baña ixilik asko egon omen ziran ura bertsoan ari zeño.

Saio artan kantatu omen zuen bera ere aurrekoz naparra zela, eta Arantzan eta Igantzin bazituela bere zaizkikoak. Orduan ta beroago entzuten zaudenak, eta baita bera ere.

Elkarrengandik ezin apartaturik ibilita, jon omen ziran berriz ere Isatsmendi baserrira bazkaltzera.

Geiagorako denborarik ez eta gauerako jon bearra zaukala, eta gero ere elkarren berri jakingo zutela. Ala bukatu omen zuen lenbiziko Igantzin egin zuen agerraldia.

Soldaduska osoa serbizio bat egin gabe pasa omen zuen. Au berberak esana neri, eta gñera dirua sobratu. Amar dureorekin jon zela; eta, bukatu zuenean, bi milla eta bosteun peztarekin etxera etorri zela. Sinistatu nion, eta esan ere bai:

– Zerbait ere negozio ibilko yun?

Eta:

– Bai –erantzun zidan–. Negozio xelebrea nin. Kanpamentutik aparte samar zerri-tokiak genitin, eta nik izaten nin ango lanaren kar-

gua. Kozinan sobratzen ziranak bildu ta aieri eramán. Ez yun asko izaten. Aixa egiten nin ura. Biño gero pentsua izaten nin, eta arekin ateratzen nitin sos batzuk. Inguruko baserri batzuetara kilo batzuk eramaten nitin ixilka.

Eta esan nion:

– I ixilka ibilko intzan, biño zerriak ez itun ixilka egongo.

– Ez, motel! Baitun orro ederrak egiten zizutzenak.

– Arrisku ura jokutzen yun, ba, zeñekin ta jende orrekin gañera: militarrekin.

– Bai; biño kontuz ibiltzen niñun. Banakiken nora eramán.

Ez nion galdatu eta berak etzidan esan. Ni geroztik, nere buruarekin pentsatzen jarrita, entzun nizkanak entzunta, au idazten ari nintzala, onela esaten nuen:

– Korajea bear dik militarrei joko ori egiteko!

Eta alaxe ere zen: buruz oso azkarra, eta ala bear militarrei zerbait ere arrapatzezkeró.

Soldaduska ona pasa zuela esan zidan. Berarekin batean jontako beste oiartzuar bat izan bear zuen kanpamentuan: Antonio Loperena, guk Oiartzunen *Añaki* esanta izagutzen duguna. Bera azi zen baserriaren izena, alegia.

Ura ere aurrekoz lesakarra, eta biak oso ongi konpontzen zirala, eta esan nion:

– Bai. Añakirekin ongi konpondu? Aixa. Gizon umilla ta goxoa duk, eta orduan ere ez yun arro ibilko.

Dena dela, estraperloa egitea zer zen ongi ikasita etorri zen andik Mitxelena. Prantziko mugan zelako izango zen.

Nik neronek izagutu nituen Paxkual, Joxe, Xalbador, Bidal, Elena eta Maria Luixa. Aita eta ama ez nituen izagutu; Bautista eta Terexa omen ziran. Auek denak Igantziko Isatsmendi baserriko familikoak, Etxartetarrak. Aietatik illak, nik dakidala, aita eta ama, Joxe eta Elena. Guztion Jaunak berekin ditzala.

Izeba xar bat ere bai omen zuten. Ura ere illa. Beraren izenik ez dakit; biño dakidana da ura omen zela Mitxelenaren bigarren ama. Arek, bere semea izan balu ere, ez omen zuen geiago maiteko. Berak jan bear zuena ere pozik ematen omen zion. Eta besteak, noski, jan egingo zuen.

Beti etxe ondoko lanetan aritzen omen zen, egur txikitzen eta baratzen; eta, an zabillega ikusten bazuen Mitxelena bazetorrela, lan denak utzi ta merienda jartzera.

Urte aietan gañera ogi-kontua ere oso murriz zabillen kalean, eta baserrian murrizago. Zerbait jango bazen, taloa egin bear. Ea zer lanak artzen zituen izeba xar arek. Gaixoa txan txangorria kukuarekin bezela ariko zen, bere ura ezin aserik.

Biño ez omen zuen jan eta edan bakarra egiten, neri Xalbadorrek esan zidanez. Lanaldiak ziranean, bai lana ere kupira aundi gabe.

Oso etxekoa zuten Etxartetarrak. Familiko ospakizunen bat baldin bazen, an izango zen

Mitxelena bere andrearekin. Ni nerone ere askotan eramán izan niñun.

Zegaman bizi zena bazuten arreba bat. Aren alabaren Jauna artzean, antxe izan giñan. Jatetxea zaukaten. Biño uraxe jatetxea! Bazkari bikaña jarri zuten beintzat. Eta bazkal ondoan gu ere saiatu giñan berai ere asekada on bat ematen.

Merezi zuen aiek zauden tokian bertsoan aritzea. Ixil-ixilik egoten ziran entzuten. Bada-ki Igantzi bertsoa asko maite duen erri bat dela; biño zalla iruditzen zait Etxartetarrak bezelako beste famili bat orren bertsozalea izatea.

San Juanak inguruan, aurretik alegia, aparria antolatzen zuten. *Zikiro jatea* deitzen zioten. Ara ere eramaten giñuzten, eta etzitzaigun iruditzen ezer ere falta zitzaigunik. Ori bai: kantatu, al genuen guzia.

Mitxelenak asko maite zituen Etxartetarrak; biño Etxartetarrak Mitxelena ere erruz maite zuten.

Oiartzunen, 1952-ko San Estebanetan

NERONE ez nintzan entzuleen artean; biño besteei entzundako zerbait jarri nai nuke. Badakit len ere esanbesak izan zituela gai onek; biño zertxobait jarriko dut, beste gertakizun batzuekin batera.

Mitxelenak ogei ta zortzi urte zauzkan garaiko kontuak dira. Erriko festetarako bertso-saioa antolatu zen, eta egitarau edo programan bere izenik etzen agertu.

Garai artan, oraingo antzera, erriko norbaitek, artarako arduratzen zenak alegia, deituko zion:

– Zu, Uztapide.

Edo Basarri, edo Mitxelena, Zepai, Elio, Pablo Txikiya, Txapel... Garai artan plazetan zabiltzan bertsolari izagunenak aiek baiziran.

– Erriko festak dauzkagu eta etorri zaite lagun batekin.

Ori, bi bertsolari bear baziran. Edo-ta lau baziran:

– Beste iru lagunekin.

Eta erantzuna izaten zen:

– Zeñekin jotea naiko zenuke?

– Zatozte olako eta biak.

Bestela:

– Nai duzuna ekarri.

Eta beste lau edo bost geiago bear ziranean, berdin.

Dena dela, ez dakit zeñek egindako taldea izango zen ura. Badakit lau bertsolari zerala. Zein ziran denak ez, ordea, ez nintzan an ta. Uztapide eta Basarri bai. Biño beste biak ez dakit.

Eta, diodan bezela, Mitxelenaren izenik ez, erriko semea izanta. Ordurarte an izaten omen zen urtero. Gauzak ala ikusita, aserre samar jarri omen zen.

Orduan alkate zagoen Manuel Arbelaitz zena, eta ari baimena eskatu omen zion, ea kantatu al zezaken beste lau aiekin batera. Eta erantzuna baietz. Gañera, barrio berean bizi zena zen ura, Iturriotzen alegia. Ala, egitarauan lau izen eta oltzaduran bost gizon.

Gogoan daukat, urte aietan eta geroago ere bai, oltzadura non jartzen zen. Erriko plazak badu beste plaza ttiki bat, automobilik eta beste tresnarik ezer sartzen ez den toki bat, Amurrianeko Aurrea esanta entenitzen duguna oiartzuarrak.

Dozen erdiren bat panpano arbol badira plazatxo ortan. Iturri bat ere bai ur garbi eta on askiarekin. Beraz, antxe izaten zen itzalpean erriaren kioskoa edo oltzadura jarria; eta gañean kantatu bear zen.

Ezker-eskubi eta atzeko aldean, bost edo sei aulki edo exerleku. Aietan jartzen ziran erriko apaiz jaun geienak; eta plazan, berriz, entzuleen artean, beste apaizgai-mordoska bat: garai artan, Lekuonatarrak, Mitxelena, Iri-goientarrak, Aldaregia, Ormazabal eta abar. Norbaitzuk utzi baldin baditut, barka dezaidatela.

Itz batean esateko, euntalako giroa San Esteban enparantzan, ez orduan an leiaren bat izango zelakoan, baizik urteroko bertso-saioa alaxe izaten zelako. Biño egun artan gogor samarra izan omen zen Mitxelenak eta Basarrik egin zutena.

Orduan kantatu zituzten bertsoak etziran zintetan artu izan. Biño bai beste era batera, neri esan zidanez lagun batek, Aranburu baserriko Antonio Lekuonak, eta era xamurrean artuak gañera.

Etzaio edozeñi gogoratuko olako xixtima. Ortarako, estudiantua izan bear, eta an entzuleen artean izaki len aitatzen ditudan apaiz gazte eta apaizgai oietxek.

Lau edo bost lagun arte egiten omen zuten lana. Bertsolaria bertsoa kantatzen asten zenean, batek lenbiziko puntua idatzi, besteak bigarrena, besteak irugarrena eta, lau puntuko bertsoa baldin bazen, laugarrenak bukatu. Eta, bostekoa bazen, bostgarrenak.

Era ortan artu omen zituzten bertso-mordoskaren bat. Denak artzeko saio luzea izan eta denak ez artu. Nik an kantatutako batzuk entzun izan nituen; eta, berberak ez badira

ere, onelatsu dira, Aiako Jose Mari Lertxundi adiskideak, bere adierazpen eta guzi, bialdu dizkidanez:

"Basarri eta Uztapide dizdirarik aundienean zeuden garaian, Oiartzunen sortu zan bertsolari gazte, bikain eta etorri oparoko bat: Joxe Joakin Mitxelena, mutil ausarta, erriz erri bertsoan ibiltzeko amorratzen zegoana, eta artarako gai zana gañera.

Biño orain ainbeste saio ere etzegoan; eta, gañera, nola Basarri zegoan orduko bertsolarien buru bezela, eta erri guztietatik, bertsolariak bear zituztenean, Basarriri deitzen zioten, eta arek Uztapide ain lagun maitea eta ain bertsolari ona izanik, biak ibiltzen ziran; ta Mitxelenak, ikusten danez, ori ezin zuan eramanean. Ortatik asi zan bien arteko denboralea ekaitz-tankera artzen.

Basarri, San Esteban egunez, Oiartzuna bertsoan urte-mordoan joan omen zan; eta orain aitatzera noan urte orretan, Oiartzundik lengo urteetan deitzen zioten garaian deirik etzualako, kezketan egon omen zan. Ondorengo bertso auetan ikusiko degunez, oso berandu iritxi omen zitzaion abixua; eta, eguna eldu zanean, baita joan ere.

Baiña Oiartzungo plazan bertso-saio gogorra izan zala esaten dute, orduan entzule izan ziranak. Bostgarren bertsoan Mitxelenak Arantzazuko errebistako kontuak aitatzzen dizkio. Beraren argazkirik azaldu etzalako min artua zegoan nonbait.

Neroni ere oroitzen naz gertakizun artaz:

bertsolari-mordo baten argazkiak ekarri zitu-
tuan, eta nik ez dakit zeñen erruz, baiña Mi-
txelenarena etzan azaldu talde artan.

Bearbada iñoren intentzio txarrik gabekoa
izan zan. Baiña, alkarri mokoka asitakoan,
kozkarik txikiena naikoa izaten da estropozorik
aundiena egiteko, eta egun artan Oiartzunen
ere ala gertatua izango zan.

Dana dala, bertso bero samarrak kantatu
zizkioten alkarri Basarri eta Mitxelenak. Nik
sei auek ikasi nituan.

Mitxelenak:

Oiartzuarrak San Esteban au
degu erriko zaindari,
bere birtutez danen aurrean
astera nua kantari.
Lendabiziko arratsalde on
erriko alkate jaunari,
eta ondoren nere bertsoak
entzuten dauden danari.

Basarrik:

Oiartzunera ni etorritzen
oitua nintzan gaztetan,
eta gai ontaz danen aurrean
astera nua izketan.
Aurten deirikan etzegola ta
egondua naiz kezketan,
eta azkenik gertatu gera
San Estebango pestetan.

Mitxelenak:

Bertsolarien artean dago
oso gauza itxusia,
begien bista ederra eta
alkar ezin ikusia.
Basarri jaun au izango balitz
jardin bateko nausia,
lore onari zaiñak moztuta
indartuko zan sasia.

Basarrik:

Kulpikan gabe au entzuteak
ni jarritzen nau kezketan,
zuri gaitzikan egin gabea
oraindik nere ustetan.
Kontu oriek ez al zegoan
esateik emen bestetan?
Okasioa jartzera al zatoz
zeure erriko festetan?

Mitxelenak:

Okasioa zergatikan dan
orain esango dizut nik:
Arantzazuko rebista ori
daukat ondo ikusirik.
An buru asko azaltzen ziran
baiñan etzegon nererik;
zer uste dezu: Oiartzunear
eztala erretratorik?

Basarrik:

Beraz, Oiartzun, gauza orrekin
zaude oso sentituba,
nik e kanpora bota nai nuke
barrengo ezin kabituba.
Danen aurrean galdu nai dezu
Basarriren kredituba,
nere kulpatzat jotzen al dezu
fraileak eskribituba?"

Oneraño Aiako Lertxundi bertsolariak bialdu dizkidanak. Eskerrik asko, Joxe Mari!

Ala, bertso-saioa bukatu zenean, apaiz jaun batek esan omen zion Joxe Joakiñi:

– Zu, Mitxelena: gaur Basarriri esan dizkionak esateko, etzenuen orrenbeste jenderen aurrean esan bearrik.

Eta erantzuna:

– Ezetz? Uste al du berorrek ezetz?

– Bai.

– Bai? Eta berorre kulpitora sermoia egitera igotzen denean, gustoena noiz aritzen da izketan: eliza utsa dagoenean edo-ta bete-betea dagoenean?

Apaizak ez omen zion erantzun.

Nik, bein batez itzak itzbidea ekarrita, galdetu izan nion, bertso-kontuan izketan ari ginañala:

– Zu Mitxelena: Basarriekin San Estebanetan saio gogorren bat egiña bai omen zenuen, ba...

– Bai, motel. Naiko errepin jarri genin. Ni garai artan baztertua nioken, eta uraxe nin miña. Orduan ateratzen yun Arantzazuko errebista, eta an etorri izan itun bertsolarien erretrato batzuk; biño nererik ez. Ala gabiltzaken eta arritzekoa al duk neronen errian eta erritarren artean esan nituenak esatea? Bai al dakik orduan gure artean zer gertatzen zen? Zakur gutxi giñun, biño ezurra gutxiago.

Itz oietxek esanta utzi niñun.

Etzen gizon zikoitza. Parra murriz batekin kontatu zizkidan pasatako goraberak, patxaraz gañera. Elkarrizketa atsegiña izan zen.

Nik esan nion:

– Ongi gogoan dakazkik!

Eta berak:

– Bai. Gorrotorik etzaukat, biño ez niok az-tuta, aspaldiko kontua den arren.

Batzuetan zuka aritzen nintzaion, beste batzuetan ika, biño berdin zen. Konfiantza aundia genuen elkarrekin, eta orregatik ala itzegiten genuen.

Gizon atsegiña eta gozoa zen. Zakarraldiren bat edo beste izaten baldin bazuen ere, bereala lengora bueltatuko zen.

Zortzi urte badira
arek aldegiñik,
luzeak joan zaizkit
ikusi eziñik.
Etzait agortu argan
nuen maitemiñik,

txarrerako etzuen
ibiltzen mingaiñik,
lagunik ez nun ura
bezin atsegiñik.

Bazakin gogortzen da
bazakin biguntzen,
biño gizon xamurra
oso izagutzen.
Bazakin bearrean
zanari laguntzen,
baita nun etzen bear
ta bearra nun zen,
amakin bat mesede
eskeñita jun zen.

Lanean ere beti
zintzo errenditu,
alperkeririk ezin
zuen ametitu.
Esatezkero zaukan
ainbeste meritu,
onenbestean ezin
niteken gelditu,
guztiak esan bear
baldin bagenitu.



*Joxe Joakin Mitxelena.
Atzean, eserita, Txomin Garmendia*

Aurrerako jarraipena

SAN Estebanetan izandako liskar arek etzuen illabete bat biño geiagoko luzape-nik izandu, naiz ta nere moduko berritsu askok au eta bestea esanez jarraitu. Arrezkero ere elkarrekin bertso asko kantatuak izan bairan Basarri eta Mitxelena.

Seguru ez nago, biño Oiarztungo saioa izan eta andik denbora asko gabe Lesakan kantatu zuten biak elkarrekin, eta gure itz guziak biño geiago dio gertakizun orrek berak.

Andik aurrera zenbat bertso-saio elkarrekin egiñak ziran ez dakit. Biño ondorean biak egin-dako bertso-saio bat emen dago lekuko, zinta zaar batetik entzun eta kopiatuta. Gaia onela eman zioten:

-Basarri, zu, emengo bizitzarekin asperturik, Ameriketara jon nairik zaude; eta zu, Mitxelena, Ameriketara asperturik, Euskal Errira etorri nairik.

Basarri:

Negar-malkuak aixxa datozkit,
nago illun da seriyo,

erri maitia, gogozko zaitut,
bañan nun det alibiyo?
Lanikan ez ta gutxi irabazi,
borondatek ez baliyo,
Amerikara juaan biarra,
ia zer erremeriyo?

Mitxelena:

Ameriketan gaudenak ere
badaukagu geuren kezka,
emen gabiltza lengo kabia
ai bagenduke galdezka;
euskaldunentzat lana t'arrazoi
txarrak bakarrik daudez ta,
emen gaudeze negar-malkotan
juateko dirurik ez ta.

Basarri:

Pasa biarra daukat derrior
Atlantiko arrigarriya,
malko mingotsez estalitzen da
Basarri zarran begiya;
emaztia ta lau seme-alaba
naiko famili aundiya,
nunbait e nik irabazi bear
eguneroko ogiya.

Mitxelena:

Nik naio nuke baldin banego
lenagoko sorlekuan,
uste genduen intxaur betiak
oi ziradela kanpuan;

onuntz etorri, gose ta egarri,
begiak erdi malkuan,
naiago nuke gaur banegoke
askozaz ere lenguan.

Basarri:

Asko poztuko nintzake ni're
al bazindezke etorri,
bañan ni Ameriketan nago
nere lurraren egarri;
sortuagatik toneladaka
zillar eta urre gorri,
sekula etzaitut iñoiz aztuko,
biotzeko Euskal Erri.

Mitxelena:

Ameriketa izena dauka
baño ez da iñorentzat,
emen arrosa uste ta juanda
billatzen da arantzentzat;
nik oi sufritutzen det neronek
ta esaten det danentzat:
emen bertan do Ameriketa
zintzo jokatzen danentzat.



Ezkerretik: Basarri, Lopategi, Arozamena eta Mitxelena.

Pasaiko puertoan

LENAGO aitatutako Makutsoko sagardoak eta *Galletera*-ko lanak egin ondoren, Pasaiko puertoan ekin zion Mitxelenak berriro, eta jatetxea jarri arteko lantegia orixe izan zuen; eta lan gogor asko egin ere bai. Gaur egun bezelako aurrerapenik ez baitzen garai artan. Palan saio luzeak; eta, pala ez bazen, zakoketan mokorrean.

Neri berak esan izandu zidanez, zaku aundiekin tokatzen ziranean egokiago moldatzen zen bera, astiro ibiltzen ziralako, eta nonbait ere arentzat mugimentu gutxiko lana obea. Biño zaku txikiekin asko ibili bear eta belauetatik neka-neka eginta gelditzen omen zen azke-nerako. Ala ere, etzen, beste zenbait bezela, erritan eta itzkirioka asiko.

Puertoko lantegiaz izketan askotan aritzen giñan. Estraperloko kontuak ere esaten zituen. Batez ere tabako gorria eta wiskiarekin irabazi onena izaten zuela.

Eta nik bein edo beste esan izandu nion, konfiantzan jakiña:

– An guardiazibillak eta karabineroak izango dituk, ba?

- Asko. Biño batzuk baditit ongi konpon-
tzen nazenak; eta, serbizioko txanda aieri toka-
tzean, ongi ibiltzen nak.

Etzen xamurra izango an zuten bijilantzia-
rekin kontrabando pixka bat egitea. Biño Mi-
txelena oso buru argikoa zen, eta bazakien non
eta nola ibili bear zuen.

Azken aldera, konfiantza pixkaren bat ga-
llenduta-edo, muturkada ttikiren bat izan zue-
la uste dut. Biño bi bide ziran tokian etzen gal-
duko Mitxelena.

Bertsotarako enkarguarekin joten ziranak
ere bai omen ziran, lanean ari zen tokira. En-
kargatuarekin itzeginta-edo, bera billatzen
omen zuten.

Ala, egunen batean jon da norbait Mitxele-
na ea an zen galdaka, eta:

- Ez, ez da emen. Bolara ontan lan asko sa-
marrekin gabiltza, eta bajarekin dago.

Au Mitxelenak berak kontatu izandu zidan
neri bere buruarengatik, eta beste gertakizun
bat edo beste ere bai.

Toki askotan bezela, ala-olakoren bat edo
beste izan, ba, aiek ere kuadrillan: gazte sasoi-
ko bat, arro-antxa kargaketan-eta zabiltzane-
an, bera biño zarragoei arronka pixkaren bat
joaz ibiltzen zena.

Biño arek ere egun denak berdiñak ez, ba,
nonbait ere; eta egun batean or etorri da, bu-
rua alde batera bota ta eskua lepoan jarrita,
umil-umil mutil ori, eta edadeko gizonen batek
galdatu omen zion:

- Motel, zer abil? Zer pasatzen zaik?
- Ementxe, aizea jarri lepoan eta...
- Orain lepoan jarri al zaik aizea? Mejoran yoa. Lenago gorago yuan.

Olako pasadizo batzuk geiago ere kontatu izandu zizkidan Mitxelenak. Nik denak jartzeko ez dakazkit gogoan. Biño oraingo au, bai, ain da polita eta.

Mitxelena puertoan asi zenean, bai omen zen Anttonio izena zuen aiton bat, bertan urte asko lanean zaramazkiena, eta erderaz iñondik ere tajutzen etzena; eta Antonio orrek berak kontatzen omen zituen, erderaz itzegitera bear-tzen zutenean egiten zituen anka-sartzeak, eta par ederrak ere bai noski.

Ezkondu zenean ere, biajera jon bear zutela eta or jon da bere andrearekin Donostira. Kalean bazterrak ikusiaz bueltaka dabiltzala, taberna baten aurrean ikusi dituzte maiak eta sillak jarriak, eta nor edo nor exerita ere bai. Baita Anttonio eta bere andrea ere an exeri omen ziran.

Andik ixtantera, maiak serbitzen zabillena bazterreko maian asi omen zen galdaka ea zer artu bear zuten, papera eta lapitza eskuan zituela; eta batek *Carlos Tercero* or eskatu du; eta berarekin zagoen emakumeak:

- *Yo, Marie Brizard.*

Eta Anttoniok, bazterreko maitik ura aditu zuenean, esan omen zion andreari:

- Oxepa, izen-nonbreak artzen ari dira.

Ango eskariak jaso zituenean. etorri da Anttonioren maira:

- *¿Ustedes?*

- *Yo, Antonio Salaberria; y esta señora, Joxepa Lekuona.*

Nik Mitxelenari istori au iru edo lau bider gutxienez entzun nion, neroneri eta besteei ere kontatzen ari zela; eta beti par gozo batek alde egiten zion.

Ierobi-aundi sagardotegia

IEROBI-aundi sagardotegia esanta, Oiartzunen bearbada jende asko ez da jabetuko zeintaz ari nazen. Sagardotegi au dugu Baleione esaten dioguna.

Bertako nausia den Jesus Isasak, bere anai Luis eta Xalbadarren laguntzarekin, nere gogoa urterik utsegin gabe sagardoa egin izandu du; eta oraindik ez diot inori aditu Baleioen sagardo txarra egin denik.

Ni gazte-gaztea nintzala, bi gizonen arguiotaz ahoartzen naz. Ugaldetxon sagardo-kontuan ari ziran, eta gogoan daukat nola esan zion bategen besteari:

– Sagardo ona edan nai baldin baduk, oia Baleionera. Ederra zioan.

Urteak dira nik itz aiek aditu nituela, eta orain ere sagardo onak egiten dira Baleionen, orduan bezelaxe.

Orain dela berrogei edo berrogei ta amar bat urte, sagardotegi asko ziran Oiartzunen. Andik urte batzuetara geienak utzi zuten sagardo egitea, eta ateak itxi. Biño utzi etzute-

nak, Aduriz anaiak, Txikierdi eta Baleione izan ziran.

Baleionera baziran kuadrilla jakin batzuk urte osoan, esan nai nuke urtearen edozein garaitan, gosaltzea bazen eta apaltzea bazen, maiz ibiltzen ziranak; eta Mitxelena ere berekin izaten zuten.

Baleionen itxekoa bezelaxe zuten Mitxelena. Bertako semea zen Erramun (g. b.), aurretik aitatu dugun irukote orren osaba zena, Iturriotzen bizitzen zen Mitxelenaren auzoan, oso inguruan gañera, eta begietako argia bezelaxe maite zuten batek bestea.

Nik lenbiziko Mitxelenarekin kantatu nituen bertsoak, igande-arrats batean Baleionen kantatu nituen. Ori oso gogoan daukat.

Garai aietan ez genuen bizikleta eta motorik; eta, beste asko bezela, oñez ibiltzen giñan erri guzia jira arte, eta orduan ere bai Altzibartik Ugaldetxo aldera.

Seguru ez naz akoortzen zenbat lagun giñan. Iru edo lauren bat izango giñan; eta, Baleioneko parera allegatu eta somatu genuen Mitxelena bertsoan ari zela. Bakar-bakarrik gañera.

Pixka batean aditzen egon giñan kanpotik, eta barrena sartu giñan.

Aiek apaldu eta giro ederrean zauden. Denak edadeko gizonak ziran. Guri ala iruditzen zitzaigun beintzat, gu gazteak giñan eta. Oso ongi artu giñuzten.

- Atozte, atozte, gazteak -esan ziguten.

Etzuten berriz esan bearrik izan. Guk ere lotsa kanpoan utzia izango genduen. Laister sartu giñan beintzat tartean, eta Joxe Garro zenak onela esan zidan:

– Koxme: bokiok bertso bat Mitxelenari.

Orduantxetik izan zen gure elkarrekiko asiyera bertsoan. Ni ez naz akoortzen noski zer bertso-taju kantatu nituen; biño entzun zizkiguten beintzat.

Dakitena da sagardoari buruz aritu giñala, eta nola esan zidan ere bai sagardotegian ibili obe nuela tabernan biño.

Geroztik sagardotegi askotan bertso-saioak egin izandu genituen elkarrekin, eta gure gus-toeneko gaiak sagardiak eta tolareak eta sagar-doaren izaiera ziran; eta ara emen sagardiei eta sagardotegiei buruz Mitxelenak jarri izandu zituen bertsoak:

Garai bateko gure
sagardo eztiyak
erri ontan galduta
dauzkagu guztiyak;
orain ezin ibilli
sagardoz bustiyak,
zartu diradelako
lengo sagastiyak.

Gaur askorek ez daki
Oiartzun au zer zan,
sororik ontxuena
sagasti izaten zan;

iya ate guztitan
saltzen egoten zan,
sagardorik etzuan
etxerikan etzan.

Oitura auek zitun
Oiartzungo erriyak,
zarrak badakite-ta
gauz auen berriyak;
berrogei eta amar
sadargotegiyak
batera egon izan
dira irikiyak.

Baserritarrak ere
or kulpak bazetik,
danok lana nai degu
emen errezetik;
orain erango bada
sagardo ezetik,
sagarra ekarri bear
Asturiasetik.

Orduko arbol onak
joan zaizkigu iges,
lenago're etziran
etorriyak berez;
gaitza ori ez degu
sortu zana igez,
lengoak igertuta
berririk jarri ez.

Sagar-klaseak ziran
ainbeste kolore,
sortu arazten zuten
ainbeste umore;
etxeko ontzi denak
bete ta gero're,
orduak izaten zan
nunai saltzeko're.

Sagarran preziyuak
daude gora juanak,
sekulan bera geio
juango ez diranak;
ez baditu beldurtzen
makatzaren lanak,
zuzen asmatuko du
jartzen dituanak.

Asko begira daude
egunekoentzat,
bate pentsatu gabe
beste inorenentzat;
ez badu bearrikan
guztiya beretzat,
ondo etorriko da
ondorenguentzat.



Donostian. "Eun milla pezetako sariketan", 1968-II-11-n. Ezkerretik: Mitxelena, Mattin, Uztapide, Lasarte, Basarri, Xalbador, Lopategi eta Arozamena.

Sinismena

OIARTZUNGO gure Zaindaria dugun San Estebani ere jarri zizkan bertsoak Mitxele-nak, 1957-an argitaratuak. Naiz ta garai artan oraindik gaztea izan, santu ori nor zen eta zergatik galdu izan zuten bazakien arek. Bestela etzuen beraren goraberak ain zuzen emango.

Garai aietan, beste erri askotan bezela, Oiartzunen sermoi on asko entzuten genituen garizuman eta abar.

Eta ez dakit olako sermoiren batean esan zelako edo elizgizonen batek eskatu ziolako, ori ez nuke esango, biño San Estebanen ibiliak nonbaitik ongi ikasiak zituen arek, eta fedeko esamin on bat egin eta ondorengo bertso aue-tzek jarri zituen.

Apostoluak ikasleakin
egun batez bildu ziran,
Ebanjelio santua nunbait
zabaldu naian baiziran.
Berak bakarrik lan ortarako
allegatu ezin ziran,
San Esteban da beste sei gizon
aukeratuk izan ziran.

San Estebanen izenik eziñ
atzendu leike egundaño,
Jaungoikua ta mundutarrari
baizion ainbat kariño.
Zenbat bide on argitu zigun
zegona goibel ta laño,
guregatikan ibilliya zan
biziya galdutzeraño.

Kristo zerura iyo zanetik
seiren bat illabetean,
luzienez e bizitu ziran
uniyuan da pakean.
Mundua pixkat ugaritutzen
asi zitzaiotenean,
txartu ziraden hebreatar da
Grezikuaren artean.

Greziatarrak keجاتu ziran
hebreako emakumez,
an zeduzkaten jende beartsu
edo andre alargunez,
obetoago zeudela aienak
janariz edo eranez;
oien pakea eiteko oroitu
ziraden San Ixtebanez.

Apostoluak bildu ziraden
egun bat aukeratuta,
lan geiegitaz baizebiltzan ba
gau ta egun nekatuta.
Berak bakarrik ezin zutela
ta laguntzaz beartuta,

Jaunaren itza zabaldu zuten
serbitzariak artuta.

Esteban ori asi zanean
Ebanjelio zabaltzen,
hebreatarren artean bera
gaizki ikusia izan zen.
Jaungoikoaren kontrako itzak
zizkiotela entzuten,
ta gezurrezko testiguakin
iltzera eraman zuten.

Esteban ori asi zitzaien
gaixtoari itzegiten,
Jainkoak zenbat lagundu zien
berarek ez al zekiten:
“Buru gogor ta biotz gaixtuak
gauz onik ez du jakiten,
zuen aurrekoak bezela zuek e
gaiztakeriak egiten.

Zuen aurrekoak iritxi ziran
oso pekatu grabera,
Jesukristoren berri emalleai
biziya kenduaztera.
Zuek ein dezuten gaiztakeria
okerrago ez ote da?
Aiek erakustallea il zuten
ta zuek Jesukristo bera”.

Esteban ori atera zuten
Jerusalendik aurrian,

arrika gogor egin zioten
segitun il bearrian.
Mallatu eta zutitu eziñik
utziyagatik lurrian,
iñorentzako gorroto txarrik
etzedukan barrenian.

Bere buruai igarri zion
indarrak juan zaizkiola,
belaunikatu eta Jaunari
auxen eskatzen ziola:
zer egiten dun ez dakiyena
oraindik asko zegola,
Bera il zuteneri bezela
barkatuko al ziola.

Jaungoikoaren kontra zebiltzan
gizonen bildur ezian,
Arren izenez egindakoa
maite baizan biyotzian.
Gorputz ill ura garbitu eta
jaso zutenak etxian,
Jaungoikoaren zorionakin
ordainduak izan zian.

Ixilik artu Jerusalendik
andik urrungo gabeen,
Gamaliel-ek eramán zuen
zazpi orduko bidean;
beren soroan ipiñi zuten
oe berritxo batean,
beraren seme Ebibon eta
Nikodemo-ren artean.

Erriko pestetan

AMAKIN bat urtean tokatu izan zaigu guri, Mitxelena, Lexoti, Uztapide eta lauroi, Oiartzungo bertsolariei alegia, erriko festetan, San Estebanetan, kantatzea.

Urte batean, agurra onela egin zuan Mitxelena:

Beti bezela gure errian
bagaude zenbait euskaldun,
ta esaera da San Ixtibanek
danori deigula lagun;
nola errian zaindaritako
bera arturik daukagun,
aren izenez erriko pestak
ondo pasatu ditzagun.

Bertsorik gabe gure erria
egun gutxitan bizi da,
erri ta barrio urtian ogei
aldiz ekartzen asi da;
bertsoa emen maite degula
garbi asko ikusi da,
bertsolari bat mantendutzeko
gaur erri gutxi aski da.

Beste urte batean, Joan Mari Lekuonak jarri zizkigun gaiak. Mitxelenari, onela esan zion:

– Gure erriko zaindaria, San Ixteban da. Iru bertsotan egiozu errezu zure erriaren alde.

Mitxelenak:

Ai San Ixteban biotzekoa
nai nuke nik entzutia,
gure errian zuk damakizu
Oiartzungo gurutzia;
gauza askotan zail dadukazu
emen gukin burutzia,
indarrik bauzu egin ezazu
danak elkarganatzia.

Zu, San Ixteban, gure erriko
zaindari zauden partetik,
ez dezazula erri artean
iñun eduki kopetik;
badakit zalla dala egiten
ori guztia kolpetik,
bañan erriai ez erakutsi
bakoitza bere aldetik.

Ez det eskatzen bizi bearrik
degunik moda berriyan,
baizik segitu zagula emen
lengo zarraren neurriyan;
lengo etxetan, lengo elizan,
lengo taberna iturriyan,
gauza berririk gabetanikan
famili maitagarriyan.

Pablo Yantzi zena

PABLO Yantzi zena (g. b.) Mitxelenak asko maite zuen aiton bat zen, eta nik neronek ere bai. Ainbeste bixita egiten genizkion, eta antzeman nion maitatzeko gizona zela.

Lesakan bere tabernarekin lan egiten zuen. Guk Napar aldera bertsoara jon-etorri asko egiten genituen garai artan, eta bueltakoan Pablo ikusi gabe, denborarik izan ezkeru beintzat, ez giñan bein ere itxeratzen.

Gogoratzen naz Pablo noiz izagutu nuen. Batean, Sunbillara bertsoara Mitxelena ta biok jon giñan; eta, ango egitekoak bukatu genituenean, onelaxe esan zidan:

– Gaur garaiz xamar jon bear diagu. Lesakan badit nik aiton bat asko maite dutena, eta uraxe bixitatu bear diagu itxerakoan.

Gañera esan zidan:

– Ba al dakik zein den aiton ori?

Nik esan nion:

– Zein da, bada?

Eta berak:

– Pepito Yantzi soñu-jotzallearen aita duk.

Pepito zena ordurako fama aundia bereganatua zen. Musiko ona izagutzen zen errialde denetan, eta nik ez dakit itzik ari buruz idazteko, nik baño obekiago izagutu zutenak idatziko zuten ta.

Nik jarri nezakena da nola izaten giñan Pabloren tabernan. Arek, gure Joxe Joakin ikusi orduko, parre-murritza berekin zuen. Nik, aurreneko jon giñanean, ala ikusi nuen; eta, andik aurrera, joten giñan guztietan ere, berdin. Euntalako ongi-etorria egiten zion Mitxelenari, eta azken aldera biai egiten zigun.

Nik, egia esan, ez nuen Pablarekin urte askoan tratatzeko suerterik izan. Edadean ere aurrera jona zagoen, nik izagutu nueneko. Iurrogei ta amaseiren bat urte izango zituen, oso oker ez banago. Andik iru bat urtera il zen. Biño buru argiko eta borondate aundiko gizona zen.

Tabernan zaukan ardo onexkoena artu ta aguro eskeñiko zigun:

– Au ardo ona duk, Mitxelena.

Ni, berriz, ez niñun izagutzen lenbizi berrian, eta esaten zidan:

– Zu, gazte: edan zuk ere pixka bat.

Ez genuen esan bearrik izaten nun izan giñan. Berak jakiten zuen zein erritan ziran pestak. Urte batean, akordatzen naz, San Pedro tan Labaingo pestak eta an izanduak giñan. Eta nola etzuen, ba, buru argia izango? Tabernan sartu giñan ordurako, galdetu zion Mitxelenari:

– Zer moduz ibili zerate Labainan? Zuek gaur an izango ziñazten?

– Bai. An giñan –esan zion Mitxelenak.

Ni, berriz, arrituta gelditu nintzan.

– Au duk aiton sorgiña! –esaten nion nere buruari.

Eta arek segi izketan:

– Zer ziok Aureliok?

Aurelio Bertiz alkate zagoen orduan.

– Ura gizon jatorra duk. Ongi da? Aspaldian ez dit ikusi.

– Bai, bai. Ongi da, eta gurekin ongi portatu da. Badakizu soñu jotzen zein zen?

– Zein?

– Ebaixto.

Ebaixto ori Arantzan alkate zagoen garai artan, eta Pablok:

– Ori zerria! Uzten ditik arek lanak, berak nai duenean.

Ala, izketan kontu geiago ere esan zituzten, biño ez dauzkat gogoan. Ni beste izagun batekin asi nintzan, eta galdu nuen aria.

Bazirudien Mitxelena noiz ara agertuko zai egoten zela Pablo. Gustora aritzen zen arekin izketan. Ala, ordubetekoren bat pasa ta itxerako bidea artu genuen berriz ere.

Beste egun batean, Etxalarren izan ta bueltakoan sartu giñan. Ama Birjin Agoztuko eguna zen, oso oker ez banago. Urrengo eguna igandea zen, eta gu ere lasai xamar nonbait.

Aitonak antzeman zigun ta asi arazi gaitu bertsotan. Jendea ere bazabilen eta -nola ez Lesakan?- tabernan sartzen ziranak bertan gelditzen ziran. Jarri zen giro bat bertsotan gustora ari zitekena, eta alaxe aritu giñan.

Ekarri zizkigun Adan baño zarragoko gazta, txorixo eta ardoa. Ez giñan otzak etorriak, biño aurrera ere berotu arazi zizkigun barrenak.

Azkeneko, bera ere asi zen esanez bazi-tuela gazte-denboran jarritako bertso batzuk, eta kantatu bear zituela.

Gu ere ordurako antzemanta geunden, saio ona izan bazen, naikoa eginta geundela; eta, txarra izan bazen, berriz, geiegi; eta berari to-
kia utzi genion.

Beste euskaldun asko bezela, Ameriketan ibilia zen gazte-denboran, eta ango bere gerta-kizunei buruz jarritako bertso batzuk zituen. Kantatu zizkigun zortziren bat bertso, eta esan genion:

- Pablo, kantatuko al dituzu berriz?

Kantatu zituen eta nik lenbiziko iruak alde-alde artu nizkion, eta ara emen.


Ni geiena arritu niñuna itz bat izan zen: guk *milla bederatzireun* esaten dugun bezela, arek *emeretzireun* kontatuz asten duela bertsoa:

Emeretzireun eta gañera
zazpigarrengo urtia,
buruillako illan pentsatu nuen
Kalifornira juatia.

Ogei eta lau urte neuzkan da
oraindik gazte fuertia,
Estoktoneko erri ortan zan
neretzako suertia.

Joan orduko artu ninduen
neskatxa batek besotik,
teatro edo zine batera
biek jon giñan gogotik.
Inbirioso batzuak ere
baziran gure ondotik,
lenago bero ez bazan ere
etzuen eraman otzik.

Estoktoneko erri ortan zen
nere suerte guziya,
alletu orduko neskaxa batek
eman ziran ur-ontziya.
Bañan ori zan lenagotikan
biatza asko bustiya,
nik e naikua egin ta onduan
badut sobrante utziya.



Ezkerritik: Azpillaga, Kosme Lizaso, Lopategi, Jose Lizaso, Uztapide, Lasarte, Mitxelena, Mattin eta Xalbador.

Zutola eta Bioteği ixiruteğiak

URDABURU mendian, Arano aldeko egian dagoen sakondegi bat da Zutola. Erren-teriko lurretan juxtu-juxtu. Oiartzunek, izan ere, bere mugak arañoxe luzatzen ditu, esate baterako. Pikorrene baserria Zutolako azpiko aldean bertan dago, biño Oiartzungo partean.

Diodan Pikorrene ori etzen baserria bakarra, naiz ta lau-bost bat bei eta beste irureun bat ardi iduki. Taberna eta ostatico ere bazen.

Gaur egun ain modan dagoen *agroturismo* deitzen diogun orren aiton bat bezela iruditzen zait garai artako Pikorrene.

Mendia gustatzen zitzaion jendea orduan ere kalean izaten zen; eta, beren buruak libre ikusi orduko, mendira jotzen zuten. Goizean irixten baziran Pikorrenera, bertan bazkaldu, inguruetan ibillaldi batzuk egin eta al zutenak bertan gelditu gauerako. Urrengo egunean beste ainbeste egin eta orduan itxera.

Eiztariak ere baziran, Pikorrene inguruan eizean Urriko ille osoa pasatzen zutenak. Pikorrenen jan da lo egin eta Zutolan eizean. Nik dakizkitenak, beintzat, Erren-teriko Goiko-kaleko Mendiburutar bi anaiak.

Nik Pikorrenen izagutu nituen Alejandro eta Mari Krutz. Seme bat zuten, Inazio, eta bi alaba ere bai. Biño auen izenak ez dakizkit. Alejandro il zen (g. b.). Mari Krutz eta seme-alabak, Pikorrene utzi ta bera etorriak dira. Gaur oraindik zutik dago Pikorrene.

Inguru artan beste bi baserri ere baziran: Añarbe eta Petrine. Aiek biak urtegiak irentsi zituen.

Iru baserri oiek Zutolan bizibide pixka bat izaten zuten, batez ere udara eta udazkenean. Perratxiku leku ikusgarria omen zen.

Udazkenean, berriz, ezkurra lurra estaltzeko zorian. Zerri ta ardi denentzako lain izaten omen zen.

Eta ori biño ohea, gaztaña. Gaztaña ez da lur-estalian izaten, meaulian baizik.

Meauli itz au lengo zarrak, artaldea lurrera eroritako gaztaña jaten ari zela, onela esaten zuten:

– Ardiak meaulian ari dira.

Bereñotzko garai bateko nere amonaren izebak onela esaten omen zuen:

– Gure ardi mutur-luzeak meaulian ari dira *murra-murra*.

Gure izeba zar ori bertsozariatik ere bere airea zaukana omen zen. Ondoezaldi batean bere buruari bertso au jarri omen zion beintzat:

Joxepa Iñaxi izena,
nonbria Albiztur,

enfermedade txarra
zerekin daukazu.
Askok errejistratu,
txit gutxik agindu,
aitzurak eta palak
sendatuko zaitu.

Biño berriro ere segi dezadan Zutolako emaitzekin. Eiz-kontuan ere oso toki aberatsa zen. Basurdeak joera aundia izaten omen zuten arako.

Usoak ere, euntalako pillak sartzen omen ziran pasako denboran, eguraldiak aldakuntza pixka bat izan ezkeru beintzat.

Eiz-kontu au neri Errenteriko eiztari zar batek esan zidan. Pokopandegi baserriko semea zen, biño kalean bizitzen zen Joxe Leon Agirreurretak. Bera eta Mendiburutar bi anaiak uso asko iltzen zutela, len esan dugun bezela Pikorrenen jan ta lo illabete osoa pasatzen zutenean.

Ixiruetako aritz bat *Alkatea* izenez izagutzen omen zen. Denak zein biño zein izan bear zuten. Biño uraxe aparta.

Zutola botzera zijoaztela-ta zuzmurra atera zenean, 1960-ko inguruan, jende askok bere naigabea agertu zuen. Nerone ongi goatzen naz. Errepin aundia izan zen.

Nik Zutola ez nuen izagutu, biño Joxe Joakin Mitxelenak bai; eta baita bertso batzuk jarri ere, 1960-an, bota bear zutela zabaldu zenean:

Zugana nator, mendi alaia,
agur on bat egitea,
nola baitzeran atsegintsua
ta dana arbolez betea.
Iturri gañin zaude, Zutola,
eta zugaizti maitea.
Denbora labur etorko dira
zu emendik eramatea,
bertsotan ezin jarri liteke
izan bear dan kaltea.

Eun urtean txutik egonda
erori bear lurrera,
negar-malkoak etortzen zaizkit
joatean zure urrera,
aintxen ederki nola baidagon
itzalpe onen sarrera.
Zer utsartea geldi bear dun
emen onetaz aurrera
senti duana, azaldu bedi
azken agurra egitera.

Zugaizti eder liraña zera,
sendo ta lodi gerriya,
eun bat urte zauden lekuan
txiki-txikitik jarriya.
Zenbat basurde, kontrabandista
pasatutzen dan tokiya,
danarentzako lekua dezu,
ain zerade egokiya,
Errenteriyak noiz izango du
berriz olako mendiya?

Zutolaz ari nazen ontan, beste ixirutegi bat aipatu gabe ezin utzi. Ura, bai, izagutu nuen: Biotegi.

Ura Oiartzunena zen. Zagiya baserria zenaren ondotik asten zen, eta goiko Aritz-luxieta baserriaren ondoraño igo. Zerbaitengatik Aritz-luxieta deitzen zioten baserri areri. Orduan Biotegin zauden aritz aiek, beintzat, luze askoak ziran, eta zuzenak.

Ni an pasa nintzanean, igande-illunabar bat zen. Osaba eta izebarekin nintzan. Nik amalau bat urte izango nituen, eta oraindik begien bistan dauzkat an ikusi nituen aritzak.

Denak ez nituen ikusi, oso arizti aundia zen ta.

Kilometro bat inguru luzean bearbada izango zen Biotegi ori, eta eunka ondoak izango ziran arizti artan.

Bein batez, mendietan lan asko egindako gizon batekin izketan ari nintzan: Oiartzungo Aranguren baserriko Juan Mari Berrondorekin.

Mendi-kontuan ari giñan; eta nik, gogoratu nintzan batean, esan nion:

– Zu, Juan Mari: nik izagutu nuen, ba, arizti bikaña, Zagiya eta Aritz-luxietako inguru artan.

– Bai, motel! Biotegi!

Nik izena aztuta neukan, ta orrek gogoratu zidan. Alako izketa patxaratsu atsegin batean esan zidan:

– Bota ziten! Lastima izandu yun ura botzea. Oraindik urte askotako ariztia zioken ura!

Alako beste bat ikusteko Oiartzunen, urte-pilla ederra pasako duk!

Nunbait ere garai artan alamoduzko eziketa egongo zen Diputazio eta Udaletxeetan. Ori bat; eta beste arazo bat ere bazan: gaur egunean daukaten diru-sarrerarik etzutela. Orain, urak dirala, irigintza dala, zergak berdin; automobillak dabilzalako, *viñeta* deitzen diogun ori; geldirik daudelako, *Ota*; eta irugarrena, az-tuzkoan edo presaka xamar zabiltzala eta multa bereala.

Gaur Udaletxeak eta Diputazioak ez daukate mendietako diruaren bearrik. Ori bai: gaur egun mendietan diru puxka bat gastatzen da, biño ez det uste garai bateko Zutola eta Biotegi berriz izagutuko diranik.

Gaur egun ain modan dauzkagun *ekolojistak* edo begiraleak berandu xamar jaioko izango ditugu.

Ixirutegia esanda irakurle askok ez balu ulertuko, arizti berezi bat dela jakin dezala. Eta, naiz ta bakar-bakarrik egon, aritz-arbol berezi eta bikain bat baldin bada, uraxe da ixirua.

Biotei mendi maitagarriak
lengoko antza gutxi du,
orain berrogei urte bazeuzkan
laureunen bat ixiru.
Kendu zizkaten, gaur piñu beltzak
eta otiak itxi du,
orduan oso aberats ziñan
eta orain berriz txiru.

Zotal fiñ-fiña, onto ta ezkur,
gaur piñu beltz eta otei,
lengo mendia zeranik ere
ez dirudizu, Biotei.
Len ikusi ta gaur ikusteak
min ematen dio batei,
zure aberastasun ederrak
on egin zion norbaitei.

Ez dakit zerez sortua edo
bestek jarria antziñan,
nik izagutu zindudanean
baso ederra an ziñan.
Soñu aundirik etzenduen jo
tanborrian da dultziñan,
ixil-ixilik egonagatik
ikasi zuten nun ziñan.



*Lazkao-Txiki eta Mitxelena, Oiartzungo San Itebanetan,
1984 urtean.*

Lesakako Antonio pelotaria

LESAKAKO Antonio pelotaria Mitxelenak lagun aundia zuen, berak Mitxelena bezelaxe. Nik oien kontuak ikasi nituen, Lesakako perietan bertsozara Mitxelena eta biak jonta.

Lesakako periak azaroaren azken aurreko ostiralean izaten ziran urte geienetan; eta, dagigun bezela, orduan egunik motzenetan izaten gera.

Arratsaldeko plazako saioa illundu aurretik izaten genuen, eta garaiz libre. Perira etortzen zen jendea baserritarra izaten zen, eta bako txak bere bidea artzen zuen, geienak beintzat; eta gu, Antoniok taberna zaukan eta ara jotzen giñan.

Aurrez onela esan zidan Mitxelenak:

– Nik badit oso bertsozalea den lagun bat, Antonio, eta ara jon bear diagu. Ni amakin bat uso ta erbi, ta baita basurdea ere jana nak, Antonio orrek botata.

Sartu giñan, ba, taberna ortan, ta laister antz eman nion Antonio zein zen. Mitxelena ikusi zuenarekin batera, nonbait ere preparatua zaukan puntua eta onela kantatu zion:

– Aspaldian jan al duk
erbi gisatua?

Baita Mitxelenak azkar erantzun ere:

– Orain ere urdalla
zaukat aizatua.
Ekartzen baldin baduk
ondo gozatua,
bertsotan famatuko dit
ire ostatua.

Eta nik beste au kantatu nioten:

Emengo eiza-janak
ez ditu antziko,
gogoan dauka bere
denbora guziko.
Gañera etzituan
nolanai bustiko,
gaur ere zakurrantzat
ez ditu utziko.

Berez eiztari amurratua izanta, bere sasoia
zuen denborako kontuekin asi zen, bere lesa-
kar izkera egiñez:

– Gogoratzen al az, Mitxelena, zer basurde
jatea egin genuen San Anton egun batez Iru-
nen?

Orduan Mitxelenak neri esan zidan:

– Basurde ura etzin onek arrapatu. Onen
zerriak arrapatu yun ura.

Eta nik, Antonioren tranpa burutik pasa ere gabe, esan nion:

– Zerriak arrapatu al zizun basurdea?

– Bai; eta aixa gañera –erantzun Antoniok.

Bazirudien momentu artan eizean zabilhela. Ordurako edadez osatuta zagoen, biño intenziua agertu zuen.

– Burnaiztako txabola ba al dakik non den?

– Bai –esan nion–. Lesakako eta Artikutzko mugan.

– Antxe batzen genitin basurdeak. Zerri iñausa barrenan lotuta jarri eta ara etortzen itun. Orduan Artikutzan basurde aunitz izaten yun, eta aleak botzen genizkien.

Jartzen da Mitxelena ta:

– Ok, zakurra jarri bearrean, basurdea jartzen ziten arrastuan.

– Zakurrak bagenitin, biño erbitarako. Ni Igantzi eta Arantzatik erbi aunitz ekarria nak. Baita usoa ere. Ni egun batez berrogei ta zazpi uso botea nak Almendruitzen.

Eta etzuen gezurra esan. Ni nerone egondu izan nintzan puestu artan, eta lesakar batek esan zidan:

– Puestu au Antonio pelotariaren puestua izandua duk. Emen berrogei ta zazpi uso bota izandu zitin arek egun batez.

Eiztaria zen, biño gezurtia ez.

Neri Mitxelenak esan zidan:

– Au eiza asko botea duk.

Eiz-kontuan, batek esandakoarekin duda egiten baldin baduzu ere, bigarren batek beste aldetik gauza berdiña esatean, pentsatzen duzu: "Ura egia yun".

Eta nik orregatik jartzen dut emen Antonio eiztari oso-osoa izango zela, naiz ta gezurrik esan ez, eiz-kontuan beintzat.

Mitxelenak, beste toki askotan bezela, Lesakan lagun asko zituen, eta aietako bat Antonio pelotaria izana. Goian bego.

Mitxelena eta Lexoti

GARAI artan, Ugaldetxo barrioan, bi taberna ziran: bat goiko taberna eta bestea *Matteone*, beko taberna, gaur egun jatetxe ospetsu bat biurtu dena.

Bi taberna aietan bertso asko kantatu izan zituzten Mitxelenak eta Lexotik.


Aste-egunetan, Mitxelena, lanetik itxerakoan, Ugaldetxon gelditzen zen, beste langille jende asko bezela.

Orduan larunbata ere toki denetan lana egiten zena izaten zen, eta orduan eta jende geiago Ugaldetxon.

Lexoti, berriz, baserri aldetik ibiltzen zen, eta lanak aixxa samar eginta, edo geienean libre beintzat; eta jakin Mitxelena non topatuko zuen, eta Ugaldetxora.

Bertsotan asi eta bi orduko saioa egin arte igoal. Entzule-faltarik etzuten izaten, nerone ere tartean nintzalarik.

Biño bat bazuten berezia borondatez eta moduz: Joxe Rekalde zena, perratzallea (g. b.). Bertsozalea zen erabat. Uraxe gustora egoten



Jose Luis Lekuona, Lexoti.

zen. Bertsoak entzun eta bear zen ardoa berak atera araziko zuen, eta ordaindu ere bai.

Joxe Garro izenez izagutzen genuen Oiarzunen, Garro baserriko semea baitzen. Ugalde txoko barrioan barren-barrenean dagoen baserri bat da Garro. Gaur egun, beste toki askotan bezela, itxe-multso aundiak eginta daude Garroren terrenoetan, eta ganadu-kontua utzita an ere.

Biño bertako semea den Joxe Antonio an bizi da. Beste zazpi alaba ere bazituzten Joxe eta Anttonik.

Lexotik ondotxo zakien ori, eta ondoan zaukanen bateri erasotzeko prest izaten zen beti. Gezurrik aldrebesena bazen ere, egirik aundiena izanta bezelaxe kantatuko zuen, eta egun artan Joxe Garro ondoan tokatu, beste askotan bezela.

Neri Lexotik berak esan zidan Mitxelenak eta berak egun batean bi bertso aukeratu zitkatela.

Lexotik:

Joxe, nik ez det izaten beti
tamañ onetako gaita,
danok dakigu zu nola zeran
zazpi alabaren aita.
Gorputzez ere ederra eta
arpegiz polita baita,
neretzat jaso bear didazu
maite dedan Manolita.

Eta Mitxelenak erantzun:

Neri biotzak agindutzen dit
arrazoi au emateko:
Lexoti onen bokaziyua
Garro aldera joteko.
Ustez mesedetako artuta
izango dezu kalteko,
txerri bearrik ez dezu, Joxe,
urteko artoak jateko.

Mitxelena eta Lexoti urte askoan eta erri askotan alkarrekin bertsotan ibili izanduak ziran, eta konfiantza aundia zutenak bata bestearekin.

Nola etzuten, ba, konfiantza izango, apusturako idia ere sozio iduki izandu zuten ta? Idia Lexotirena, *Mutxatxo* ixenekoa, eta Mitxelenak jokurako dirua jarri.

Baita apustua jokatzeko kontrarioak azaldu ere: Luis Larraza, *Potito*, eta Felix *Maimotx*. Alde artan ere gauza berdiña: Larrazarena idia eta Felixena dirua.

Jokua egin dute Oiartzunen jokatzeko. Eguna eta ordua jarri dituzte, eta siñaleak bota ere bai, millana duro. Neri Lexotik ala esan zidan beintzat.

Asi da Lexoti idi ori preparatzen, eta baita preparatu ere. Prueba bat edo beste egin ditu arriarekin, ta oso marka onak, eta Lexoti kontentu.

Biño, batzuek esanta edo Lexotik itzeginta edo abar, or jakin dute beste aiekakoak oso idi

ona zaukala Lexotik, eta beste aldekoak siñaleak galdu.

Beste egun batez, San Martzialetan Irunen izandu omen ziran Uztapide, Mitxelena, Lexoti eta Ernaniko Patrizio. Zinkoene tabernako semea omen zen au. Nik, Lexotik esan zidan arte, ez nuen aren izenik aditu izandu. Bertsolari ona zala esan zidan Lexotik.

Ala, eguna pasa zutenean, illunabarrean izketaldiren bat egin dute neska batzuekin, eta Lexoti baita aiekin jon ere. Bateri lagundu omen zion; eta, bueltan etorri zen arte, Mitxelena zai, eguna pasa eta aspertu samartua. Bere lagun Joxe Mari Pedriola, *Kanitxipi* zena (g. b.), eta aren kotxean sartuta lo pixkaren bat egiña izan bear zuen.

Ala, andik denbora puska batera, non etzidan esan; biño, asi ziranean, Irungo pasadizoaz bertsotan ekin zioten.

Lexoti nonbait ere bakan samar ibiltzen zena; eta, orduan birekin ibili zelako-edo, oso go-goan gelditu, eta onako bertso au kantatu omen zion Mitxelenari:

Lesaka aldeko bi neska gazte
gugana inguratu zian,
Lexotirekin pasiatzeko
zauden pozaren pozian.
Gero itxera lagundutzeko
bitan batek esan zian,
nik buelta eiñ arte ik lo egin yun
Kanitxipiren kotxian.

Eta Mitxelenak erantzun:

Ik diokenez nik lo egin nin
Kanitxipiren autuan,
bide onean ez nabillela
erori niñun kontuan.
Komentzia nik ere banin
nai baldin banuan juan,
pekaturikan ez nin egin nai
seigarren mandamentuan.

Lexotik, berrogei ta amar urte zauzkan inguru artan, gaxoaldi luze samarra pasa zuen. Seguru esateko zenbat denbora ez dakit, biño luzea izandu zuela bai; eta Mitxelena asko arduratu zen.

Ongi ezik asi zenean, nonbait ere ez uste gaitzak aurrera egin bear zuenik. Arria biño gogorragoa izan Lexoti. Biño gaitza aurrera.

Garai artan Udaletxeko lanetan aritzen zen, eta bakarrik bizi zen. Medikuagana joteko ere gogorik ez batere, eta berandu samar jon. Gero, Donosti aldean ere, egonalditxo bat egin bear izandu zuen ospitalean.

Ni bein izan nintzan nere osaba batekin. Arek ere jon bear zuela Lexoti bixitatzera. Zer moduz zagoen galdatu genionean, onela erantzun zigun:

– Oso ongi niak. Mitxelena maiz etortzen zaidak. Lengo astean emen nin. Biño berealaxe alde giteko moduan niok emendik.

Alaxe izan zen. Bere arreba Pepita ere an zen, eta guk eraman genuen beraren itxera,

Ernanira; eta oso pozik zagoela esan zigun. Aurrerapen onak bazaudela, eta aguro jarri zutela gañera, naiz ta bere buruari erreparo pixka bat aurrerantzean eduki bearko zion.

Ala, txarraldi ura pasata, Oiartzuna lagun zarrak ikustera etorri zen batean, aurrena Mitxelena arrapatu omen zuen. Biak sartu kotxean eta igo dira errira. An ere beste lagun batzuekin topo, eta ongi etorri ona egin omen zioten.

Batek:

– Zer moduz, Lexoti?

Besteak, berriz:

– Berri-berria ematen duk. Zer esan ditek medikuak?

Asi omen zitzaizkan galdezka, eta Lexotiren erantzuna:

– Luzaro samarreko gaitza omen zaukat, eta lanik ez egiteko esan zidatek. Biño ongi niok.

Bixitaz jon giñanean guri esan zigun bezelaxe, aieri ere erantzun berdiña. Bere betiko umorea agertuz, esan omen zuen:

– Orain lan bat bakarra zaukat: Mitxelena au autsi bear dit bertsoan, len egiten nuen bezela.

Asi omen ziran, eta neri Lexotik berak esan zidan bi bertso auek nola kantatu zituzten, beste askoren artean.

Mitxelenak:

Lexoti onek pasa omen du
oso min-klase luzia,

eoteko martxaz apenas dagon
oraindik ere asia.
Gandul guzien txapeldun dago,
alper ta erdi pasia,
eta sendatzen ez da erreza
onek daukan min-klasia.

Eta Lexotik erantzun:

Lexotikuai alperra esanta
ustez egin du graziya,
bera're ofizial ona ez dala
danok degu ikusiya.
Alperrak miña berekin dula
ago kontatzen asiya,
orduan miñez pasa bearko duk
ire denbora guziya.

Mitxelena eta ni

Ni, Mitxelena izan zelako, erri asko izagutua naz, eta gaur ditudan lagun asko ere bai.

Baztango erririk geienak, denak ez badira ere, pasa izandu genituen guk. Joten giñan tokira joten giñala, arrera ona egiten zioten Mitxelenari, batean bezin bestean.

Biño Baztan aldean bakarrik ez. Baita Lekunberri eta inguruko errietan ere.

Naparroan toki askotara eramaten niñun. Ura izan ez bazen, gaur izagutzen dudan erdia ere ez nuen izagutuko.

Eta Gipuzkoan berdin. Oso gustora ibiltzen nintzan arekin, batik-bat Napar aldean.

Urte batean, gogoratzen naz, Sunbillan iru eta Donamarian bi, bost egun segidan pasata nola etorri giñan. Eta, bertsoan ola dabillenean, irabazia ere izan egiten da, eta nik asko estimatzen nuen.

Irabazirik etzen tokira ere batzuetan jotzen giñan. Sekulan etzuen ezetzik esango.

Aldi bat izan genuen Lezo eta Irundik urte-

an lau-bost bat enkargu izaten genituenak. Bein ala esan zidan Irundik itxerakoan:

- Emendik aurrera olako dozen erdi bat erri naikoak genitikek bertsoan ibiltzeko. Au laugarren biajea badiagu Iruna.

Biño aurrera ere beti bezela segi izandu zuen. Bertsoan ibiltzeko zaletasun aundia zaukan. Azken aldera ere neri esan izandu zidan:

- Oraintxe restaurantea utzi ta libre niok; eta bertsoarako enkargorik baldin bada, gus-tora jongo nak.

Biño gizarajoak bere asmoa luzaroan betetzeko suerterik etzuen izandu. Neri ura esan ta andik urte pare batera il zen.

Azkeneko plazako bertso-saioa biak egin genuen beintzat. Ernialden izan zen, 1988-ko agoztuaren 15-ean, Ama Birjiñetako pestetan.

Andik iru illabete eta erdira il zen Joxe Joakin Mitxelena. Goian bego!

Kastillan eper eizean

1 965-garren urtean izandu giñan lau lagun, Mitxelena eta bere lengusu bat eta gu bi anai, Palentziko Villada de Campos errian.

Ara joteko ondoena preparatua Mitxelena zagoen. *Gordini* markako kotxe berri-berria zaukan. Eskopeta, berriz, bezperan eresia.

Gu, berriz, al genuen moduan, geron esko-peta zaarrekin. Biño iruak gazteak, bear aña sasoia gurekin genuen.

Ordurako eizean dexente ikasita geunden denok ere. Goizean garaiz ateratzen giñan, bear genituen jatekoak artu eta illunabarra arte.

An bertako bi lagun eramaten genituen gurekin. Orain ez naz seguru akordatzen zenbat, biño zerbait ere jornal-kontu arin bat ematen genioten; eta, egia esan bear badut, izaten genuen aien bearra, eiza egingo bazen.

Aiek bazekiten eperrak eta erbiak non zabiltzan. Aiek agintzen ziguten non jarri eta nola. Berak bueltan jon ta sail aundi bat artzen zuten, eta gu geunden aldera etortzen ziran; eta, eperrik baldin bazen, zuzen bialtzen zituzten.



Kosme Lizaso bertsolaria eta liburu onen egilea.

Gizarajo aiek konfiantza ere bazuten gurekin, eiza ikusi ta beren aldera tirako genuen ere jakin ez ta ala ibiltzeko gurekin.

Mitxelenari esaten zioten:

– *Tú, gordo, escóndete bien, ¿eh?*

Eizeko atarramentu oneri ojeo deitzen zioten.

Erbitan, berriz, bestela ibiltzen giñan, eta asko ibili ere. Sei lagunak jarri alkarren parean, ezker-eskubi ogei bat metroren tartearekin, eta aurrera, eta ala altxatzen genituen.

Eguraldi beroak egiten zituen, biño ala ere gu añean ibiltzen zen Mitxelena, eta nola jantzia! Bazuen txaketa lodi bat, eta bere ura soñean.

Nik esan nion:

– Joakin, bero onekin ba yabil, ba, txaketa jantziarekin!

– Ixilik egon adi, motell –erantzun zidan–. Neri au komeni zaidak kilo batzuk galtzeko.

Astebete pasa genuen, eta eiza ona eginta etorri giñan. Garai artan etzeuden gaur dau-den lege estuak, eta eiza ere geiago.

Jendea oso ona. Berak esaten ziguten:

– Zoazte alako tokitara. An egingo duzute eiza.

Eta egia esaten ziguten.

Guk apaldu eta lo eta gosari txikia *fonda* batean genuen, eta bertako nagusiarekin Mitxelenak bigarren egunerako konfiantza egin zuen an ere.

Ni ez nintzan batere arritu, ordurako izagutzen bainuen Mitxelena nolakoa zen. Arek bai-baizuen, zabillen lekuan, lagunak egiteko berezko grazi bat. Bestela etzabillen gustora. Eta an ere ori egin zuen: lagunak egin eta gustora ibili.

Astearen erdi aldean zen. Fondako nausia eta biak Palentzia kapitalera jon ziran.

Pena dut: gizon aren izenaz ez naz akordatzten. Ez da aren kulpa, nerea baizik. Biño ola bearko du.

Aste osoa pasa genuen: larunbatarekin jon eta larunbatarekin etorri. Seguru esateko ez naz akordatzen zenbat eper eta erbi ekarri genituen. Biño eiza ona egin genduela bai, akordatzen naz.

Itxerakoan oso umore onean etorri giñan, bertsoak kantatuaz, berriak eta zaarrak ere bai.

Eta Mitxelenari adituta, zortzi bertso auek ikasi nituen. Oso zaarrak omen dira. Neska-mutillen arteko gertakizun bat da, berak argi asko diotenez:

Kantatutzera nua
zelebrekeriyak,
ez dira onak baña
bai parragarriyak,
berri-berriyak,
neskatxa gazte batek
beretzat jarriyak.

Ogei eta bat urte
daukat edadia,
amar urtez serbitzen
nagon mirabilia,
doakabia,
gazte umea eta
jaberik gabia.

Orain agertzen dira
nunaitik jabiak,
katu zarraren gisa
aragi-zaliak,
arrantzaliak,
neskatx inozentien
engañatzaliak.

Galai bat etorri zait
larri eta estu,
oiaren bazterrian
egiteko leku,
xirri eta musu,
traje baten neurria
bear zidala artu.

Onian ezin eta
gero gogorrian,
neurtu bear nindula
luze-laburrian,
oiaren aurrian;
oriñalaz jo nuen
kopet-ezurrian.

Urrilkaldu nintzan da
egin nion kura,
etxian zan botika
gatza eta ura;
Joxe Bentura,
ez geiago etorri
nere konbentura.

Eta orain Joxe Benturak eskerrak emanaz
erantzuten dio:

Egin badizut ere
xirri edo mirri,
nere kopet-ezurak
pagatu du ongi;
Joxepanttoni,
artzekuak artuta
etxera nua ni.

Eta neskatxak onela erantzuten dio:

Adi zazu, galaia,
bigarren aldiyan
ez etorri nigana
gabaren erdiyan,
enbusteriyan;
ez da konfesiyaorik
nere parrokiyan.

Ona emen bertso auen doña:





ze - le - bre - ke - ri - yak,



kan - ta - tu - tze - ra nu - a



ze - le - bre - ke - ri - yak,



ez di - ra o - nak ba - ña



bai pa - rra - ga - rri - yak,



be - rri be - rri - yak,



nes - ka - txa gaz - te ba - tek



be - re-tzat ja-rri - yak. ez _yak.

Ondarrabiko lagunak

JOXE Joakin Mitxelenak Ondarrabian lagun asko eta onak bazituen,

Bar Ignacio-ko nausia, lagun aundienetako bat. Inazio zuen izena. Aranokoa zen. Bertsozale porrokatua. Arek Mitxelena zenbat maite zuen zalla da esaten; biño asko maite zuela badakit.

Mostradorean lanean ari baldin bazen, bi eskuak mantalean legortu, mantala kenduko zuen eta maira. Zer nai genuen, ura ekarri arteko onik etzuen izaten.

Aranoko San Rokeko otorduak eta bertsoak, asiko zen kontu zarrak esaten; eta ni, berriez, gustora egoten nintzan aditzen, ain zen iztun egokia eta.

Baita asko itzegiten zuten jatetxe-kontuan ere. Mitxelena garai artan zabillen jatetxea erakitzeke asmotan. Gogoan daukat nola esaten zion:

– Lenbailen ereki zak, nik izagutu duten garairik onena orain duk eta.

Asko animatzen zuen, eta andik denbora gutxira Atano amargarrena eta biak *Atamitx* jatetxea ereki zuten.

Ondarrabian Mitxelena asko maite zuten. Lagun geiago ere bazituen: Nikolas Loidi, Juan Kerejeta, Joanito Etxaniz, Joxe Elgeta, Bautista *Itxaropena*, Emilio Uriarte, Fernando Artola *Bordari*...

Emen agertzen ez diranen batzuk ere bada-
kit izango zituela, eta barkatuko al naute, Mi-
txelenak barkatzen etzakien lagunik etzuen
izaten ta.

1960 urtetik 1970 urterako denboran ikusi
nuen au dena, garai artan ni nerone Ondarra-
bian itxegintzan aritzen bainintzan, eta asko-
tan neri esaten zidaten esateko Mitxelenari
alako egunetan aparia zaukatela eta biak etor-
tzeko.

Urtean bi edo iru aldiz elkarrenganatzen gi-
ñan, eta gogoan daukat nolako arrera egiten
zioten.

Geienetan *Itxaropena* tabernan biltzen gi-
ñan. Bertako nausia zen Bautistak jartzen
zuen legatz ederrik. Gero, apal ondoren, asten
zen pesta.

Nikolas Loidi asten zen aurrena sua pizten,
eta ez genion entzungor egiten.

Gu ere asten giñan, ordurako giro onean ja-
rriak izaten baigiñan, eta bagenakigun aieri
kantatzea oso atsegiña zela.

Entzuten alaxe jartzen baitziran, bakoxta
bere aldetik.

Iñor konturatzerako, orduak pasa eta
itxeratzen giñan.

Biño beti beste bat egin bear zela itzeginta,
eta alaxe izan giñan urte batzuetan.

Nik bizi nazeño aztuko ez dituten Joxe Joa-
kin Mitxelena zenaren eta nere Ondarrabiko
lagunak, gaur egun zoritxarrez geienak illak di-
ra. Goian bitez!

Arantzazu

ARANTZAZUN izan gabeko euskaldun fededun gutxi izango da, eta batez ere Gipuzkoan bizi geranak. Nik gure erritarrak nola josten diran badakit batibat, eta gu ez gera beste errietatik ezberdiñak, eta Arantzazura gu bezelaxe jongo dirala derizkiot.

Ni Arantzazun lenengo izan nintzanean, ogei bat urte izango nituen. Bertsotara eramanez niñuten. *Donostiko Gaztedi* izeneko elkarte bat zela uste dut.

Arantzazun meza entzun eta gero Urbira igo giñan. Bazkaria an genuen eta baziran beste bi edo iru talde ere, beren bertsolariekin jon ziranak, eta ez dakit nondik jonak eta zein ziran.

Dakitena da ixilka egin zen billera bat zela. Nik egun artan ezagutu nituen Goiburu eta Lazkao-Txiki. Baita lenbiziko bertso-saioa egin ere aiekin. Iruak kantatu genuen bazkalondonan. Errenteriko Zamarbide ere an agertu zen gure artean.

Ixilkako izen au jarri dut, garai artan euskal ekintza ttikiena egingo bazen ere, gobernadorearen baimena bear izaten zelako, eta batez

ere bertsolariak tarteko izaten baldin bagiñan, Oso kate motzean iduki baigiñuzten 1960-ko inguru artan. Nik esan gabe ere, orren berri ongi dakien asko dago gaur egun oraindik.

Geroztik baditut bixita lasaiagoak egiñak Arantzazura eta Urbira, eta nere moduan beste lagun geiagok ere bai. Esate baterako, Mitxelena zena, Patxi Arizmendi, Xalbador Etxarte eta abar beren andreekin. Urtero eta gustora asko gañera.

Arantzazun bada praile bat, Nikolas Segurola, bertsolari tartean bere bizi osoa pasako lukena. Gaur egun Arantzazuko artaldearen arduraduna da. Ez da mezakoa, biño bai artzai ona. Ardiari zenbat eman eta zenbat kendu ongi dakiena. Ez ori bakarra: kentzen dionarekin gazta on asko egiten duena.

Gorabera asko izandutako itxea gañera, Nikolas Segurola ori jaiotako Matximentako Largarate baserria. Nik aditu izan dutenez, garai batean Loiolako San Inazio zenaren familiarena izandua. Gerora, Loiolako jesuitena, eta gero jesuitak saldu izandua. Iru aldiz erre izandu omen da, eta irutatik bitan San Inazio egunean. Au txaskoa bakarrik ote da?

Noan Nikolasekin berriro ere. Oen lagunak, len ere esan dutenez, bertsolariak dira. Besteak beste, Mitxelena zenarekin askotan elkar-tzen zena da Nikolas, eta nonbait ere itzegin dute Arantzazun, arek potaje ona egingo zuela eta joteko lagun batzuk artuta. Eguna jarri dute eta baita Mitxelena beste lau-bost lagunekin jon ere.

Neri an izandutako batek esan zidan, euntalako potaje pilla jan zutela denen artean; biño prailea omen zela geiena jan zuena. Biak gizon aundiak, Mitxelena eta biak, biño prailea bikañena.

Nik ura aditu nuenean, pentsatu nuen: "Zerbaitik ibiltzen itun garai batean babarrun-eskean praileak".

Dena dala, Mitxelena Arantzazun ere lagun onak zituen gizona zen, eta batez ere Nikolas Segurola ori.

Musakola

ARRASATERA sarreran dagoen barrio bat da Musakola. Nik izagutu nuenean, oraindik baserri batzuk baziran.

Errota bat ere bai, eta erribera onak ere bai, oraindik libre zaudenak. Au 1962 urtean zen. Ni, azkeneko, 1985-an izan nintzan, eta etzaukan nik izagutu nuen Musakolaren antzik. Dena etxez tapatuta zagoen, ogei ta iru urte bakarrak izanagatik.

Dioten errota ortako nagusia, Joxe Mari izena zuen gizon bat zen. Kolore gorri bat, izketan bezin txukuna izaierez.

Bi arriko errota zaukan. Onekin esan nai nuke etzaukala errota bakarra bi arrirekin, baizik-eta lau arrirekin lana egiten dutenari deitzen zaiola bi arriko errota. Adibidez, nik Oiartzungo errota asko ezagutu ditut, biño bi arrikoa Ugaldetxoko Iyurrita bakarra, oraindik ere martxan dagoena. Eta Ugaldetxoko Juan Sendoko errota, berriz, arri batekoa.

Biño Jose Mari orren errotak bezperan egiten bukatuta zagoela zirudien. An egintako iriña jan ziteken, ura ikusita batibat.

Ibiltzen ote zituen galdatu genion, eta baietz: gutxienez urtean bi edo iru aldiz ibiltzen zituela.

Berak deitua zen Mitxelena, lagun bat artuta joteko bertso tara. Bidean goazela, onela esan zidan:

– Joxe Mari Errotak deitu zidaken, eta ikusiko duk zer gizon atsegiña den.

Etzidan gezurra esan noski. Neri ere alaxe iruditu zitzaidan beintzat.

Gu allegatzerako zai zagoen, bidera aterea. Berekin artuta, amaiketakoa egitera eraman giñun. Arek bazakiela bertsolariak nola berotu bear ziran, eta joteko arekin.

Amaiketakoa egin eta ondorean, plazako bertso-saioa. Berak zuzendu zigun, gaiak-eta eman ez. Garai artan, txapelketaz kanpo ez genduen oraindik gaiak jarrita kantatzen. Gure aurreneko saioa Musakolan izan zen. Egin genduen ango pasada ere aal zen moduan, eta gero asi zen polita.

Bazkaltzera ere bere itxera eraman giñun. Lenago aitatzen duten errota orduan erakutsi zigun. Gazte denboratik asi eta errotak gelditu ziran arteko lo-galtze eta istori guziak ere kontatu zizkigun dotore asko.

Ni arrituta gelditu nintzan arek Mitxelena-rekin zaukan konfiantzaz. Esan zion itxegintzarako terreno-puska bat bazuela saldua, eta oso trato ona zuela egiña; bi itxe-bizitza eman zizkiotela terreno arengatik; beste itxe-mordoska bat ere bai omen zirala bere terrenoetan

egiteko asmoak, eta aien trataoa alabaren gizonak omen zaramakiela. Bera, berrogei ta bost urtean *Roneo* izeneko fabrikari lana eginda, orduantxe erretiratua zagoela; eta gustora bizi zela gañera.

Kontu geiago ere esan zizkigun, aita on bategen bere semei bezelaxe, elkarrekin bazkaltzen ari gañala.

Buruz ere gizon argia izan bear zuen arek. Neri ala iruditu zitzaidan beintzat. Bazakien garaian garaiko arguioak ateratzen.

Bazkaldu eta ongi jarri gañanean, bertso-kontuan asi zen: Uztapide zana eta Basarrirekin nola kantatu izandu zuen Arrasaten plazan; estutasun ederrak pasa zituela; biño esan ziola bere buruari: "Gogor egin bearra zio, ba, emen!". Eta kantatuko zizkigula an kantatu zituena batzuek, eta asi zen.

Biño gu ere tankeran jarriak geunden, eta irurak egin genduen saio bat. Gu ala jarri gañanean, etzen asarre, Mitxelena bere itxean bertotan ikusita. Alaxeko sasoa ere zaukan garai artan Joxe Joakiñek.

Oso gustora geunden, biño itxerako martxa artu bearke zela eta asi gañanean, or gogoratu zaio gure Joxe Mariri Kanpantzarko gañean bazela *restaurante* bat, eta ara jon eta kafe bana artu bear genuela; eta etzagoen iñola ere ezetz esaterik, guk beintzat, eman zizkigun konfiantza, eguna eta jornala ikusita. Uraxe nai zuen eta jon gañan.

An ez genuen denbora asko pasa. Itxerako bidea artzeko garaiz Musakolan gañan bueltan.

Antxe utzi genuen nik nolana aztuko ez duten laguna.

Geroztik ez dut aren berririk. Ez dakit bizi den ere. Ala balitz, segi dezala ongi; eta, illa baldin bada, nere partetik izan dezala betiko zerua.

Atamitx jatetxea

GARAI bateko Isasti sagardotegia eta errota izandua da *Atamitx* jatetxe famatua; eta Mitxelenak, aurreneko ereki zuen urtean, bertan zauden kupelak sagardo bete eta sagardotegia ereki zuen; eta urte artako sagardo-lanak bukatu zituenean, Luxiano Juaristi *Ataño X* eta biek jatetxea jarri zuten, 1964 edo 1964 urte inguruan, oso oker ez banaz.

Asmo berezi batekin gañera. Aurreneko berak asi baiziran aragia eta arraia parrillan erretzen sukalde-lanez aparte, eta ondore artan asi ziran an-emenka parrillan lana egiten duten jatetxeak erekitzen.

Nik uste dut, gaur egun oso izen ona daukaten etxe batzuei beintzat, begiak Atamitxek ereki zizkiotela.

Atamitx jatetxea lanean asi zanetik, ama-bost bat urtean lan asko egin zuten bertako bi etxeakoandreak eta beste lau-bost bat neska-mek. Jai ta aste lana izaten zuten.

Mitxelenak bear ziran arrai eta aragi guziak ekartzen zituen, eta Luxianok kontu guziak eramane. Nik au emen idazten dut, Mitxelenak berak alaxe kontatu zidalako.

Mitxelena erosketa lanean pizkor ibiltzen zen gizona zen. Bazakien non zer preziotan eta zer jenero izaten zen. Arek, astearen iru-lau egunetan, eta urte askotan, goizeko iruretan jaiki, Pasaiko puertoko arrandegira jon eta benta asi biño len bear zituen legatzak eta bixiguak itxera ekarri; eta gero aragiaren billa Bilbaora jotzen zen.

Bagiñan esaten genionak lan ariñean eta alperkerian bizitzea gustatzen zitzaiola, bertso-tan ari giñanean, eta abar. Biño Mitxelenak lana egitea zer zen ongi zakien gizona zen, eta asko saiatzen zen.

Biño Atamitxen etzen Mitxelena bakarra lan egiten zuena. An izaten zen bere emazte Bittori ere egunero, biño batibat igande-goizetan, salda on askoa garaiz egitera jona.

Baita Luxiano eta bere emazte Iñaxi ere, meza nagusia entzun eta eguerdi aurretik lanerako prest, beti ez bazen ere, geienetan bai beintzat.

Bertsotarako ibilian, berriz, lokera aundia genuen bertsolari geienok Atamitxekin. Napar aldera edo emen inguruko erriren batera jon bear bagenuen, "Alako ordutarako Atamitxen" esaten genion elkarri; eta bertan biltzen giñan. Eta bueltan ere berriro ara gabe gutxitan itxeratuko giñan.

Xalbador zenari Urepelen omenaldia egin zitzaiotanean, bertan izandutako bertsolariak bueltan etorri eta Atamitxen jakindu zuten ura il zela. Onek berak esaten du bertsolariak Atamitxekin zer lokera genuen.

Urte batekoa gogoan jasoak daukat, Lazkao-Txiki zanak zer bertso kantatu zion.

Egun artan Erreterian bertsoan izanduak giñan, Santiago egunarekin, Mitxelena zena bera, Lazkao-Txiki zena, Azpillaga, Joxe Agirre eta ni.

Ango egitekoa bete genuenean, Mitxelenak etxean lan asko zaukala eta presaka alde egin zuen. Gu, berriz, lasaixeago, eta lagun batzuekin gelditu giñan.

Bazkaltzeko garaia etorri zenean, an ari zen Mitxelena jo ta ke parrillan lanean, dena keta-gorritua.

Keta-gorritu onek zera esan nai du: sutan lanean ari den pertsonak, kearekin eta berotasunarekin koloreak gorritutako arpegia eta begiak dauzkala. Itz ori oso zaarra izan bear du, txondar-egilleak eta karobi-egilleak lana egiten zuten garaikoa.

Gaztarengatik ere berdin-berdin pentsatzen dut nik beintzat. Batzuek gazta azal-gorrituari *queso ahumado* edo *ahumatua* deitzen diote: eta orreri esan bear litzaioke *gazta keta-gorritua*.

Keta-gorrituta ari bearko gañera, Atamitx jendez beteta zagoen egun artan eta.

Gu ere exeri giñan, eskatu genituenak eka-ri zizkiguten, eta bazkaldu genuen.

Gu bukatzekotan geundela, ensalada aundi bat eta txuleta batekin gu geunden maira etorri zen Mitxelena.

"Aita ta Semea" egiteko denboran jan zi-

tuen, gurekin batera kafea artu eta jarri zen bertsotarako tankeran.

Asi zen bertsotan. Baita gu ere. Jendea ere bueltan jarri zitzaigun, eta ordubete biño geiago egingo genuen bertsotan; eta seguru naz plazan kantatu genituenak biño bertso obeak asko kantatuko genituela.

Lazkao-Txiki eta biak ari ziran bazkaltzen jan genuena eta pagatu bear zenarengatik bertsotan. Bertso oso-osoak ez dakizkit, biño rimak bai, eta onelatsu ziran.

Mitxelenak:

Ola itzegiten dik
amaikak marrutik,
onera iritxi aiz
juxtu-juxtu zutik;
etorri ainbestean
jarri aiz barrutik,
joateko pagatu
bear duk larrutik.

Lazkao Txikik:

Orrela mintzatzeko
ez al daukak lotsik?
Nik ez dit ordainduko
bero eta otzik;
indako propagandakin
egon aikek pozik,
guregandikan ez dek
kobratuko sosik.

Guk alako broma asko izaten genituen Atamitxen, eta azkenean bear zen bezela kontuak egin genituen. Biño amakin bat gosari eta amaiketako eginta altxeak gaude Atamitx ortan maitik, asko ordaindu gabe.

Nik bizi nazeño aztuko ez duten une atsegin asko nola gordeta dauzkaten, Atamitxeri bi edo iru bertso jarko dizkat:

Bertsotan jarri nai det
al dedan moduan,
auxen det goguan:
Atamitxek zenbat lan
eder egin duan.
Neskak eta mutillak
beren aginduan,
iñor etzan ikusten
erdi zikinduan,
ango jokabideak
arritzen ginduan.

Izketan ari zala
Xanpun Manuel Sein,
onela zion bein:
"Emen jan-edan onak
bazaudek beñepein;
gañera serbitzurik
garbiena eskein,
zazpi-zortzi neskame
danak zein baño zein".
Garai artan Atamitx
etzan, ez, edozein.

Utzi zitun bertsoak,
utzi zitun lanak
eta lagun danak,
bizi zalarik asko
maite zituanak.
Aldegin zuan nere
lagunik miñanak,
bertsotan elkarrekin
ibiltzen giñanak;
geroztikan askotan
negar egiña nak.

Arjentinan

MITXELENA, Patxi Arizmendi eta Atanillok, beren andre Bittori, Kontxita eta Iñaxitarekin, eta Txomin Garmendia bertsolariak, oraindik ezkongai zagoenak, illabeteko jaiak artuta lurralde ura pixka bat ikusi asmotan, Arjentinara egin zuten ibillaldia.

Bueltan etorri zenean, kontatu zidan Joxe Joakiñek ango bizimodua nolatsu zagoen, zer ikusi zuten, non eta nola ibili ziran, allegatu zirala Kordoban, Mendozan, Mar de Platan... Oiek beintzat izentatu zizkidan.

Biño gidaria ere bai omen zuten berekin emendik eramana: Donostiako *Bar Goizaldi*-ko nagusia zen Bartolo zana (g. b.). Ura gazte denboran Arjentinara jon, bertan ezkondu eta urte asko egiña omen zen; eta, Arjentina aundia izanagatik, geiena izagutzen omen zuen, eta arek erakutsi omen zizkan aurretik jarrita dauzkaten lurralde oiek denak.

Ura zen azanbilla, ura! Guk *azanbilla* deitzen diogu, txarrerako bezela onerako ere balio duen gizon azkarra denari.

Mar de Plata-n geiena ibili zirala esan zidan Mitxelenak. An ikusi zituztela oiartzuar pranko

Karrikako Aldabe baserriko semea, bere osaba-ta, mutil jona lanera. Osabak, berriz, Sastarre baserrikoak ote ziran entenitu nion Mitxelenari.

Aragitarakoazienda eta ardiekin ari omen ziran Sastarretar oiek lanean. Millaka buru asko omen zauzkatzen. Egun pare bat paseak izan bear zituzten ango rantxoak eta ganaduak ikusten, eta zoragarriak zirala esan zidan. An ala beren izaguerak eginta, oso ongi artuak izan zirala zion.

Ango aldiak egin ta berriz Mar de Plata-ra bueltatu ziranean, gertakizunik politena izan omen zuten. Kalean lasai asko arguio-arguio zijoaztela, amon xar batek itza atera eta galde-ra egin omen zioten:

– Ara emen ere euskaldunak! Nongoak zerazte?

– Gu gipuzkoarrak.

Amonak berriro:

– Zein erritakoak?

Eta Mitxelenak:

– Ni oiartzuarra.

– Ni ere oiartzuarra naz, ba –erantzun omen zion amonak.

Galdatu ere bai Oiartzunen zein barriotakoa zen, eta Mitxelenak:

– Iturriozkoa.

Eta amonak:

– Ni ere Iturriozkoa naz; Ozentziyo baserriko alaba, Joxe Domingoren arreba.

Elkarrizketa pixka bat eginta:

– Eskumuñak eman, guretarrik ikusten bazu-
duzute, ara jotean –esan omen zion.

Alaxe partitu omen ziran. Gertakizun au
kontatu zidanean, onela zion Mitxelenak:

– Mundu au zeñen txikia den, i!

Beste kontu bat, polita, Patxi Arizmendik
kontatu zidana. Mar de Plata kapitalean egu-
nen batzuk pasa omen zituzten, eta betikoa:
emakumeak erropa, oñetako, reloju eta olako
gauzak zauden eskaparateetan begira. Norma-
la gañera.

Mitxelena, berriz, txarkuterietan eta karni-
zerietan begira. Au normalagoa, berriz. Mitxe-
lena, Arjentinan ere, Mitxelena: beti tripa-kon-
tua, alegia.

Ala zabiltzala, or ikusi du Mitxelenak zeri-
kume bat erreta jarria, jateko pronto zagoena,
txarkuteriren batean. Eta:

– Auxe artu eta jan egin bear diagu –esan
omen zioten lagunei.

Biño derrepente asi omen zitzaizkan ema-
kumeak alako burutaziorik ez artzeko, eta ura
erosita ea nora jon bear zuten, eta marmarre-
an gogor. Ala, aldegin omen zuten zerrikumerik
erosi gabe.

Biño Mitxelenari ez aztu. Andik urrengo
egunean, edo urrenagokoan, emakumeak ille-
-apainketak egin bear zituztela-eta alde egin
zutenean, bai Mitxelenak jon eta zerrikumea
erosi ere, eta gañera pentsatua zaukan jatera
nora jon ere.

Lagunak esan omen zioten:

– Laister apaldu bear, eta au jatera nora jon bear diagu?

– Goazen nerekin.

Mitxelena, bere zerrikumea besoan zuela, aurrena arrapatu zuen tabernan sartuta, ogia eta ardoa atera omen zizkaten, eta arren bat biak laister egin omen zituzten.

Xulua eta Nikolas


JOXE Joakin Mitxelenaren lagun aundienerako bat dugu *Xulua*. Urte askoan elkarren inguruan lanean arituak, bat jatetxearekin eta bestea egurreko zerran. *Xuluaren zerra* deitzen genion Oiartzunen denak, eta Errenterian ere bai askok.

Xulua gotti eta *Xulua betti*, naiz ta Domingo Unsain bere izen-abizenak izan. Oiartzunen Domingo Unsainetaz egiten baduzu galdera, oso gutxik emango dizute argibidea, bere familikoz kanpo; eta *Xulua-taz* galdetuta, berriz, den-denak.

Iñor serbitzeko nik izagutu duten gizonik atsegiñena *Xulua*. Arek zezakena etzion iñori ukatuko. Lentxeago edo geroxeago beti serbitua izango ziñan.

Amakin bat baserritar aren zerran allegatuta gaude. Batek itxeko konponketak egiteko egurrak eramango zizkan zerratzerara; besteak, itxiturak egiteko estakak edo esolak bear zituela; eta *Xuluak* denak serbitu, eta pagamenta ariñarekin gañera.

Xuluak zerra utzi zuenean, ni orduan kon-



Domingo Unsain "Xulua"

turatu nintzan arek egindakotaz; eta uste dut beste geiago ere egingo zirala gañera.

Atamitxen, berriz, norbere itxean bezelaxe ibiltzen zen *Xulua*. Orain bodegan bazen, urrengoan tabernan edo sukaldean ikusko zenuen.

Bertako bi itxekoandre ziran Bittori eta Iñaxitak oso estimatua izaten zuten. Bear zuten zerrautsaren paltarik ez sekulan; ez noski sua egiteko, biño bai garbitasunerako, sukaldeko ixurgaiak-eta kentzeko. Negu-partea al zen? An deituko zioten:

– *Xulua*, atoz onera. Amaiketako pixka bat egingo duzu.

Eta batzuetan bai, besteetan ez, berak nai zuten bezela ibiltzen ziran.

Mitxelenarekin, berriz, iñon peri siñaleturen bat baldin bazen, ara jon gabe etzen geldituko, nola Elizondoko periak, ala Santestebangoak eta Lesakakoak. San Martiñetan Errezilla ere bai urte askotan.

Biño kontuz. Onekin ez dut esan nai parrandazalea zenik *Xulua*; biño tartekako egun-pasa batzuk oso gustoko zituela bai.

Naiz ta amar urte izan Mitxelena il zela, guk oraindik ere segitzen dugu urtean bi edo iru bazkari edo apari-pasara pixka bat egiñez, lengo kontu zar batzuk berrituz; eta askotan Atamitx gotti eta Atamitx betti.

Guk zenbat elkarrizketa egin izandu ditugun, naiz Atamitx eta naiz beste edozein arguiotan, sekulan gaizki-esan bat ez diot aditunik *Xuluari*.

Nere gisa, izen aundiko eskolatan ibili ga-bea, biño mundua nolakoa den antzemantako gizona.

Orrengatik eta izan duen borondatearengatik estimatzen zuen Mitxelena zenak, eta estimatzen dugu bere inguruan gabiltzan denak.

Xulua-ren beste lagun bat berezia, Nikolas Roteta, len ere aitatu dugun Iyurrita-errota eta pentsu-itxea den baserriko nagusia.

Bere zaartzaroan lanak pixka bat arindu eta illunabarrak libre artu zituenean, egunero *Xulua*-rengana, bientzat merienda-bokaro bat artuta, ongi baldin bazen beintzat. Atamitxen ardo pixka batekin eguneroko tertulia egin ta aurrera.

Au dena *Xulua*-k zerrako lanak utzi zituen arte. Geroztikako arremanen berriak ez dakizkit; biño ez dut uste luzaroan elkar ikusi gabe egongo diranik.

Ni au idazten ari nazen garai ontan, biek larogei urtez goitik daude, eta luzaroan elkar ikusteko zoria opa diet. Agur biotzez, *Xulua* eta Nikolas!



Nikolas Roteta, Iyurrita errotakoa, Oiartzun.

Artikutz

JOXE Joakin Mitxelena zenarengatik izketan edo idazten asi ezker, Artikutz aitatu gabe ezin utzi.

Denak dakigu bere garaian Donostiko udalak Goizuetari erosi izandu ziola. Ala entzun izan genuen beintzat.

Neri Antonio Zugarramurdi bertako guarda izandu zenak esan zidan Donostiko udalak aurreneko egin zuen eraikuntza eliza izandu zela; 1928 urtean inauguratu omen zen. Kamioa ere, ondorean asi ta gerra-denborarako bukatu omen zen. Enbaltsea egiten, berriz, 1948-an asi omen ziran, eta iru urtetik laura pasa omen zituzten.

Au dena len esan duten bertako guarda izantako Antonio Zugarramurdik kontatu zidan neri.

Basarri gure maisu eta lagun aundiak irratitik itzegiten zigun garaian, entzun izandu genion, Donostia zer zen jakiteko, lenbizi Artikutz izagutu bear zela; eta ez dut uste gezurra esan zuenik.

Neronek ere Artikutz izagutzen dut, eta Do-

nostiak beti ongi zaindu eta garbi idukitzen du, al den ur geiena eta garbiena izateko. Nola ez, ba? Administradore bat eta sei guarda izagututa gaude.

Administradorea Frantzisko Alberdi zen (g. b.). Gizon argia eta bromarako beti prest ikusten nuen nik ura. Mitxelena nondik zirikatuko ibiltzen zen; eta, Mitxelenak beretakoak botzen zizkanean, arek egiten zituen parrak! Ura ere azanbilla ederra zen.

Artikutza kamioz baldin bazoaz, muga pasata bereala itxe-ostatu bat arkituko duzu. Eskase du izena, eta kamioa bere tellapean pasatzen zaio.

An guarda bizitzen zen bere familiarekin Migel Larretxea. Illa da (g. b.). Arek zaar-sari edo erretiroa artu zuenean, Erreterira bizitzera etortzea erabaki zuen.

Ospatu bear zutela andik Erreterirako aldaketa, eta apari bat antolatu zuten. Mitxelena eta ni bertso tara eraman giñuzten. Elurra ari zuen goian-bean, biño kendu zizkiguten ederki asko otzak.

Ala, ura pasa zen, biño aurrera ere segitzen genuen guk Artikutzekin. Ia urtero jotzen baigiñan San Agustiñetan bertso tara; eta beste bost guarda ere izagutu genituen: len aitatutako Antonio Zugarramurdi, Bizente eta Joxe Mari Pellejero, Paskual Gamio eta Segundo Alustiza, beste egitekorik gabe Artikutz zaintzeko zaude-nak.

Migel Larretxeak len esan duten Eskaseko atezaintza egiten zuen. Ura etzen mendian ibil-

tzen. Biño etzuen denbora alperrik pasatzen. Beste egiteko bat bazuen oso gustokoa. Bestela ez dago arren gauza politak egiterik.

Zertan aritzen zen? Ura bastoi egiten aritzen zen. Era askotako bastoiak ikusi nizkan ari. Asi legunenetik eta bigurrienera arteko guziak egiten bazakien. *Zazpiak-bat* izenekoa ere bazuen bat, eta aren antzeko asko ikusi izandu nizkan.

Eta au da politena. Nik ala aditu izandu nuen: ez omen zituen saltzen; erregalatzeko izaten zituela; eta izan liteke, neroni ere bat erregalatu zidan ta. Mitxelenari ere bai bestea. Bazuen, bai, borondatea Migelek.

Gu Artikutza bertsoara joten giñanean, Mitxelenari gustatzen zitzaion guardak pixka bat tentatzea, eta asiko zen: Lesakako eiztariak lau basurde Artikutztik eramanak zirala; aranaztarak ere bai beste ainbeste, eta apari batzuk bazituela egiñak Artikutzko basurdeekin; eta amurraiak ere askotan jaten zituela, eta olako zirikaldiak botzen zizkan guardei.

Plaza, berriz, aranaztar, lesakar eta oiar-tzuarrez betea izaten zen, eta denak parrez lertzen jartzen zituen.

Naiz ta jakin saioa bukatu ondorean denak beregana bilduko zizkala, etzion batere inportik izaten. Gañera, uraxe nai izaten zuen.

Inguratzen zitzaizkan bi edo iru guarda, beste goizuetar eta aranaztar mordoska bat, eta lesakarrak ere bai. An izaten zen elkarrizketa xelebrea:

- Aritu aiz gaur ere jendeari parra egin arazten gure kontura, zerri ori!

Eta arek ura bear denak parrez jartzeko. Jakiten baitzuen bakotxari zein aritatik tira.

Ni konturatu nintzan Artikutzen ere lagun asko inguratzen zitzaizkela Mitxelenari, eta egun atsegiñak pasatzen zituela.

Aiek denak gogoan izanik, Artikutzeri bertso batzuk jarri gabe ez naz geldituko:

Artikutzek bertsoak
jartzera narama,
berritu nai nioke
lendik daukan fama.
Badezu urtegia,
badezu Elama,
ari zera ematen
naiko zer erana,
zorionak, Donosti,
zuk daukazu ama!

Arrobia daukazu
Arri-urdiñetan,
eta egurra berriz
zugaitz bikaiñetan.
Ez baidet gelditu nai
geroko miñetan,
bixitatuko zaitut,
diazut ziñetan,
Jaungoikoak nai badu,
San Agustiñetan.

Pasatzen degunean
Eskasen esia,
topatzen degu leku
eder berezia:
Paradisuan pare
dana berez ia,
lagun onena dezu
mendian ezia,
Artikutz, ez baizera
zernai merezia.

Donostian ez dute
erosian penik,
eta ez det pentsatzen
salgai daukatenik;
Artikutzek ez baidu
ematen etenik,
ikusi nuan arte
ez nuen uste nik
ugari eta ona
eman zezakenik.

Lendabizi burnia
Elamako suak,
eta geroxeago
iturri gozuak,
eta garai berean
mendiko basuak,
pozik artu zitunak
Donosti osuak,
orrenxengatik jartzen
dizkizut bertsuak.

Ontantxe utziko det
zure ixtoria,
ez baida geiagoko
nere memoria.
Zuk bialdu egurra
eta iturria,
pozik artuko degu
ortik etorria,
eta luzaro gorde
dezun jatorria.

Barrikotea

BARRIKOTEA izaten da urte osoko edariak egin eta aparte betetzen den untzi ttiki bat.

Badakigu edariak beste klase askotakoak ere baditugula. Biño gure-gureak ez, sagardoa bezela. Orregatik, sagardo egiteari *edariak egitea* deitu izan diogu Oiartzunen beti.

Esaiarak ere baditu sagardoak berekin. San Juanetan sagarrari azpitik gora begiratu ta lau ale ikusten baldin badira, “Aurten naiko sagarra badiagu” esaten zuten gure aurrekoak. Eta gaur ere esaten da.

Beste esaiera sagardoarengatik, nik aiton bati biño geiagori entzun izandua: “San Juanetako izerdia ongi artzen baldin badu, aurtengo edariak seguru zaudek”.

Sagardoari *edaria* esate orrek, emen garai batean beste edaririk ezagutzen etzala esan naiko du.

Eta barrikotea egingo bazen ere, sagardoa bear. Untzi ori, geiena jota ere, irurogei bat litro ingurukoa izaten da, askok dakigun bezela.

Barrikotearen usuarioa aspalditikakoa ote den uste dut nik, Oiartzunen.

Mitxelena oso gazterik asi omen zen barrikoteetako apariak egiten. Gu barrikote askotara gonbidatuak eta deituak ere izaten giñan, bertsotarako alegia; eta bein batean au esan izandu zidan:

– Nik oso gaztea nintzala izagutu nin Estrataburuko aitona. Goian bego.

Lorentzo Rekalde zenarengatik ari zen.

– Ari aditu nioken aien itxean oso urte gutxitan utsegin izandu zutela barrikotea egite-tik.

Eta erantzun nion:

– Bai. Usuarioak segitzen dik Estrataburun.

Orain Lorentzo zenaren billoba da bertako nagusia, Esteban Iriarte, neronen lagun aundi bat ain zuzen; eta esan izandu dit berrogei ta iru urte bazirala 1997-an, urte bat utsegin ga-be barrikotea egiten zutela.

Nik banakien auzorako eta bere lagun askorentzat barrikoteak betetzen zituela, eta galdetu egin nion:

– Aurten zenbat barrikote bete dituk, Exte-ban?

Eta, arrigarria bada ere, auxe erantzun zidan:

– Ogei ta amasei. Milla ta berreun litrotik milla ta irureunera.

Bada zerbait. Eta nik emen jarri duten au da zeatz-meatz badakitelako. Biño au ez da Estrataburuko kontua bakarra. Dakigun bezela, Iturriotzez gain, beste sei ballara baditu Oiar-

tzunek, eta aietan ere usuarioa berdin mantentzen da.

Nik badut nere andrearen aldetikako lengusu bat, gazte denboran Oiartzundik Naparroako Lekunberrira bizitzera jona, eta arek urtero Oiartzundik sagardoa eramane eta barrikotea betetzen du. Iñaki Garaño da gizon au, Lekunberriko *Kanpiñ Aralar*-ko nagusia.

Mitxelena ta biak askotan jotene giñan ara bertsotara, eta baita Txomin Garmendiarekin ere jon izandu naz.

Oiartzundik kanpoko kontuekin asi nazen ezkerero, jarri bearra daukat Orion ere barrikoteak egiteko oitura badala; eta ara ere bi urtetan jon izandu nintzan bertsotara, lagun Iribar bertsolariak deituta.

Biño au ere jarri bearra daukat, ba, sinisgaitza bada ere. Ez kanta eta umorearen paltarik izandu zelako, biño bertso bar bakarrik ere kantatu gabe etorri giñala bueltan urte batean. Gu gabe ere bazen an zeñek kantatua. Ala ere, urrengoan jon giñanean, uste dut aurreko urteko parteak eta denak kantatu genituela.

Soñu-jotzalleak ere izan izandu ditugu, eta oso ongi betetzen du soñu-jotzalle batek apalondoa. Bestela mugitzen ez dena ere ikusita gaude ederki mugitzen. Orrek berak ederki esaten du zer giro sortzen duen ondoren barrikoteak.

Eta ori bakarra ez. Goizaldera zurruputuna egin da jan, eta seietako mezetara garai batean beintzat askotan. Gaur egunean ez, ordu ortan ez baida mezarik izaten; eta, izanta ere, ez da-

kit zenbat izango giñaken ala gaua pasa ta jongo giñanak, eta alako parajetatik gañera.

Ez dakit zenbateko fedea eramaten genuen; biño loi-pilla ederrak beintzat bai. Serora gai-xoari utziko genion zer egiña elizan.

Orduan asko konturatzen ez bagiñan ere, orain pentsatzen egoten naz ibili aietaz. Sasoi-dun garaian edozertarako egoten da gaztea, eta olako eta antzeko ondore asko emanak dira barrikoteak; eta nere partetik segi dezatela ematen gañera, euskaldunak gure-gurea dugun oitura da ta.

Mitxelena zena eta biak amakin bat lagunarte atsegin paseak gaude. Besteak beste, aretxek gustokoa zuen barrikoteetako giroa.

Barrikoteetako apalondoa arrunt giro azkarrak eta alaia izaten da. Exerita kartatan jokatzen oso gutxitan ikusiko duzu jendea. Amakin bat kanta eta bertso zaarrek bizirik iraun dute barrikoteetako giroa izan delako medio, bestela onezkero aztuak ziranak.

Itz auekin gogoratuta, bein gaia eman eta kantatu genituen bertsoak oso egoki eldu dirala derizkiot: 1971 urteko agoztuaren 14-a zen. Erriko kanta zaarrei berrialdi bat emateko jaialdi bat antolatu zen. An azaldu ziran garai bateko toberak eta abar.

Guk bertsoetan egin genuen: Mitxelena, Uztapide, Lexoti eta nik, alegia. Joan Mari Lekunak onela jarri zigun gaia:

– Kanta dezatela bertsolaritzari buruz eta kanta zaarrei buruz, laurak gai berean.

Kosme:

Lengoko zarren pasadizuak
danok dituzute aitu,
eta gu ere gauza orretzek
galanki poztutzen gaitu;
bertsolaritza gure errian
ez da oraindik amaitu,
segitzalleak badira eta
bearko degu jarraitu.

Uztapide:

Lekuona jaunak eman dizkigu
bertsolaritzan legeak,
juan zaizkigu tristurak eta
juan zaizkigu naigabeak;
bertso zarrak or azaldu dira
iñon tatxarik gabeak,
garai batian izango ziran
gu geran baño obeak.

Mitxelenak:

Lengo ta oraingo danengatikan
ni mintzatuko nintzake,
garai bateko bertsoak ortxen
gordeta daude giltzape;
baño oraindik indar daukate
lengo zarraren itzak e,
ta Oiartzun zer genduke, jaunak,
bertsorik ez balitzake?

Lexoti:

Garai bateko zar aiek ere
ona zuten talentua,
Lekuona jaunak emen egin du
tokatzen dan predikua;
emen lauko bat zerbaitetako
dago etorritakua,
gu ai gerade esplikatutzen
airi ikasitakua.

Kosme:

Lengo ta oraingo gaurko egunez
egin nai genduke naste,
eta entzule biotzekuak
pozik egongo zerazte;
lengoko zarrak esan ditugu,
badira bai zenbait gazte,
beldurrik gabe martxa izan dedin
zuek ere erten zaitezte.

Uztapide:

Oraindik ere bizi gera ta
zertako artu etsiya?
Amaika gauza eder badegu
zar aiek erakutsiya;
bide orreri jarraitutzeko
degu naitasun biziya,
dakigunakin egingo degu
guk ere al degun guziya.

Mitxelena:

Bertso-bide au nola daukagun
zarretatikan entzuna,
aien ondoren gu ere emen
sortu giñan Oiartzuna;
al bada ondo bete nai degu
bertsozko eginkizuna,
au da erria indartutzeko
guri komeni zaiguna.

Lexoti:

Oiartzun ontan ibil gaitzen
al baldin bada umil-umil,
nik badakit ba bertsoan ere
orain dela zenbait abil;
nik neronek gezurra esan baño
askoz naiago nuke il,
kararik kara aitortze'izutet:
airi ikasiakin nabil.

Donostiko Loiola

DONOSTIKO Loiola Joxe Joakin Mitxelenak bere denboran maiz bixitatu izandu zuen auzoa da. Naiz San Inaziotan bertsoara zela edo Soziedadean apariren bat zela, askotan Loiolako egin bearrak izaten zituen.

Izan ere, ainbeste lagun eta alakoak bai-zeuzkan bertan: Mitxelena bertsoan jarri ezke-ro, jan gabe ere egongo ziran oietakoak.

Oraindik izen batzuetaz gogoratzen naz eta emen jarriko ditut: *Bar Americano* tabernako nagusia, Juxto, berez aiarra, gaur egun Ernani-ko *Bar Juxto*-ko nagusia dena. Ni arekin izketan jartzen nazenean, beti aitatzen dit Mitxelena zena. Bai; ongi gogoan gelditua du. Beste-a, *Bar Goizuetarra*-ko nagusia, Karmelo, goizuetarra berez. Il zala esan zidaten. Goian be-go. Alzako Kataliñenetarrak beste bi anai eta ola, abar luze bat.

Biño denen buru egiten zuena orain jartze-ra noa zein zen: Martin Itxua, berez Zaldibikoa, biño Loiolan bizi zena. Aren esku izaten ziran arako bertsolarien ibiliak.

Baserri-lanean aritzen zen. Zortzi edo hamar bei idukitzen zituen, denak esnetakoak gañera.

Ni arrituta utzi izandu niñun gizon arek. Berak gobernatzan zituen, baita jetzi ere, eta eskuz gañera, gaur bezelako makinik etzen-ta garai artan. Ez banuen ikusi, ez dakit sinistatuko nuen. Ikuilluan bertan saltzen zuen biltzen zuen esne guzia.

Gazte-denboran, bistatik-eta ongi zabillen garaian, Zaldibitik Donostira etortzen omen zen esne saltzera, eta orduan izagutu omen zuen Mitxelena gazte-gaztea.

Donostian elkar ikusi ezkeru, beti gosaltzera eraman nai izaten omen zuen Mitxelena, eta beti Martiñek gosaria pagatu.

- Amakin bat gosari pagatua zioz au neri!
-esan izandu zidan Mitxelenak.

Zaldibi utzi ta Loiolan bizitzen jarri zenean ere, berdin segitzen zuen Martiñek. Askotan eraman arazten zuen Mitxelena, eta ni ere bai; eta orduan ederki ikusten nuen lepotik eldu ta nola galdetzen zion:

- Zer moduz, Mitxelena? -bere izkera patxarosoarekin.

Amakin bat aldiz aditu izandu nion Martin itxua zenari:

- Au uan, au, mutilla, ogei urtetan!

Aiek elkarrekin jartzen ziranean, bai gizon-parea ere! Martin eun da berrogei bat kilo bazeu, eta Mitxelena ere eun da ogeitik gotti, iltzeko aurrean ere.

Abisatu zidan Mitxelenak Martin gaizki omen zagoela; eta andik denbora gutxira il zen. Entiarrora izandu giñan. Gure Jainkoak bere

altzoan artuko al zituen, ba, biak, fede aundi-ko gizonak ziran eta.

Nik dakitala, iñori uts egin gabeak beintzat. Eta oraindik bizi izan balira, iñori kalterik etzioten egingo. On egiten segituko zuten.

Igantziko zikiro jatea

Ez naz gogoratzen zer urtetan zen; biño zer egun zen bai: San Juan bezpera bat.

Etxartetarrak soziedadean zikiro-jatea zaukatela eta ara jon bear genuela esan zidan Mitxelenak; bera andrearekin aurretik jongo zela, eta ni apaltzeko garairako joteko Igantziko soziedadera, oitura genuen bezela.

Baiezkoa eman nion, eta illundu aurretik an nintzan, eta an zagoen giroa! Sua egin zezateken tresna guziak martxan zauden.

An zabillen Mitxelena gisatzekoak probatu eta erretzekoei buelta eman, erabat keta-gorritua. Areri gustatzen zitzaion ongi jatea; biño bai besteei jateko ona ematea ere. Alako bille-rak oso gustokoak izaten zituen.

Dena aurretik ongi preparatu eta eserita jarrri eta jan: aurrena, barrenekin egintako paella jan genuen; ondoren gisatua; eta, azkenik, errea.

Eta zenbat jan? Beste geiagotan ere bai, biño egun artan beintzat, arek jan zituenekin ni arrituta utzi niñun; eta besteak ere alaxe gelditu ziran, naiz ta denak jakin zenbateraño jalea zen.

Edan-kontuan, berriz, beste edozein baten paretik etzen pasako. Uraxe zen gizon bat sekulan edariak irauzita ikusi izan ez nuena, naiz ta egun asko elkarrekin paseak giñan.

Segi dezadan Igantziko apariarekin. Postretarako mamia zaukaten egiña, eta nolakoa gañera! Batere gazurarik gabea, legor-legorra.

Garai ortan ardiak antzutuxeak, eta orren-gatik zela esan ziguten. Azkeneko jetzialdietara ezkerro, esnea loditu egiten zaiola ardiari, umealdi baxotxean jakiña. Zalla dela ugari eta ona izaten bada esaiera. Ori egia da, biño an bagenuen ugari eta ona.

Ler egiteko ainbeste jan genuenean, beste litro pare bateko ontzia ekarri zioten Mitxele-nari. Areri ere ekin zion, eta andreak bazterretik esan zion:

– Biño, Joxe Joakin! Ba al dakizu zertan ari zeran?

– Onek ez lezake kalterik egin beintzat –erantzun zion.

Ez dakit dena bukatu zuen edo etzuen; biño andik ere aritu zen beintzat, eta ez dut uste kalterik egin zionik.

Ondorean, bertsotarako sasoi ederra jarri zitzaion beintzat. Asi bagiñan ta asi, neri naiko lana jarri zidan.

Konturatzeko, goizaldea etorri zen, eta eskerrak andrearekin jonak bagenituela lagun batzuk. Bestela, ez dakit noiz erretiratuko giñan.

Gustoa zen arekin alako apari-billeratara jotea, berez ortarakoa zen ta.

Altxa ta itxerako asmotan asi giñanean, bere andrea inguratu zitzaion, jertsea eskuan artuta:

– Jantzi, Joxe Joakin –esanez.

Eta Mitxelenak gau artako azkeneko kantatu zuen bertsoa, alde-alde auxe izan zen:

Andre maitea, ekatzu bañan
ez det jertsea jantziko,
bizkarretikan eramango det,
ez degu emen utziko.
Agur, lagunak, nere biotza
beti dago Igantziko,
zuek gureta oroi zaitezte
gu ez gera-ta antziko.

Atamitxen langille izantako batek esana

JOSE Penela Atamitxeko parrillan urte askoan lana egintako gizona da. Guk *Joxe Gallegua* deitzen genion, jaiotzez ala delako.

Atamitxen ogei bat urtean lanean ari ondoren, Atamitx ori eskuz aldatu zenean, berak bere kontura *Esnoiz* jatetxea jarri zuen Ugaldetxon bertan, eta bateri biño geiagori aditu diot lanean oso ongi ari omen dela, eta asko pozten naz. Langille amurratua da ta enaz batere arritzen.

Egun batean, Oiartzungo Ugaldetxoko ballaran dagoen *Intxixu* tabernan topatu giñan biak, eta izketan asi giñan kontu bat eta beste. Alako batean esan zidan:

– Mitxelena zenaren izenean libururen bat egiten ari omen zera?

– Bai –erantzun nion–. Ain nuen estimatua eta zerbait ere egin gabe ez gelditzeagatik asi nintzan, ta naiko lana badut artua. Batetik, nere denbora guzian lau lerro idatzi gabea nazelako; eta, bestetik, gogorik izan ez dutelako, ezjakin gelditua ere bai. Oiek dira nere kome-riak. Biño ala ere borrokatuko naz lantegi berri ontan ere, arengatik da eta.

Onela erantzun zidan:

– Neronek ere asko maite izan nuen Mitxelena, eta poz aundia artuko nuke nere izenean zerbait ere jarko bazenuke, lekua izan ezkeru beintzat, ainbeste zor badiot-eta nik areri.

Esan nion:

– Bai, bai. Aren izeneko liburu batean aren gertakizun denentzat bada lekua. Zertaz jartzea naiko zenuke?

Eta onela zion:

– Mitxelenak, urte askoan ni mantendu eta neri jornaia pagatuz gañera, gauz onak erakutsi zizkidan, nere bizimodurako asko balio didatenak. Nik itzegiten dakiten euskara arenetik ikasia dut. Ura beti euskaraz mintzatzen zen neri, eta etzuen nai izaten euskaraz mintzatzen zenari erdaraz erantzutea. Ni bakarria nintzan, ango langille giñanen artean, erdaldu-na; eta ni euskaraz jarri niñun artean etzen gelditu; eta poz aundia izaten zuen andik aurrera, gañera.

Tarteka esaten zidan:

– Ikusten al duk saiatu ezkeru gauzak nola ikasten diran?

Beste lan bat erakutsi zidana zen arraia tratatu eta maniatzen, nola legatz, ala bixigu eta gañekoak. Beti jenero ona ekartzen zuen, eta esaten zidan:

– Au ola jartzen duk; eta beste au, berriz, beste ola.

Ni beti saiatzen nintzan al nuen ongiena egiten, eta ikasi egin nuen, eta nik au dena Mi-

txelenari zor diot. Eta gaur edo biar nere aitor-
mena agertu dedin, aren izenean egingo den li-
buruan jartzea nai nuke.

Orduan esan nion:

– Zu egon lasai, zuk esaten dizkidazun de-
nak antxe jongo dira ta.

Eta gero galdatu nion:

– Besterik ez al duzu ezer areri buruz, jarri
nezakenik?

– Ez –erantzun zidan–. Ontan utziko dugu.
Gauza geiago ere izango dituzu jarri bearrak,
eta ni konforme naz, auxe agertzen baldin ba-
didazu.

Beraz, ongi eskertzen ditu Mitxelenak eman
zizkion lezioak gizon onek.

Nik lengo garaitako berri askorik ez dakit;
biño gaur egun nagusia eta langilleen arteko
olako kontu gutxi aditzen ditut; eta zuk ere
bai, noski, irakurle. Eta ortatik atera zenezake
kontua nolako nagusia eta nolako langillea
izango ziran aiek.

Arekin lanean aritutako geiago ere izagu-
tzen ditut; biño ez dut itzegiteko erarik izandu,
eta aieri buruz ez nezake ezer ere idatzi. Biño
nere buruz daukaten iritzi bat, bai, emen ida-
tziko dut.

Nik Mitxelena zena ongi izagutu nuen, ta
guk bien arteko elkarrizketa lana izaten ge-
nuen askotan, eta aren iritzia izaten zen beti
buruz zuzendu bear zela lana, gero gustora eta
erraz aurrera ateratzeko.

Kontseju edo aolku au askotan aditu izan

nion, eta etzabillen gaizki. Lana beti lana da; biño modu batera ari edo bestera ari alde ika-ragarria dago.

Laneko gaietan, bere mutilla izantako *Jose Gallego* orrek esan zidan bezela, maisua zen Mitxelena.

Erretako baserri baten ondorenak

ONDARRABIKO Jaizubia ballarako Aginaga baserria 1963 urtean erre zen, bi bizitzakoa gañera, ain zuzen.

Biño Ondarrabiko baserritarrak, eta bati-bat Jaitzubiko auzoa, burua beste aldera jirata etziran gelditu. Bi famili aientzat zerbait ere egin bear zela eta euntalako mugimentua sortu zuten.

Izan ere, etzen gutxiagotarako, soñeko erro-pa besterik gabe geldituak izan bear zuten ta.

Zorionez, gaur egun seguroak badauzkate baserriak. Jakiña, ordainduta. Biño garai aietan etzen buruan pasa ere egiten segurorik izan bear zuenik. Askok zetorrenaren zai egon bear, bear-ezak erremeditzeko, gu bizi giñan etxetik asita.

Ukalondo oneko baserriak buruko illeekin biño eskuko beatzekin konparatuta egokiago zauden.

Auzoaz gain izandu zen beste gizon bat ango antolaketa-lanetan parte artu zuena, baserritar eta arrantzaleei oso begirune ona ziena: Ondarrabiko kalean bizitzen zen Fernando Ar-

tola *Bordari* zana (g. b.). Arek bertso-jaialdi bat antolatu zuen.

Uztapide, Mitxelena, Xanpun eta ni, lauei deitu zigun, esanez zer bear zagoen eta zer asmo zituen; eta, guk baietza eman genionean, eguna eta ordua jarri zizkigun.

Gu Oiartzundik jon giñan iruak, eta Xanpun ageri ez. Biño enkargua biali zuen, nai ta naiezko eginkizun bat sortu zitziola azkeneko momentuan eta etzaukala etortzerikan, eta arren barkatzeko eskatu zion.

Ala, etzela, ba, garaia beste bertsolari baten billa asteko, eta iruak egin genuen ango pasada, eta an kantatu genituenetako batzuek emen dijoazkizute.

Agurra, Mitxelenak:

Ordua da ta zerbait esaten
asi bearrez nenguan,
ikusten ditut anai jatorrak
bat biño geio onduan.
Gaurko eguna badakizute
zer eratako genduan:
famili baten laguntzarako,
ori eduki goguan;
ta bitartean ordu gozo bat
aber pasatzen deguan.

Kosme Lizasok:

Aukera auek guretzat beti
izaten dira legunak,

aldi gutxitan gertatzen dira
gaur bezelako egunak.
Danak dakigu, mingarri dira
emengo pasakizunak,
zuen biotzak projimuantzat
nola ez diran lizunak,
gure partetik zorion bana,
Ondarrabiko lagunak.

Uztapide:

Artola jaunak esaten digu
asi bear dala lanari,
lendabiziko agur eiteko
emen zaudeten danari.
Gure aurrean jarri zerate,
anai-arrebak, ugari,
erri maite au beti izan da
jende jatorraren kabi,
zorionean ikusten zaitut,
biotzeko Ondarrabi.

Urrena, onako gai au jarri zigun Fernando
Artola *Bordari*-k:

– Bi bizitzako Aginaga baserria erre da. Uz-
tapide, bertako maizterra da; Mitxelena, auzo-
ko etxekoandrea; Koxme Lizaso, auzoko alaba.

Uztapidek:

Premian danak negar eiteko
ez luke bear lotsikan,
t'ezin ninteke arrokerian
nik emen egin itzikan.

Etxia erre ta gelditu naiz
ni oso esku utsikan,
auzotar auek ez dute egingo,
ez, neretzako gaitzikan,
premian nago ta seguru naiz:
izango da laguntzikan.

Mitxelenak:

Gu auzo gera ta leno geunden
ondasunetan beterik,
ni're emakume triste bat nago,
ez daukat nundik jaterik.
Nere bizian nik ez det izan
orain arteño kalterik,
momentu ontan ikusitzen naiz
biotza oso tristerik,
nere dotea ez baidadukat
orrenbestean galtzerik.

Kosme Lizasok:

Pentsatzen nuan luzatu gabe
neuk ere esposatzea,
nere asmoa utzi nezake
gaurtik aurrera atzea.
Au da biotza penaz beteta
burua makurtutzea!
Iñor ez bada etortzen orain
gure artera laguntzea,
guk nola altxa gentzake orain
erreta dagon etxea?

Uztapidek:

Egun tristiak sortutzen dira
goizago edo berandu,
gure Jainkoak aurten neretzat
urte tristia eman du.
Gere denboran saiatu gabe
gu ez gerade izandu,
egin dan dena egun batean
su zatarrak eraman du,
askorik ez det eskatzen baño
al dezutena lagundu.

Mitxelenak:

Bearturikan ari gerade
limosna baten eskean,
bi bizitzako baserri ortan
nola gaur arro ez gean.
Ta nor ez da, ba, errukituko
bat onela ikustean?
Pentsatu zuen limosna ori
dala mesede ustean,
emen pagatzen dunak kobrauko'u
mundu ontatik joatean.

Kosme Lizasok:

Esposatzia pentsatzen zuen
zure alaba gaixuak,
ta orain etorri zaizka eundako
burubide txar batzuak.

Gu izan gera geren etxian
danak langille zintzuak,
baiña desgraziz etxia nola
erre baidiguan suak,
orain jasotzen laguntza pixkat
egin zazute, auzuak.

Uztapide

Zorioneko sua dala ta
gauza jarri da serio,
zuek e triste bizi zerate
gu geralako medio.
Negar bakarrik egiteak e
munduan ez du balio,
lurra jo eta dagon etxea
nolabait bearko io,
borondate ona dun kristauari
Jainkoak laguntzen dio.

Mitxelenak:

Jakin dezute zer naigabea
zan gure baserri Agiñaz,
ta alaba're ementxe daukat
eunero buruko miñaz.
Len ere ez giñan arroak eta
oin jarri gera eziñaz,
laster ezkondu bear zuela
baizebillen itzegiñaz,
etzaite estutu, geroxeago
noizbait e ezkonduko ñaz.



Eibarko txapelketa, 1959-XI-8. Goiko argazkian: Alfontso Irigoien eta Uztapide. Beekoan, ezkerretik: Uztapide, aita Larrañaga obispo jauna, kaputxinoa, eta Mitxelena.



Kosme Lizasok:

Laguntzalleak sortu zaizkigu
erri edo auzotikan,
gai onen bidez eskerrik asko
diot nere bertso­tikan.
Nere aurrian denok zaudete
ez borondate-faltikan,
zuentzat bada guretzat ere
izango degu patrikan,
ta pentsatzen det berriz etxi oi
jarriko dala zutikan.

Txomin Garmendiak idatziak

BATEAN, lagunarte ederrean geundela, onela esan nion ain adiskide miña duten Txomin Garmendia bertsolariari:

– *Sendoa* argitaletxeak, Joxe Joakin Mitxelena bertsolari zenari buruz liburu bat osatzeko ni jarri niok, eta artan ari nauk.

Txomiñek onela erantzun zidan:

– Nik ere Mitxelena bertsolaria ondo ezagutu nuenez, esku bat botako diat, alegiñean lagunduz.

Ala, andik egun batzuetara makinaz idatzitako orri batzuk bialdu zizkidan. Onela diote:

Zer moduzko bertsolaria

Mitxelena zer moduzko bertsolaria zan norbaitek galdetuko balit, oso erantzun luzea emango nioke eta saiatuko naiz lerro auen bidez alik ondoena erantzuten.

Nik ezagutu ditudan bertsolari geienetatik, neroni barruan naizela, danetatik ez esatearren, oso berezia zan. Orrekin ez det esan nai

bertsolari ona etzanik. Baiña, nere iritziz, askoz ohea ere izan zitekean, zenbaitek bezela landu balu bertsoaritza.

Adibidez, Xalbador bat bertsolari ona zan; baiña bertsoaritza ikaragarri landu zun. Erri batean jarri zioten gaiari bear bezela etziola erantzun iruditzen bazitzaion, etxera bidean bertso oheak asmatzen joango zan. Artzantzan edo baserriko lanetan zebillela, berdin. Ori berak naiko garbi adierazten du *Odolaren mintzoa* liburuan.

Omenaldietan eta abar, askotan, bi edo iru bertso bakarrik kantatu bear izaten ditu bertsolari bakoitzak; eta bakarkako lanetan, geienetan beintzat, etxean pentsatuta ekarriak izaten dira. Bertso onak bai, baiña aurrez *enbottlellatutakoak* deitzen zaie orrelakoai.

Mitxelenak etzun orrelakorik. Oso garbi ikusten zan ori jaialdi oietan. Beste batzuen aserako bertsoak ikusgarriak ziran bitartean, arenak ez baiziran ainbestekoak izaten. Baiña saio luze batean Mitxelenaren bertsoak obetzen joango ziran, eta kontrarioarenak txartzten, askotan beintzat.

Bertsolaria ezagutzeko saio luzea bezelakorik ez baita. Gaur bertsolari gaztea ugaldu zaigu. Oso onak ez gutxi. Baiña saio luze batean luzitzeko zenbat dira kapaz? Askok ez al dute denbora geiegi pasatzen bertsoa pentsatzen? Alde ortatik begiratuta, Mitxelena berezko bertsolari ikusgarria zala esan bear.

Uztapide zana ere bazan, ba, norbait bertsoaritza! Saio luze prankotan luzitua zala

ere esan bearra dago. Baiña bein baiño geiagotan auxe entzun genion:

– Dozen erdi bat bertso naikoak dira. Andik aurrerakoa zaborra izaten da.

Mitxelenari etzizaion orrelakorik entzungo. Besteak magnetofonoaren etsai baldin bagiñan ere, ura konporme izango zan bere bertso txarrenak ere tresna ortan sartzeko. Saio luzea, berriz, gogozkoena. Azkenengo bertsoa ere berak bota bear izaten zun; eta, askotan, ez ote zun bukatuko ere pentsatzen gendun.

Oiartzungo izketa zala-ta, naiko izkuntza narratxa ere erabiltzen bazekian. Aurrez nion bezela, ez baizun izkuntzarik eta bertsozaririk landu. Gogoan det Pasaira bertsoetara joan giñan batean –artean Pasaiko kaian egiten zun lan–, bertso baten bukaera onela eman zula:

..... lanean ere
ementxe ibillitzen naz,
pesta-eguna danean ere
pozikan etorritzen naz.

Zenbaitek bertso ortan poto dagola esango du. Nik ez nuke esango orrenbeste. Aurretik dauden *ibillitzen* eta *etorritzen* itzak zerbait esan naiko dute noski.

Baiña etzan Oiartzungo izketa bakarrik. Itz berriak eta joskera berriak sortzen ere aproposa zala esango nuke.

Mitxelenak, bertsoan ari zanean bakarrik nekatzen zun burua bertsoetarako. Gaiñontze-

an, lana, negozioa, dirua irabazteko modua eta abar izango zitun gogoan. Erriren batera bertsoetara joandakoan, ango egitura ikusitakoan, aterako zun an negozioaren bat jarri ziteken idea.

Alde ederra aurrez aitatu dedan Xalbado-
rrengandik eta beste askorengandik, neroni
barruan naizela.

Ongi dakigu, Pasaian lan egiten zun garai
artan *gaueko lana* -kontrabandoa- ere maitea
zula. Bestela etzan egitazko oiartzuarra izango.
Besteak beste, bat orrela dabillenean bertsoak
aztuta ibilli bear, ordea.

Bertsoetarako neurriak

Bertsoetarako neurriak ugariak dira noski.
Bertso-paperetan begiratu besterik ez dago.
Aotik aora kantatzerakoan lau neurri auetara
errenditzen giñan, ordea, Mitxelenaren azke-
nengo luze ori izan ezik: zortziko aundia, ama-
rreko aundia, zortziko txikia eta amarreko txi-
kia.

Doiñu edo bozetan nola moldatzen zan? Ez-
tarriz ibiltzen zan naiko elbarri askotan. Baiña
bere garairako aberastasunik asko bazun.

Ez dakit asmatuko zun edo etzun erriare-
kin; baiña neurri ezberdiñetan edo oiturarik
etzan neurrietan kantatzeko bertsoalaririk au-
sarditsuena nik Mitxelena ezagutu det. Eta,
ontara geran ezkerro, gertakizun bat jarriko
det.

Gipuzkoako lenengo bertsolari txapelketa Eibarren ospatu zan, 1959-ko azaroaren 8-an. Euskaltzaindiak antolatu zun, eta berak aurrez aukeratutako zazpi bertsolarik kantatu gendun. Orduan goi maillan zebiltzan bost bertsolari: Uztapide, Lasarte, Zepai, Lizaso eta Mitxelena. Agirre, urte artako San Luis egunean Usurbilko Agiñan, Gipuzkoako luistarren txapelketan, aurrena erten zalako; eta idazten ari dan au, urte bereko Arantzazuko Amaren egunean, Ordizin, Gipuzkoako gazte artean, txapeldun izendatu zutelako. Basarri, Euskadiko txapelketa nagusirako utzi zuten.

Giro otza zan, baiña bazan jendea Eibarko plazan! Eibarren jaialdi ura Mogel idazle ospetsu izandakoaren omenez ospatu zan.

Egun artako *La Voz de España* egunerokotan, Basarrik jaialdiaren berri eman zun; baita ere bertsolariai etzitzaiela jarri bear bederatzi puntukoan kantatzeko bearkizunik txapelketa batean eta abar. Txirritak ere aotik aora sekulan etzula kantatu bederatzi puntukorik esaten omen zun. Basarrik orrelako adierazpenak emanda, iñork ez gendun usteko noski bederatzi puntuko lanik izango gendunik.

Zer gertatu zan, ordea? Asi zan jaialdia Alpontso Irigoien zuzendaritzapean. Agur bana gendun aserako lana, Uztapide eta Lasarte lenengo ziralarik.

Aserako bertso bana kantatu gendunean, bigarren agindua auxe eman zun gure Alpontso jaunak: Mogelen gorantzan danak bederatzi puntuko bertso bana kantatzekoa alegia.

Bederatzi puntuko bertsorik etzala orrela kantatzen eta Uztapidek eta Lasartek beintzat gogor kontra egin zioten. Orduan Alpontsok, nai gendun neurritan kantatzeko askatasuna eman zun, eta poz ederra artu nun nik beintzat.

Poz ori artu etzun bat izan zan, ordea. Mitxelenak, bere garaia etorri zanean, bederatzi puntukoa kantatu baizun. Ondorenean, Basarrik, bai egunerokoan eta bai irratian, jaialdia-
ren berri ematerakoan, onela itzegin zun gutxi gorabera:

“Juraduak bederatzi puntuan kantatzera beartu zitun bertsolariak; eta orduan, bere onetik aterata, ezetza eman zuten kantatu bear zutenak. Orduan, lau puntuko bertsoak kantatzeko baimena eman zan. Bertsolari bakarra izan zan bederatzi puntukoa kantatu zuna. Egia da bertsoa asi eta bukatu egin zula. Baiña bai jarritako gairik ikuitu etzuala ere”.

Otz-otzean aztertu dezagun Mitxelenaren jokaera. Egia da oiartzuarrak lagunentzako errespeto gutxi agertu zula; egia beste sei bertsolariak naiko asarratu giñala Mitxelenaren jokaerarekin; baiña arrazoi zula esango nuke.

Mitxelenaren aginduz etzan jarri bederatzi puntuko ordena. Besteak bezela asarrerik ere etzun azaldu; eta, berari iruditu baldin baizitzaion lan artan luzitu zezakela, zergatik etzun kantatu bear? Juradu edo gai-jartzaillearen esanetara makurtzen danak ez al du begirune bat merezi? Juraduak uts egin zula neurri ori

jartzearekin, edo bertsolariak etziola gaiari eldu, ori beste kontu bat da.

Akatsak

Ainbeste alderdi on zitularik, akatsak izatea ere ez da arritzeko; eta Mitxelenak ere bazitun, beste guztiok bezelaxe.

Bertso-munduan besteak baiño geiago ote zan iruditzen zitzaion askotan; eta, ona baldin bazan ere, neurriko zapatak billatzen zitun.

Txapelketa batean epaimaikoak emandako erabakiarekin ere nekez geldituko zan konporme, bera aurrena ez bazan beintzat.

Ostatuan-da, ixildu ezin ori ere sarritan izaten zun, eta neurri batzuk artzea bearrezkoa izan bertsolariaren luzimendurako.

Oiek guztiak ala izanik, ni beintzat geiena arritu ninduna auxe izan zan: bere azken urtetan, bere kidekoak danak txapelketatik erretiratu giñanean, berak txapelketara joan nai izaten zula.

Bere pamilikoak eta gu bere lagunak kontra gogor egiñaz gelditu arazi gendula badakigu. Gaiñera, ordurako osasunetik etzebillen ain ondo; eta txapelketak osasun ona eskatzen dula badakigu or ibilli geranak.

Esan liteke naiko bertso kantatu gabe joan zala gizarajoa mundutik. Beste alde ortara bada bertsolari pranko joana, eta izan dezatela danak zorionean kantatzeko era, Jaunaren aintzarako eta emen ase gabeko egarriak aseaz.

Belauntza

1947-garren urteko udara izango zan, gutxi gorabera. Belauntzan Meza Berri bat zan: Don Antonio Ugartemendia, Garatxe baserriko semearena, ain zuzen.

Nik amairu urte izango nitun; da Belauntza gure baseritik oso gertu gendunez, kideko batzuk alkartuta pertsona larriagoko batekin, igande arratsalde artan erri ortara joan giñan mendiz -artean Belauntzara kamiorik etzan-, zerbait pesta izango zan itxaropenez.

Nik ordurako bertsoa beste ametsik ez nun. Bertsolariak entzuteko zoria izan ezkeru, berri, neretzako zerua izaten zan.

Ala, or jakin gendun Belauntzan bertsolariak bazirala. Alako batean igo dira lau gizon, plazan jarrita zegon oltzaduraren gaiñera. Nor ziran? Neretzako laurak ez-ezagunak. Baiñan laister jakin gendun beren arrastoa: *Beltza*, Eusebio, *Zume* -irurak Ibarraoak-, eta Mitxelena. Mitxelena, gazte-gaztea zalarik, mutil bikaiña ala ere.

Beltza tabernako bertsolaria izango zan; baiñan neri ura gustatu zitzaidan geiena.

Eusebio, abizenez Ezeiza, gerra aurretik Txirritarekin da abar Tolosako kanporaketan kantatua. Berarekin kantatzeko zoria izan nun, oso gazte nintzala; eta bertsolari polita zan.

Zume, Belauntzako Meza Berritik urte beterra geienaz ere, andregaiari laguntzera zijoala

gau batean, arrobi bat erori eta biak azpian arrapatu zitun. Ezbear ori Tolosaren aurrekaldean gertatu zan.

Beste irurak ere egin zituzten munduko lanak, azkena Mitxelena zalarik. Gozatu bezate betiko atsedenean.

Jendea gozatu zan bertso-saio arekin. Bertsoak entzuteko ere gaur ez bezelako gosea zegon orduan. Mitxelenak egin zun grazirik geiena, azkenengo bertsoan izan zan, zutik jarrita luzea kantatu zularik. Ordura arte sillatan exerita jardun ziran lauak. Mitxelenak ogei ta iru urte izango zitun orduan.

Ura gozamina nerea! Zer ez nun emango nik aiek bezela kantatzearren? Eta zeñek esan orduan Mitxelena eta biok ainbat lekutan kantatu bear gendunik?

Etxera etorri nintzanean, aita zanari zuzen eman nizekion Belauntzako berriak. Esan zidan *Beltza* eta Eusebio bertsolari politak zirala. Beste bien aditzerik etzun, ain gazteak ziralarik.

Saio ura izan zan plazan lenengo entzun nuana, eta urrengoa etzan nik nai orduko iri-txiko.

Urrengo udaran Uztapide ere Belauntzan ezagutu nun, Uranga lagun zularik.

Oraindik bertsoan asteko nintzala, Mitxel-nari entzun nion Belauntzan bi edo iru aldiz, Loidisaletxerekin eta Ernani-Txikiarekin.

Beraz, badet arrazoirik Belauntzarekin eskertsu egoteko.

Alkarrekin kantatzen

Berrobin urte aietan Luistar-pesta egiten zan San Juan aurreko igandean. Ardandegian eta abar bertsotan asia nintzan, eta luistarren zuzendari oiek urrengo Luistar-Pestetan nik ere kantatu bear nula esan zidaten.

Etzan nai orduko etorri egun ori, gero, eguna etorri zanean, lanik asko banun arren.

Amabi urterekin egiten zan orduan Komunio Aundia; eta, ura egin ezkeru, luistar izaten zan.

1952 urtea zan, eta luistar nintzalarik eta emezortzi urte, naiko lotsagabetua nengon bertsotarako. Bearbada geiegi. Ezjakiña izaten baita lotsagaberik aundiena askotan.

Erriko lantoki batean lana egiñaz, Berrobiko taberna batean apopillo zegon Belauntzan aitatu dedan bertsolari Loidisaletxe orren anaia, eta bertsolari polita bera ere. Ura izan zan nere lenengo maixua. Sebastian du izena, eta gaur Oiartzunen bizi da.

Esan dedan urte ortan, pesta ederra jarri zuten zuzendari oiek, eta erabaki zuten Mitxelena ekartzea bertsotarako, Sebastian errezil-darraren eta nere laguntzarako.

Arratsaldeko saioa zan bertsotarako, baiña Mitxelena goizetik etorri zan. Alkarri eman genizkion geure ezagutzeak, eta naiko bildur jarri nintzan, alako izen aundiko gizon baten ondolan. Sebastianekin neukan konpianza puska bat, eta ari eskerrak.

Mitxelena, Sebastian apopillo zegon tabernan gelditu zan bazkaltzen; eta ni, berriz, etxera, arratsaldeko saioa nola ertengo ote zitzaidan kezka ederrarekin.

Santa eskean eta abar ibillia nengon; baiñan plaza batean iñoiz kantatu gabea. Gaur, gogorik izan ezkerro beintzat, lenago ertetzeko aukerak badaude.

Arratsaldeko iruretan bezperak zeuden, eta ondorenean prozesioa San Sebastian ermitara, Ama Birjiñarekin eta San Luisekin. Esan bearririk ez dago aruntz zintzo joan bearra zegola.

Bazkaldu ta elizara baiño len, sartu nintzan taberna ortan, eta Sebastian eta Mitxelena bertotan ari ziran. Ni ere asi arazi ninduten. Baiña bezperetako ordua zan eta aruntz joan bear. Gogoan det azkenengo bertsoa, bezperetara ni joala-eta, nola kantatu nun.

Mitxelenaren erantzuna, gutxi gorabera:

Gazte maitea, nere esana
gaur bear dezu ikasi:
etzaiteala iñoiz ibilli
elizatikan igasi.
Eta gaurkoan plazatutzea
omen daukazu lenbizi,
suerte on bat izan dezazun
erregu iozu San Luisi.

Orduan baiño pena geiagorekin ez naiz joan sekula elizara. Gaurko gazteak gauzak erreza-go uzten dituzte.

Bukatu genituen elizako lanak ere, eta etorri zitzaigun kantatzeko garaia. Sebastianek eta Mitxelenak dotore kantatu zuten. Nik ordea...

Au izan bear zun jende askoren iritzia: oraindik gaztea negola ta...

Orduko oitura ala izaten zan; eta Mitxelena, berriz, ortan amorratua zalarik, plazakoaren ondoren saio ikaragarriak egin zituzten tabernetan Mitxelenak eta Sebastianek.

Ibarrako *Beltza* ere agertu zan nunbaitetik, eta tartean sartu zitzaien.

Alako batean Mitxelena orrek kantatu zun pixagurez zegola ta komonera zijoala. *Beltza*-k txapela berak jarriko ziola eta etzeukala komonera joan bearrik kantatu zion.

Mitxelenaren erantzunaren bukaera onela izan zan:

Asko paltatzen dezu
edukazioan,
au ez da egongo San
Luisen Kongregazioan.

Bertso orrek oraindik grazi geiago du *Beltza* mutil zarra zala jakiñik. Komunio Aundia egin ondoren ezkontzen ez bazan, il arte guztian Luistar izaten baizan. Kongregazio ortan etzegona, berriz, nolabaiteko samarra juzgatuko zan.

Kontuak kontu, Mitxelena erruz gustatu zan Berrobin. Geroztik, jira batzuk egin bearrean gertatu zan.

Beste bertso batzuk

Tolosako zezen-plazan sokatirako txapelketa zan.

Ogei ta amar urte ez dira urruti izango. Go-goan det *Panderia* pentsu-etxeak jarritako jaialdia zala.

Sokatiran artean etzan emen gaur dagon neurririk pixuan errenditzeko eta abar. Zenbat eta mutil aundiagoa izan, orduan eta obe juzgatzen zan sokari tiratzeko.

Ala, *Luxia*, *Soarte* eta gizon aundi ospetsu batzuk Tolosan ziran sokari tiraka.

Lau bertsolarik borobildu gendun jaialdia, tartean Mitxelena zala; eta danen zuzendaritza Basarrik egin zun.

Onek puntu au jarri zion Mitxelenari, sokatirako pentsamentuz jakiña:

– Zu, Mitxelena, ondo zabilta pixuan...

Mitxelenak:

– Baiña lagunak ere badauzkat auzuan;
Basarri au ez dago gaur sasoi gozuan,
bera're erten balitz zerbait ingo zuan.

* * *

Adunan udaletxe berria egin zuten, eta bere zabalkunde edo inaugurazioan Mitxelena eta biok kantatu gendun.

Plazako saioa eginda, illuntze aldera, taberna batean bertsoan ari giñan. Alkate ta kontzejalak inguruan genitun, beste askoren artean.

Baita *Tximela* izenordez ezagutzen gendun bertso-jartzaillea ere. *Tximela* au zirikatzaile ere bazan, eta bere bitartez alaitasun ederra jarri gendun. Alako batean, puntu au jarri zion Mitxelenari bertso-jartzailleak:

– Emen dabiltz inguruan
alkate-kontzejal...

Mitxelenak:

Zure oraingo puntu oi
ez ote zan argal?
Bertso au bukatzen badet
txukun eta pormal,
mereziko det noski
zuk ainbeste jornal.

* * *

Albizturren Gabon-eskean ibiltzeko oitura zan, soiñujolearekin eta bertsolari batekin. Iru talde egokitu izan giñan batean, Mitxelena koplari zala.

Ibillaldi luzea izaten zan. Eguberri goizeko zortzietako mezetan bukatzen baigendun. Ondorenean, Erriko-Etxean gosaria, talde bakoitza mai berezietan jarrita.

Erri txikietan sarri izaten dira ikamikak, eta an ere baziran. Talde bateko erdi bertsolari bat or asi da Mitxelena zegon taldera segarako desapioka eta abar. Mitxelena azkar asi zitzaion erantzuten, eta an ziran komeriak. Oiartzuarren bertso baten bukaera onela izan zan:

Desapioa bota zak eta
bateonbat aterako zak,
eta jokatuko dizkiagu
esken bildutako sosak.

Azkenean, pakeak egin naian-edo, albizturdar orrek, bi eskuak luzatuz, "amarra" eskatu zion; eta Mitxelenak bertsoaren bukaeran:

Gaurko onetan ik egin deken
joera ori gaizki dek;
biar amarra emango diat,
gaur bostekoa aski dek.

Zerk ekarri zion eriotza

BIOTZEKO miñak eraman zuen Joxe Joakin Mitxelena, naiz ta beste gaitz batzuk agertu zitzaizkion azkenean.

Lenbiziko biotzeko ongiezak eman zionean, Arrasaten giñan bertso tara jonak. Joan Mari Lekuona, apaiza, gurekin genuen. Etzagoela ongi, petxuan min aundia zaukala-eta asi zenean, Joan Marik esan zion:

– Goazen nerekin.

Eta iruak jon giñan. Eritetxe batera eraman zuen. An moja batzuek artu ta eraman zuten, eta ordubeteren burura ekarri zuten, mediku batek ikusi zuela eta biotzeko ongiezak eman ziola esanez; erremedio bearrenak jarri zizkate-la, eta urrengo egunean joteko medikuarengana, eta bitartean ez artzeko ura besterik ezer. Ala, itxeratu giñan.

Ni oso kezkatua nengoen, eta urrengo egunean jon nintzan beragana berriro, medikuak zer esan zion jakin naian, eta orduan dena kontatu zidan: botikak jarri zizkatela, eta jateko, berriz, arraia eta berdura.

Biño momentu artan ere bere ateraldi bat atera zitzaion, eta auxe esan zidan:

– Medikuak jarri nauen rejimen onekin bizitzan banaz, nere denboran badit amakin bat alperrik jana.

Ala, jarri zioten rejimen orrekin kilo batzuk utzi zituen. Botikak bajatu ere bai, biño rejimena egiten segi bearra zagoen.

Luzaro samar kontu zion rejimenari; biño alako lekuan bizi zelako batetik, eta bertsoarako ibilia zelako bestetik, pixkana-pixkana zabartzen jon zen.

Berriro lengo ongieza berritu eta beste bi edo iru gaitz agertu zitzaizkion: azukrea, kolesterola, tentsioa eta abar; eta, ongiez denak zeramazkielarik, bertsoan zabillan.

Iltzeko zortzi egun aurretik, Etxeberria eta biak Orion kantatzen izanduak omen ziran. Ala jakindu nuen.

Ez genuen uste artarañoko ongieza zaukanik, eta etzigan denborik eman zer zion jakiteko eta bixita bat egiteko. Pena au neronekin gelditua dut, eta bertsolari lagun geiagori ere adituta nago gauz bera.

Biño bada nere lagun bat, len aitatutako Estraburu baserriko Esteban Iriarte, bere familiariko bat bixitatzerat jon ta Mitxelenarekin topo egiña ospitalean.

– Zer da, Mitxelena? Zu ere emen?

– Bai. Atzo etorri niñun.

Silla-karro ttiki oietako batean omen zaramaten, eta bromarako gogoarekin ikusi zuela esan zidan gañera.

– Kategoria igo zidatek –esan omen zion–.

Lenago kotxean nerone ibiltzen niñun, eta orain bestek ibiltzen niok.

Etzakien asko gizarajoak noraño iritxita zagoen,

Joxe Joakin Mitxelena zena 1988-ko abenduaren 3-an il zen, Oiartzunen bizi zelarik, Donostiko Ospital Probintzian, larunbat-illunabar batez.

Andik ogei ta lau ordura ekarri zuten gorputza Oiartzungo kanposantura, illunabarreko bostetan, bere sendikoak eta Atanillok jarraitzen ziotelarik; eta gu antxe geunden zai.

Bere koñadoa zen Nikolas Ariztizabal, Atanillo, Joxe Mari Irastortza (*Larraxabal*) eta nik artu genuen geiago ikusiko ez genuen tokira eramateko kargua.

Bere tokian utzi genuenean, an zabillen bategen esan zidan:

– Bertsoren bat kantatu nai al diozu, Koxme?

– Ez –erantzun nion.

Momentu artan izketarako gogorik ez nukan; eta kantatzeko, berriz, ez nintzan gauza.

Tabernara jon ta arguioan egoteko partez, itxerako bidea artu nuen burumakur, beste asko jon ziran bezelaxe.

Urrengo egunean, illetako elizkizunak. Oiartzungo eliza ederra eta aundia izanagatik, ttiki gelditu zen egun artan, don Manuel Lekuona zena eta Uztapide zenaren illetan gelditu zen bezelaxe.

Ni iruen illeta-elizkizunetan izandu nintzan, eta iruetan jendetza aundiak ikusi nituen. Biño nik biño egokiago ikusitakoa bazen Joan Mari Lekuona, eta ondorean areri entzun nion Mitxelenaren entiarroan ainbeste gizonezko etzuela bein ere ikusi izandu entiarro batean.

Arkibidea

Itzaurrea	7
Izaguera.....	13
Mutil koskorretan	15
Aita eta amarekin.....	21
<i>Napartarrak</i> Oiartzunen	27
Gerra-denbora	37
Lanean	41
Non, noiz eta zeñekin	44
Soldaduska.....	50
Oiartzunen, 1952-ko San Estebanetan..	57
Aurrerako jarraipena.....	67
Pasaiko puertoan	71
Ierobi-aundi sagardotegia.....	75
Sinismena.....	81
Erriko pestetan	85
Pablo Yantzi zena	87
Zutola eta Biotegi ixirutegiak.....	93
Lesakako Antonio pelotaria	101
Mitxelena eta Lexoti	105
Mitxelena eta ni	113

Kastillan eper-eizean.....	115
Ondarrabiko lagunak.....	122
Arantzazu	125
Musakola.....	128
Atamitx jatetxea.....	132
Arjentinan.....	138
<i>Xulua</i> eta Nikolas.....	142
Artikutz	147
Barrikotea.....	153
Donostiko Loiola	160
Igantzikoz zikiro jatea.....	163
Atamitxen langille izantako batek esana	166
Erretako baserri baten ondorenak.....	170
Txomin Garmendiak idatziak	178
Zerk ekarri zion eriotza	193



KOSME LIZASO

Bi bertsolariren izenak irakurtzen dira liburu onen azalean: Jose Joakin Mitxelena eta Kosme Lizaso, biak oiartzuarrak. Bikote berezi ori urte-etan or ibili zan bertsotan erriz erri kantari, Gipuzkoan ez-ezik, Naparroan ere.

Orain, berriz, batek mundu ontako lanak egin ondoren, besteak luma artu eta lagunaren bizitza idazteari gogotsu ekin dio. Bejondaiela Kosme adiskideari!

Onek, bere erriko euskera bizi eta jatorraren bidez, lagun zanaren gertaerak, bertsoak, ibille-
rak eta ateraldiak kontatzen dizkigu, ura zer zan dotore adieraziz.

Denbora berean, bertsolaritzaren gizaldi baten berri ematen digu, eta bai Oiartzungo erria oraintsu arte zer izan dan azaldu ere. A. Z.



Oiartzungo Udala

ISBN: 84-89080-61-5



9 788489 080614

G